goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2016-04-15
EGUBAKOITZA
679. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## Hondakin bilketa sistema berria astelehenetik abian | 5

## Emakumeen Birak Debagoienean egin du lehen etapa | 27

500 musikari bihar Bergaran Debagoieneko XII. Trikiti Egunean | 31



Ken Zazpik bete egingo du Amaia Antzokia | 30



Agur hunkigarria egin diote Antton Mendizabal 'Tonino'-ri | 11



Trini Ruiz De Alegria. Isabel Beritxinaga. Norberta Ezpeleta. Emeteria Aranburuzabala. Edurne Galartza. Felisa Garai. Amada Morentin. Amaia Tello. Angeles Florez.



Arantxa Arruti. Arantxa Zabalegi. Arantza Amezaga. Asuncion Vergara. Avelina Marcos. Begoña Gorospe. Benita Asas. Bittori Barcena. Cecilia Garcia de Guilarte.



Eli Nosellas. Esther Zilberberg. Eusebia Echarri. Agurtzane Juanena. Isabel Zubia. Isidora Casaban. Kontxi Urkijo. M. Dolores Anasagasti. M. Luisa Bilbao.



Mamen Moreno. Maria Echarri.

# Faxismoaren errepresioak emakume aurpegia ere izan zuen

Apirilaren 24an egingo diete aitortza, Elgetan | 24



Maria Luisa Urra. MariaTeresa Ponton.



Mikele Aguirre. Miren Clemente. Mirentxu Aguirre. Normi Mentxaka. Pilar Garciandia. Teresa Harina. Teresa Nadal. Kasilda Hernaez. Clara Moran.

ARGAZKIAK: MAURO SARAVIA, INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA ETA J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

## Bihar hasiko dira Aramaion Goikoetxearen mendeurreneko ekitaldiak

Herritar askok parte hartuko dute inaugurazioan | 24

## "Ertzaintzaren jardunaren %80 prebentzio lanetan ematen dugu"



**Iñigo Loiola** | Bergarako ertzain etxeko nagusia | 2



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- **Bergarako ertzain etxea barrutik**
- **Jon Maiari elkarrizketa**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05




SINADURAK
'Ya asi nahiz' | 8 IGOR ARIZMENDIARRIETA
Eskerrik asko kantarizaleoi! | 8 AMAIA TXINTXURRETA
Eszenatoki berriak | 13 OSCAR RODRIGUEZ
Zenbaki hutsak | 14 JAIONE CARPINTERO
Zapia integra dezakegu? | 21 PALOMA MARTINEZ
Papera eta paperak | 24 XABI IGOA
'Proiektu poetikoa' | 40 IDOIA ETXEBERRIA

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 27 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 | ZORION AGURRAK 34 | IRAGARKI SAILKATUAK 35 | TELEBISTA IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

**Iñigo Loiola Elkoroiribe** | Bergarako ertzain etxeko nagusia

# "Euskadiko delinkuentzia indize baxuenak ditugu Deba-Urola barrutian"

Bi urte daramatza Iñigo Loiolak Bergarako etzain etxeko nagusi, ia 33 urte ertzain modura; beraren eta bere lankideen egitekoaz jardun du



Iñigo Loiola komisarioa, Bergarako ertzain-etxek

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Iñigo Loiola (Elgoibar, 1957) 1984az geroztik da ertzaina –3. promozioa–. 1987an inspektore izatera iritsi zen; gero, unitateko buruzagi-azpikoa; eta unitate-burua ondoren. 1990az geroztik da jarduneko komisarioa, eta 2011tik komisario. Bergarako ertzain etxeko nagusia da, berriz, azken bi urteotan. 218 poliziaren jardunaren ardura du: 194 gizonena eta 24 emakumerena. Deba-Urola barrutiaren ardura du Bergarako ertzain etxeak.

**Noiz erabakitzen du ertzain etxeko nagusiak elkarrizketa hau egiteko ordua badela?**

Soraluzeko alkateak kezka helarazi zigun bertako lapurretengatik, eta, hango Pil-Pilean aldizkaria gaiarekin interesatu, alkatea nirekin harremanetan jarri zen elkarrizketarako gertu nengoen galdetzeko, eta baietz. Zuekin, berriz, MUko ikasle batek egindako lan baten ondorioz jarri ginen harremanetan –Goienaren izenarekin albistea argitaratu zuen ikasle batek esanez MUko irakasle bat hilda azaldu zela–; albistea haizatu egin zenez, zuekin harremanetan jarri ginen, unibertsitateko ordezkariekin moduan, albiste faltsua zela abisatzeko. Eta hortxe sortu zen harremana. Nik bi urte daramatzat hemen, ez dakit lehenago zein zen politika, nahiz eta egia den orain kontu batzuk errazago direla. Dena den, uste dut zuen aldetik ere lehen aldia dela, bi urteotan, behintzat, gurekin harremanetan jartzen zaretela.

**Bai, gure aldetik ez da ahaleginik ere egin, baina uste dut orain urte batzuk pentsaezina zela halakorik proposatzerik ere...**

Bueno, akaso beste modu batean… Guk hemen urte asko daramatzagu… Beste kontu bat da zer esan, edo horrenbeste argazki ez atera…

**Baina ez da egia badagoela beste irekiera bat, gerturatzeko joera?**

Egoera aldatzeak uste dut gauzak erraztu egiten dituela; gauza batzuengatik gutxiago kezkatu behar dugu orain.

**Zuk zeuk noiz eta zergatik erabaki zenuen ertzain izatea?**

1983ko azaroan. Bizitzak eraman ninduen… Orduko aukeren artean interesgarria iruditu zitzaidan, zerbait berria zen…

**Argi zenuen polizia izan nahi zenuela?**

Ez; ez nuen batere argi. Herri honetan zeinek pentsatzen zuen, ba, polizia izatea, ala?

**Akaso, ertzain izatea desberdin ikus zitekeen...**

Ertzaintza jaio zenean, akaso, hori pentsatzen has zintezkeen, baina Ertzaintzaren aurretik, niri, behintzat, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin. Behin aukera egonda… bai, beste aukera bat zen. Sasoi hartan, orain moduan, krisi handia zegoen… aukera bat zen, eta sartu arte, ezin jakin gustukoa izango zen edo ez…

**Eta gustuko duzu?**

Ba, bai; 32 urteren ondoren (ia 33), eta karreran aurrera egin ondoren… Hemen gaude, zailtasunak zailtasun.

**Ia 33 urtetan zein izan da bizi behar izan duzun egoerarik gogorrena?**

Gogorrenak, logikoki, atentatuak. Ertzainen kontrakoak… eta edozein atentatu. Azken batean, dena batzen da… nire lagunak hil egin dira [hunkituta]… Horrela da.

**Ertzain ala polizia? Zela duzue nahiago zuen burua izendatzea?**

Ba, hori argi ez duena… *Ertzaintza* berba oso polita da: herri zaintza, herriarekin lotura du… baina ez du polizia besterik esan nahi. Bai nahi duguna da polizia izan modu jakin batean, baina hori ez du izenak kalifikatzen.

**Asko aldatu da zuen egunerokoa urteotan?**

Zeri buruz diharduzu, zehazki?

**Bereziki indarkeriaren eteteari buruz.**

Pentsatzen dut ertzain etxeetan aldatuko zela, baina ni beste esparru batzuetan egon naiz. Dena den, lehen, herritarrengatik eta gure buruengatik kezkatu behar genuen, eta kontuz ibili. Orain ere kontuz ibili behar dugu, bihar ere lanera etorri behar dugulako, eta horregatik gauzak lasaitasunez hartu behar ditugu, baina… Gure oinarria da ez sortu saihestu nahi den arriskua baino gehiago. Eta horrek edozer gauzatarako balio du.

**Eta maila pertsonalean eragin dizu?**

Noski! Bizitza honetan gauza askorengatik kezkatuko zara, baina *Damocles-en ezpata* hori gainean ez izateak asko lasaitzen du, duda barik. Argi dago.

**ETAren jarduera eteteak esan gura du baliabide gehiago dituzuela beste arlo batzuetarako?**

Hori ertzain etxe honetatik harago doa; edozein modutan, ETAren zuzeneko borrokarako zeuden baliabideak eraldatzen joan dira; gainera, bizkartzain lana egiten zutenek lan hori egiteari utzi diote eta baliabide gehiago daude kalerako. Dena den, ertzain etxeetan lehengo lan bera egiten jarraitzen dugu, baina orain gure autobabesaz apur bat gutxiago kezkatu behar dugu, eta, zentzu horretan, herritarrak irabazi egin du. Argi dago.

**Ertzain etxeei ez zegokien lan hori...**

Ez. Gure betebeharra da berehalako erantzuna edozein gertaeraren aurrean: edozein desastre, atentatu… ahal bada, aurre hartu, baina, gertatzen bada, kalteak txikiagotzen ahalegindu, biktimei arreta eman eta egoera normaltasunera ahalik eta denbora laburrenean bueltatzen ahalegindu. Eta, logikoki, gaizkileak harrapatzeko jazarpen aukerarik balego… baina hori ez da terrorismo kasuetarako bakarrik, baizik eta edozein kasutan horiek dira premisak: aurre hartu, gertakariaren neutralizazioa eta laguntza.

**Hala ere, ez zaituztegu kalean askorik paseatzen ikusten...**

Ekintza plana badugu kaleko oinezko patruilak –*korrikak* esaten diegu– handitzeko. Adibidez, gaur egun hileroko patruiletan prebentzioari eskaintzen diogun denboraren %20 baino gehiago *korrikak* izan behar direla zehaztuta dugu. Ahalegin handia egiten dugu *korrikak* egin daitezen prebentziorako lekurik eta momenturik egokienetan. Zorionez, barruti honetan delinkuentzia indizeak nahiko baxuak dira, iaz Gipuzkoako ia baxuena. Azken hiruhilekoan apur bat igo da, baina, hala ere, Euskadiko indize baxuenak ditugu. Gainera, dauden delituen ezaugarriak profil baxuko delinkuentziarenak dira –indarkeria bakoak, salbuespenak salbuespen–. *Korriketara* bueltatuz, gure jardunaren orduen %80 lan prebentiboak dira, bai esparru urbanoan edozein motatako delituei aurre hartzeko –lapurretak, etxeko indarkeria…–, bai herrien artean ere –errepideko segurtasuna– zein baserri inguruetan. Azken horrek ditu esparru urbanoaren antzeko problematika delinkuentziala, baina berezitasunekin: ez da gauza bera astebururetan bakarrik erabiltzen den baserri batean lapurretan egitea edo sakabanatutako esparru bateko baserri batean egitea… isolatuta bizi direnen kasuan, gehiago kezkatzen dira segurtasunarengatik… Baserri esparruetan horretarako patruila bereziak ditugu. Beraz, *korrikak* dira zeregin prebentiboaren beste elementu bat.

**Zer da, zehazki, prebentzioa? Errepideetan, ulertzen dut dela kontrolak egitea...**

Bai. Eta ez ditugu dirua batzeko egiten. Kontrolei dagokienez, ekintza planetan kilometroka dugu jasota barrutiko bide nagusiak eta bigarren mailakoak: gertatzen





o nagusia bere bulegoan. | XABIER URZELAI

diren istripu motak, noiz gertatzen diren, asteko zein egunetan, ze ordutegitan, zergatik… Horrekin prebentzio lana egiten dugu: presentzia ordu eta egun jakinetan… Lehen esandako moduan, jardunaren %80 horretan ematen dugu; beste %10 dira intzidenteak eta gainontzeko %10a joan-etorriak… %80 horretatik zati bat eman behar da ekintza urbanoetan –*korrikak*–, errepide segurtasunean, baserri inguruen zaintzan… Operazio-buruak eta bere taldeak antolatzen du hori. Txandaka lan egiten dute, 24 orduko zerbitzua emateko. Bestalde, egunero egin beharrekoa markatzen du Egunero dokumentuak. Hor zehazten dira eguneroko ekintza planak.

**Hiri-esparruko prebentzioa zelan gauzatzen da, zeren arabera?**

Bi faktore daude: segurtasun erreala eta herritarrak sumatzen duen segurtasun maila. Lehen kasuan, datuekin egiten dugu lan: non gertatzen diren, han jarduten dugu. Adibidez, orain gutxi, etxeetan lapurretak izan ziren Arrasateko gune zehatz batean; gertatzen ziren 18:00etatik 20:00etara, eta modu jakin batean; kasu horretan, patruilen presentziaren bitartez egiten da lan: agerian edo kamuflatuta, zer lortu nahi den arabera: gaizkileen ihesa eragin, zaintza… Batzuek, adibidez, diote kamuflatutako pertsonen bitartez gaizkileak harrapatzea dela helburua; baina kasu horretan ez da lan egiten sumatutako segurtasun mailan. Ni bi segurtasun motak zaintzearen aldekoa naiz. Dena den, barruti honetako delinkuentzia maila kontuan hartuta, segurtasun sentsazioa egunero landu beharrekoa da; izan ere, herritarrak segurtasunik ezaren pertzepzio handiagoa du benetan dagoen segurtasunarena baino.

**Zeintzuk dira datuak?**

Rankinga dugu, delitu motaren arabera. Estrategikoak dira larrienak. Horien artean pertsonen kontrakoak daude lehenengo: homizidioak, biolentzia matxista eta biolentzia edo beldurra erabilita egiten diren lapurretak; gero datoz etxeetako lapurretak; gero bestelako espazio itxietakoak eta gero enpresetakoak. Delitu horiei egiten diegu jarraipen handiena. Azkenaldian, ertzain etxean erabaki dugu garajeetako lapurretei ere arreta berezia jartzea. Gertatzen dabiltza eta herritarrak kezkatu egiten dira. Edozein modutan, delituen indizeak nahiko baxuak dira: homizidio saiakera bat izan zen Bergaran 2015ean. Buruko gaitza zuen pertsona batek familiako bati eragindakoa. Halakoak oso zailak dira saihestea. Arrasaten egon dira sexu askatasunaren kontrako bost delitu larri. Eta, oro har, 2015ean 69 kasu berri izan ditugu. Horietatik arrisku berezikoak izan dira bi –neurri jakinak eskatzen dituztenak: bizkartzainak…–

**Eta lapurretak?**

2015ean, Deba-Urola barruti osoan, etxebizitzetan 96 lapurreta izan ditugu. Debagoienean, 68. Gehien, Arrasaten: 33; Antzuolan: 4; Aramaion: 1; Elgetan: 4; Bergaran: 11; Oñatin: 3; Aretxabaletan: 7; Eskoriatzan: 4 eta Leintz Gatzagan: 1. Bitxikeria moduan, etxeetako lapurreten %25 gertatzen dira baserri giroan, eta bizilagunen %10 bakarrik bizi dira baserri giroan, intzidentzia altua da hori.

**"Ez nuen argi polizia izan nahi nuela; herri honetan zeinek zuen ba hori argi?"**

**"Herritarra, oro har, ez dago kontrolatuta; gure aldetik ez, behintzat"**

**"Gomazko pilotak erabili behar dira beste neurri batzuk nahikoa ez direnean izan "**

**"Atxiloketen eta indarkeria matxistaren gaietan ISOak ditugu"**

**Lapurren profil orokorra zein da?**

Azkenaldiko lapurretatan baditugu inguruko ohiko gaizkile batzuk tarteka jarduten dutenak, baina ikusten gabiltza beste leku batzuetatik autoetan etortzen direla, enpresetan, etxeetan edo saltokietan lapurretan egitera. Denetik. Baina azkenaldian, Deba-Urola barrutitik kanpo bizi den jende gehiago ikusten gabiltza.

**Bestalde, indarkeria matxista ere zuen zereginetan sartzen da?**

Bai. Eta, gainera, genero indarkeriaren prozeduraren ISO ziurtagiria dugu. Guztia dago protokolizatuta; kasu berrien jarraipena egiten da, kontrola, kasu bakoitzaren jarraipena, elkarrizketak, zaintzak eta kontrazaintzak egiten ditugu urruntze agindua edo babes agindua dagoen kasuetan; astero egiten da ditugun kasuen azterketa… Gainera, baditugu adituak diren bi agente, eta euren lan-jardun osoa zeregin horretan ematen dute. Guretzat oso gai garrantzitsua da eta jarraipen oso handia egiten dugu. Batez ere, protokolizatuta dugu biktimekin egin behar duguna. Sexu indarkeria kasuetan ere bai. Modu berezian lantzen dira, biktimari arreta handiagoa ematen zaio: medikuarengana eraman behar bada eraman egiten dugu, laguntza psikologikoa… Guztia dago protokolizatuta.

**Eskualdea txiki samarra da; ze punturaino gaude kontrolatuta? Esaten zen kalea kameraz josita zegoela…**

Kaleko kamerak iragarrita daude; zenbait saltokitakoak, banketxeetakoak… horiek erabiltzen direla delituak ikertzeko? Jakina. Kutxan norbaitek lapurreta egin badu, logikoki, bertako irudiak baliatzen ditugu gaizkilea identifikatzeko. Baina guk ez dugu ertzain etxetik aparte besterik.

**Faroletan kamerak ei zeuden…**

Norbaitek delitu bati jazarpen egin behar badio, baimen guztiekin, erabiltzen dira baliabide teknikoak… baina Bideozaintza Legearekin murrizketa ugari daude. Trafikoko kamerak, adibidez, ezin dira edozein modutan erabili, ezin dira etxeak zaintzeko erabili, pertsonen jarduna zaintzeko… Kamerengatik oso kontrolatuta gaudela? Bueno, herritarra orokorrean ez dago kontrolatuta, ezta gutxiago ere. Behintzat, gure aldetik ez.

**Duela urte batzuk zenbait ertzain etxetako kalabozoak lotu ziren tortura kasu batzuekin; halako gaietarako baduzue protokolorik?**

Ertzaintza izan zen Estatuko eta, akaso, Europako lehen polizia kalabozoetan kamerak jartzen. Eta izan gara Europako lehen polizia ISO ziurtagiria eskuratzen atxiloketei dagokienez: kaletik hasi eta askatu arte. Asko mugatzen da, adibidez, atxilo denbora: *in-fraganti* egiten den atxiloketarako legeak markatzen du asko jota 72 orduan egon daitekeela pertsona hori epailearen aurretik pasa barik. Guk zehaztuta dugu gehien egon daitekeen denbora dela – identifikatu bako kasuak dira salbuespen– asko jota 12 orduz. Hori gainditzen bada, arrazoiak azaldu egin behar dira. Eta hori kontrol handiarekin egiten da. Ertzaintza osoan. Atxilotutakoak betetzen duen galdetegi bat ere badugu: galdetzen zaio, adibidez, zelan tratatu dugun, ondo jan duen, hotzik pasatu duen… Eta abokatuendako inkestak ere baditugu: ea informazio nahikoa eman diogun… eta harrigarria irudi lezake, baina gainditu egiten dugu. 1997an hasi ginen honekin guztiarekin eta 2004az geroztik ditugu ISOak. Ikerketa unitateek dituzte, baita ere, ENAC zertifikazioak, bermatzeko, adibidez, laborategi batean egiten den guztia berme jakin batzuekin egiten dela.

**Martxoaren 17an aspaldiko irudi batzuk ikusi genituen Gasteizen: kale istiluak, Ertzaintzarekin enfrentamenduak, zaurituak... Horiek zelan bizi dituzue?**

Nire iritzia emango dizut: poliziak duen zereginetako bat da kaleko normaltasuna eta ordena bermatzea. Badirudi zerbaitegatik Ertzaintzak ez duela zeregin hori bete behar. Baina egiten dugunean egiten dugulako eta ez dugunean egiten ez dugulako egiten, beti gaude norbaiten dianan. Gauzak behar den moduan eta proportzionalki egin behar direla uste dut. Era berean, uste dut kalean biltzeko eskubidea oinarrizkoa dela, Konstituzioak ere hala dio. Beste kontu bat da eskubide hori zelan gauzatzen den. Hala ere, guztien dianan gaudela? Ba, bai. Adibidez, Athletic-Marsella partiduan istilu batzuk izan ziren, eta leku guztietan –sare sozialetan, egunkarietan, sindikatuen ahotan– galdera zen ea non zegoen Ertzaintza. Bestalde, Athletico Madril-PSV partiduaren bueltan, leku guztietan azaldu ziren ganberro haien irudiak txanponak botatzen eskale batzuei… ministroaren arabera, gorroto delitu bat… Entzun diozu norbaiti zerbait esaten poliziaren jarduna zuzena edo okerra izan zen edo poliziaren gaineko zerbait? Edo PSVko batzuek apurketak eragin zituztela eta kaleko ordena nahastu Madrilen? Eta polizia non egon zen? Ez, ezta? Bai, Gasteizen manifestazioa izan zen, baina nor hasi zen? Seguru nago, gu ez ginela izan. Beste leku batzuetan ere izan ziren manifestazioak eta ez zen ezer gertatu… Jomuga askotan gaudela? Bai. Beste batzuei baino gehiago begiratzen digutela? Ba, bai.

**Eta gomazko piloten erabileraren gainean ze iritzi duzu (Iñigo Cabacasen heriotzaren harira)?**

Gomazko piloten jaurtigailuaren edo antzeko materialaren erabilera beti egon da protokolizatuta eta kontrolatuta, eta orain gehiago, bere erabilera aktuazio oso jakinetara mugatuz. Bergaran daramatzadan bi urteotan ez dut gogoan halakorik erabili izana. Material mota hori bakarrik erabili behar da bestelako neurri ez horren gogorrak ez direnean nahikoa izan arazoari irtenbidea aurkitzeko. Edozein kasutan, aktuazio baten indarra erabilita erantzutea beharrezkoa denean, gure premisa da "ez eragitea saihestu nahi dena baino kalte handiagoa", nahiz eta argi egon beti ez dugula asmatzen.

## Ibilbide profesionala

**1984**
Ertzain sartu zen. Arrasaten lan egin zuen lehen urtean.

**1985-1993**
Ondarroa. Agente sartu eta azken bi urteak bertako buru.

**1993-1995**
Gernikako ertzain etxeko nagusi. Eta 1995-1996an Bizkaiko ertzain etxeen jardunaren zaintza.

**1996-2014**
Ertzaintzako Zuzendaritzarako Idazkaritza Teknikoko nagusia.

**2014-2016**
Bergarako ertzain etxeko nagusi, komisario karguarekin.

**KARGUETAN GARAPENA**
1987an inspektore eta 1990a aurretik unitate-buru; 1990ean jarduneko komisario eta 2011tik komisario.

BIHAR, ZAPATUA, OMENALDIA EGINGO DIOTE, ARRASATEN, 1936KO ERTZAÑA-TIK BIZIRIK DAGOEN ERTZAIN OHI BAKARRARI. INFORMAZIOA 12. ORRIAN

# Frankismo garaiko emakumeak, erabat ahaztuta eta baztertuta

- Errepresio faxista bortitza jasan zuten emakumeek: hilketak, bortxaketak, umiliazioak...
- Sei emakume omenduko dituzte, baina bailarako ehunka emakume ordezkatzen dituzte

KOMUNITATEA GOIENA | INTXORTA 1937
JUAN RAMON GARAI | DEBAGOIENA

Faxistak Debagoienean sartu aurretik bizilekuetatik ihesi joan ziren emakumeak ehunka izan ziren. Horietako askok gerraren ondorioak jasan zituzten. Esaterako, batzuk Bizkaian eta beste batzuk Santanderren, alemaniarren eta italiarren bonbardaketetan hil zituzten. Beste asko, berriz, Frantziara, Ingalaterrara, Errusiara, Belgikara, Kataluniara... joan ziren, eta joan zirenetako batzuk ez ziren sekula ere bailarara itzuli. Bueltatu ziren emakumeek, berriz, errepresioaren ondorioak jasan zituzten.

**Errepresioaren aurpegiak**

Errepresio hark aurpegi ugari izan zituen: emakume batzuk fusilatu egin zituzten; beste asko atxilotu eta kartzelatu; eta epaileen aurretik pasarazi zituzten beste asko; ilea erabat moztu zieten beste emakume askori –emakume izaerari kalte eragitearren–; edo errizino olioa edanarazi ondoren, kalean erabiltzen zituzten jendearen bistan. Izan ere, errizino olioak beherakoa eragiten zuen eta faxistek umiliazio publiko hori gura zuten.

Beste emakume askok, berriz, lanpostuak galdu zituzten, *depurazioa*ren ondorioz, adibidez –maisu-maistra izandako asko *depuratu* eta deserriratu egin zituzten; *depurazioak* debekatu egiten zien irakasle lanak egitea.

Bestalde, eurenak ziren dendak eta negozioak kendu egin zizkieten beste emakume askori. Isun galantak ordainarazi zizkieten, edo, kanpotik herrira itzultzean, etxeak hutsik aurkitzeaz gainera, lanerako aukerarik ez zieten ematen eta, gainera, burla egiten zieten, gerran galtzaile izan ziren horiei.

Bereziki mingarria zen, era berean, fusilatuen alargunen egoera: seme-alabak euren kargura eta lanik gabe; izan ere, gorrien alargunak ez zituzten lanean onartzen. Horren adibide da Arrasateko eta Bergarako Union Cerrajeraren zuzendaritzaren jarduna: ehun emakume kaleratu egin zituzten, faxistak sartu zirenean herrietatik ihesi joan zirelako.

**Argazki-erakusketa gaur**

Horiek dira aurten gogora ekarriko direnak Elgetan, besteak beste. Horrekin batera, gaur, barikua, iaz omendutako gudarien eta milizianoen argazki-erakusketa zabalduko da Elgetako kultura etxean, 18:00etan; apirilaren 24ra arte izango da zabalik.

## Omenduko dituzten sei emakume debagoiendarrak

### FELISA GARAI ARANTZETA
ELGETA



Elgetarra da, 92 urte ditu. Elgeta hartu eta gero, 1937ko apirilaren 24an eta 25ean, faxisten aginte karguek baimen osoa eman zioten euren menpeko guda-taldeari nahi zuten guztia egiteko. Hala, pertsona zibilak eta milizianoak hil egin zituzten eta emakumeak eta neskatoak bortxatu egin zituzten. Sartu bezain pronto zazpi edo zortzi pertsona Antzuategi Baztarrekoa baserriko hormetan hil zituzten; horietako bat Jose Vicente Garai Arenatza zen, baserriaren jabea, Felisaren aita, bere anaiaren –11 urtekoa– eta izeba baten aurrean hil zuten.

### TRINI RUIZ DE ALEGRIA BALANTZATEGI
ARRASATE



Arrasatearra da, 92 urte ditu. Gerratik ihesi, Bizkaian, Frantzian eta Katalunian egon zen hiru urtez. Bere anaia bi Aretxabaletan eta Intxortan hil zituzten: nagusiena Pedro Ruiz de Alegria sozialista, eta gazteena, Francisco Ruiz de Alegria, biak ala biak *Dragoiak* batailoiko milizianoak ziren. Hirugarren anaia, berriz, Tomas, preso hartu zuten; eta Tomas Ruiz de Alegria bera eta aita Valentin Union Cerrajeratik bidali egin zituzten. Ondorioz, Arrasateko Etxe Txikietan (fabrikarenak) zuten etxerik gabe gelditu ziren. Eibarrera joan ziren lan egitera.

### ISABEL BERITXINAGA GARITAONAINDIA
ELGETA



Elgetarra zen, Bergaran bizi zen senarrarekin eta seme batekin. Gerra hasieran, 24 urte zituela, miliziano sartu zen eta Elgetako Frontean trintxeretan borrokatzen zirenentzako jatorduak prestatzen ibili zen. 1936ko azaroaren 17an, abiazioko bonbardaketan hil egin zuten. Haren senarra, berriz, Esteban Urizar, preso hartu zuten ezkertiarra zelako. Arrazoi berarengatik Union Cerrajeratik kaleratu egin zuten, eta Eibarrera joan behar izan zuen bizitzera. Bien bitartean, baina, bere seme Patxi Urizar aitona-amonek zaindu behar izan zuten.

### NORBERTA EZPELETA LETURIA
BERGARA



Bergararra zen, San Antonioko auzotarra. Atxilotu egin zuten, eta Ondarretako espetxean sartu. Beste emakume askori moduan, ilea erabat moztu zioten, umiliatzeko emakume izaera. Bere senarra Blas Unamuno UHPko (Unios Hermanos Proletarios) milizianoa zen, ezkertiarra, eta 1937ko apirilaren 24an fusilatu egin zuten. Ez edozein modutan, gainera: zaurituta zeramaten Kanpanzartik Elorriora anbulantzia batean, eta bertan fusilatu zuten. Norbertaren anaia, Alfonso, abertzalea, *Kirikiño*ko gudaria, berriz, Donostian fusilatu zuten.

### EMETERIA ARANBURUZABALA BEITIA
ESKORIATZA



Eskoriatzako Marin auzoan bizi zen. 59 urte zituen gerra hasi zenean. Leintz Gatzagan izan zen olioa erosten, eta, handik bueltan etxera zihoala, bina erreketeren eta guardia zibilen artean atxilotu egin zuten. 1936ko urriaren 15ean Ondarretako espetxera eraman zuten, eta, libre utzi zutela sinestarazi ondoren, fusilatu egin zuten. Bederatzi seme-alaba zituen, eta politikagintzan ez zegoen sartuta, kolore jakinik ez zuen, zentzu horretan. Marin auzoan bizi ziren 125 bizilagunetatik beste bost auzotar ere fusilatu zituzten faxistek.

### EDURNE GALARTZA ZULUETA
OÑATI



Oñatiarra zen, Eusko Abertzale Batzako militantea. Maistra zen Domaika herritxoan (Araba). Gasteizen atxilotu zuten eta Ondarretan eta Asilo San Josen (Donostia) kartzelatu zuten. Irten zenean ez zuen lanik lortu, *depuratua* izan zelako. Hurrengo bost urteetan debekatu egin zioten Euskal Herrian lan egitea, eta Segoviako Fuente del Olmon bizi izan zen zortzi urtez horren ondorioz. Familia abertzalekoa, ahizpa Arantzari ilea erabat moztu zioten; anaia Jose Mari Puerto de Santa Mariako (Cadiz) kartzelan egon zen eta aita Basilio, Batzokiko lehendakari izandakoa, atxilotu egin zuten.

ARGAZKIAK: MAURO SARAVIA

# Hondakinen bilketa sistema berriarekin hasteko gertu

## Eskoriatzan eta Bergaran astelehenean estreinatuko dituzte edukiontziak



Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergarako alkate eta zinegotziak. | A.T.

A.T./L.K. | DEBAGOIENA

Astelehenetik aurrera Bergaran eta Eskoriatzan martxan jarriko da hondakinak batzeko sistema berria. Edukiontziak jartzen dituzten momentutik, horiek erabili beharko dira bi herrietan. Horrela azaldu zuten Bergarako alkate Elena Letek eta Eskoriatzako alkate Joxerra Zubizarretak eguen arratsaldean egindako prentsaurrekoan. Aretxabaletako alkate eta Mankomunitateko presidente Unai Elkorok ere parte hartu zuen ekitaldian, eta esan zuen Aretxabaletan irailean ipiniko dela martxan sistema berbera.

**90 etxebizitza edukiontziko**

Herri bakoitzak bere bilketa puntuak ezarri ditu, eta, horretarako, hainbat gauza hartu dituzte kontuan: erabiltzaile kopurua, distantzia, irisgarritasuna eta erabiltzaileendako segurtasuna, besteak beste.

Bergaran edukiontzien 65 puntu ezarri dira; hirurogeitan bost edukiontziak jarriko dituzte eta beste bost puntuetan organikoaren eta errefusarenak bakarrik jarriko dituzte. Batez beste, 87 etxebizitza izango dira edukiontzi bakoitzeko Bergaran, eta 6.300 txartel pasatxo egin dituzte.

Eskoriatzan, berriz, edukiontzien 21 puntu izango dira guztira; 20 puntutan bost edukiontziak jarriko dira eta bakarrean jarriko dira organikoarena eta errefusarena. Batez beste, 93 etxebizitza izango dira edukiontzi bakoitzeko. 1.700 txartel pasatxo atera dituzte Eskoriatzarako.

Edukiontziak zabaltzeko txartelak banatzen ari dira bi herrietan. Bergaran, eguaztenera bitartean %70 inguru banatuta zeuden, eta Eskoriatzan, %80 daude banatuta. Mankomunitateko presidente Unai Elkorok azpimarratu zuen ezinbestekoa dela txartelak edukitzea: "Datorren astelehenetik, edukiontziak ipintzen direnetik, horiek erabili beharko dira; hortaz, txartela jaso ez dutenak, mesedez, joan daitezela horien bila". Bergarako Udaletxean jaso ahalko dira txartelak, eta Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

**400.000 euroko aurrezpena**

Sistema berriaren kostu ekonomikoari buruz Elena Letek jardun zuen, eta hiru herri horietan ezartzeak Debagoienari ekarriko dion aurrezpena nabarmendu zuen: "Bergaran eta Eskoriatzan bakarrik ezarrita, kudeaketaren kostua %6 jaitsiko da bailaran, Mankomunitatean, 200.000 euro inguru; eta Aretxabaleta batzen denean sistema berrira, eraginkortasun aldetik hobeto egongo gara eta aurrezpena bikoitza izango da: 400.000 eurokoa". Letek azaldu zuen horrenbeste aurreztea lortuko dela "ibilbideak trinkoagoak direlako eta ahalbide pertsonalak eta mekanikoak hobeto aprobetxatzen direlako". Gaineratu zuen atez ateko bilketarekin ez zela aurreztu eta bi urte eta erdian, Bergararen kasuan, "kostua %253 handitu" zela.

Giza baliabideei dagokienez, lanpostu bat galduko dela esan zuen, "baina ez da soilik sistema berriaren eraginez, baizik eta akordiorik ez" delako lortu. Beste langile batzuen ordutegian aldaketak egongo dira eta hori dena Cespa enpresak antolatu eta kudeatuko du.

Joxerra Zubizarretak gaineratu zuen "lan handia" egin ostean "hitza bete" duela udal gobernuak, sistema berria astelehenean martxan jarriko delako.

Alkateek azpimarratu zuten bilketa sistema desberdina izan arren, etxean egin beharreko sailkapena eta banaketa lehengo berbera izango dela.

**Komertzioak eta industria**

Aretxabaletan, bestetik, irailean ezarriko dute sistema berria eta Elkorok gaineratu zuen nahiz eta Bergaran eta Eskoriatzan hemendik aurrera komertzioetan eta industriaguneetan gaur egungo sistemarekin jarraitu, "hobekuntza iraunkorra" egiten dabiltzala. Horren barruan, hurrengo pausoa izango da komertzioetan eta industrialdeetan hondakinak sistema berriarekin nola bildu aztertzea. Aretxabaletan, hiri hondakinetarako sistema berria ezartzen bukatu eta gero hasiko dira horrekin lanean.

Irailean, Aretxabaletako ezarpena egiten denean, "aldaketa sakonagoa" izango den iritzia azaldu zuten udal ordezkari gorenek.

**Galdeketen babesa**

Azaroan herri galdeketak egin zituzten Bergaran eta Eskoriatzan eta urtarrilean Aretxabaletan. Horien emaitza izan zen herritarren gehiengoak edukiontzien sistemaren alde egin zuela.

Joxerra Zubizarretak galdeketa horiek gogora ekarri zituen, esateko honako aldaketa "legitimitate eta babes osoz" egiten dabiltzala, "herriak eskatu duelako, ez aurrekoan bezala, inposatuta". Galdeketetan izan zen parte-hartzea "garrantzitsua" izan zela gogorarazi eta "pozik" daudela esan zuten alkateek.

**DATUA**

**%80**

TXARTEL

Edukiontziak irekitzeko txartelen %80 banatu dituzte dagoeneko Eskoriatzan; Bergaran, %70 inguru.

**ESANAK**

**"Bergaran eta Eskoriatzan ezarrita, kostua %6 txikituko da bailaran"**

ELENA LETE
BERGARAKO ALKATEA

**"Legitimitate osoa du aldaketak, herriak eskatu duelako"**

JOXERRA ZUBIZARRETA
ESKORIATZAKO ALKATEA



# MU, ikerkuntzan munduko unibertsitate eraginkorrena

## Europako Batzordearen U-Multirank sailkapenak 'A' kalifikazioa eman dio

**LEIRE KORTABARRIA** | OÑATI

Mondragon Unibertsitatea ikerkuntzaren alorrean mundu mailako eragin handiena duten Hego Euskal Herriko eta Espainiako hiri-unibertsitateetako bat da, Nebrijako Unibertsitatearekin eta Pompeu Fabra Unibertsitatearekin batera, U-Multirank sailkapenaren arabera. Erakunde hori Europako Batzordeak finantzatua da eta sailkapena egin du 3. urtez. Bertan, MUk *A* kalifikazioa du, guztietan altuena.

Horrela, Espainiako lehenengoen artean dago mundu mailan, ezagutza-transferentziaren kategorian. Hain zuzen ere, unibertsitateek enpresekin elkarlanean egindako argitalpenak eta ikerlanak neurtzen dira kategoria horretan. Sailkapen horrek aintzat hartu du MUk enpresekin elkarlanean jardutea, ikerketa interesgarriak eta gizartean aplika daitezkeenak egiteko.

**Leinn gradua, arrakastatsu**

Mondragon Unibertsitateak laudorioak jaso izan ditu baita bere izaera berritzailearengatik ere, eta horren eredu da Enpresagintza fakultatean ematen den Leinn (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) gradua. Finlandiatik arrakastaz inportatutako *eginez ikasteko* formula ezartzen jarraitzen dute ikasleek. Aurten, gradu horretako 31 ikasleetatik erdiek, 16k, Meikinn izeneko irabazi asmorik gabeko elkartea sortu dute eta hainbat proiektu garatu behar dituzte, finantzaketa eurek bilatuz. Proiektu baten eskutik, 14 eta 17 urte arteko gazte abenturazaleek Interrailean udalekua egiteko aukera dute. Meikinn Europe izeneko proiektua da, eta bertan, balioak, hizkuntzak eta kultura landu nahi dituzte. Izenematea zabalik dago *www.meikinneurope.meikinn.com* webgunean.

**Europan barrena**

Meikinn-eko Nora Kortaberriak ematen du azalpen gehiago: "Uztailaren 10etik 23ra bitartean izango da. Lehenengo bi egunak Euskal Herriko aterpetxe baten emango ditugu, taldeko kideek elkar ezagutu dezaten. Behin euren artean talde batzuk eginda, hasiko dira jinkana erraldoi batekin, Interrailean, eta ibilbidea honako hau izango da: Estrasburgo, Brusela, Amsterdam, Berlin, Praga eta itzulera".

Horrez gain, beste proiektu batzuk aurrera eroaten dabiltza: Madness izeneko jertse bilduma sortu dute, Finlandiako ikasle batzuekin batera CO2 saltzeko proiektu bat ere badaukate…



Leinn graduko Meikinn elkarteko ikasleak. | MEIKINN

# AGI diru laguntza kendu egingo du Foru Aldundiak 2018rako

**L.K.** | DEBAGOIENA

DSBL (AGI) diru laguntzak erabat kenduko ditu Foru Aldundiak 2018ko abendurako, "txertaketara laguntzen ez" dutela iruditurta. Gizarte Politikako diputatu Maite Peñak onartu diren aldaketen berri eman zuen astelehenean, prentsaurrekoan.

2016ko ekainaren 30era arte bere horretan jarraituko du AGIk; onuradun direnek laguntza jasotzen jarraituko dute, eta kargupean umeak dituzten familiek 2015eko abenduaren 31n Gipuzkoan erroldatuta bazeuden, urte bukaera arteko epea izango dute laguntza eskatzeko. Baina eskaera berri gehiago ez dira onartuko uztailaren 1etik aurrera.

Diru laguntza hori kentzeko arrazoi nagusia da, Peñaren esanetan, ez duela gizarteratzen laguntzen.

Gaur egun, 1.400 bizikidetza-unitatek jasotzen dute AGI; onuradunak dira, batez ere, 25 eta 35 urte arteko gizonezkoak. Onuradunen %44,8 Afrikakoak dira; %37,6, Asiakoak; Ameriketako onuradunak %8,6 dira, eta Europakoak, %9,5.

# Bi gurpilen gainean, suhiltzaileen lege proiektu berriaren aurka egiteko

## "Pribatizaziorako bidea" ireki dezaketen neurrien kontra bizikleta martxa egiten dabiltza

**MAITE TXINTXURRETA** | DEBAGOIENA

Euskal Autonomia Erkidegoko suhiltzaileak –tartean, Oñatiko Zubillaga auzoko parkean lanean dihardutenak– bizikleta martxa egiten ari dira aste honetan zehar, Erkidegoko Legebiltzarrera iritsi den suteen prebentziorako eta salbamendurako lege proiektu berria bertan behera uzteko eskatzeko helburuarekin.

Martitzenean hasita, herri desberdinetatik pasa dira, etapaka, eta atzo arratsaldean Arrasaten izan ziren. Eibartik atera eta Mondragoerainoko bidea bizikletan egin ostean, Seber Altube plazan izan ziren, aldarrikapenak plazaratzeko elkarretaratzea egin eta, bide batez, umeendako jolasak eta ofizioa aurkezteko jarduerak egiten.

**Pribatizaziorako bidea**

"Onartu nahi duten lege proiektu honek pribatizazioari bidea ematen dio, eta, horregatik, atzera botatzea gura dugu", azaldu du Zubillagako parkean suhiltzaile den Ramon Iturricastillok: "Estatuko beste leku batzuetan bide horretatik jo dute, eta batzuetan dagoeneko zerbitzuak pribatizatuta daude".

Iturricastillok uste du balizko pribatizazio batek ez lukeela "ezer onik" ekarriko. Gaineratu du langileendako "baldintza okerragoak" ekarriko lituzkeela, eta, gainera, zerbitzuaren kalitatea ere kaltetuko lukeela: "pribatizazioak esan nahi du ahalik eta diru gehien aurreztea zerbitzuaren kalitatearen kontura", argitu du suhiltzaileak.

Horren harira, dio eurek eskatzen dutena dela zerbitzu "publikoa, profesionala eta 24 ordukoa". Izan ere, aipatu du Arabako eskualde batzuetan gauez itxi egiten direla parkeak, eta horrek azkartasunean eta eraginkortasunean gabeziak dakartzala.

Bizikleta martxa honetaz gain, urtean zehar hainbat ekimen burutu dituzte suhiltzaileek lege proiektuaren aurka.

**Gaur Gasteizen**

Aldarrikapen horiek direla eta, bizikleta martxa egin dute asteon, eta hiruna etapa osatu dituzte Gipuzkoako lurraldean, batetik, eta Bizkaian, bestetik.

Atzo, berriz, Arrasaten adar biak elkartu ziren, eta Seber Altube plazan bat egiten zuten Zornotza aldetik eta Eibartik zetozen suhiltzaile taldeek. Han, umeei bideratutako ekintzak egin zituzten: puzgarriak, argazkiak ateratzeko toki bat, ur jolasak, kamioia... Iturricastillok dio martxa igarotzen den herrietan jendearen partetik interesa eta harrera ona izaten ari direla. "Umeei ere atentzio handia ematen diete suhiltzaileek, jolasek...".

Gaur, berriz, egubakoitza, bizikleta martxaren azken etapa burutuko dute denek batera, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako suhiltzaileek, Aguraingo suhiltzaile parketik irten eta Gasteizko parkeraino iritsiko dena. Ondoren, 12:00 aldera, bertatik oinez manifestaldia egingo dute Eusko Legebiltzarreraino. Izan ere, gaia gaur jorratzekoa zen, nahiz eta, azkenean, atzeratu egin den.





Ertzainak istripuaren lekuan azterketak egiten. | ENEKO AZURMENDI

# Txirrindulariaren harrapaketa ikertzen dabil Ertzaintza

Oñatiko 35 urteko gizonezko bat harrapatu zuen autobus batek martitzenean

**MAITE TXINTXURRETA** | DEBAGOIENA

Martitzenean, 17:00 aldean istripua gertatu zen Elorregiko biribilgunean bertan, Oñatirako irteera alboan, eskumako erreian.

Han, Oñatitik etorrita Oñatirantz bueltan zihoan lineako autobus batek Arrasatetik Oñatira zihoan txirrindulari bat harrapatu zuen. Ziklista ibilgailuaren azpian geratu zen. Berehala bertaratu ziren suhiltzaileak eta anbulantzia, baita Ertzaintza ere. Lekuan bertan artatu zuten zauritua, 35 urteko M.G. oñatiarra, Herrizaingo Sailak azaldu duenez.

## Gasteizko ospitalera

Unean konortea erdi galdua zuen txirrindulariak, eta, kolpe handia hartuta, odoletan zegoen. Larrialdi zerbitzuek Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten. Hasieran birika zulatuta zeukala uste zuten larrialdietako langileek, baina Gasteizko Santiago ospitaletik eta Herrizaingo Sailak igorritako ohar baten bidez adierazi dute kolpe ugari eta esku batean zauria duela. Eguazten goizerako zaurituak hobera egin zuen eta larrialdietako solairutik gelara eroanda zeukaten, eta bere pronostikoa erreserbatua da, momentuz.

## Auto ilarak

Oñatirantz, Bergararantz, autobidera edo Udana eta Maltzaga alderantz doazen auto ugari ibiltzen da Elorregiko biribilgunean; hori dela eta, Arrasatetik Elorregiko biribilguneranzko norabidean auto ilara handiak sortu ziren. Hain zuzen, Arrasateko irteeratik bertatik Elorregirainoko trafikoa geldirik egon zen minutu askoan. Edozelan ere, gutxinaka, ezkerreko erreitik autoak pasarazi zituzten trafiko saileko ertzainek. Izan ere, gizonezko zauritua anbulantzian eraman ostean, ertzainek istripuaren gunea aztertzeari ekin zioten, eta neurketak amaitu arte ezin izan zuten eskumako erreian geldirik zegoen autobusa mugitzeko baimenik eman, 18:30ak arte.

Bestalde, momentuan egin zioten alkoholemia froga autobus gidariari eta negatibo eman zuen; hala ere, eguazten arratsaldean deklaratu zuen Bergarako ertzain etxean.

Ertzaintzak oraingoz duen hipotesia da ziklistak ez ziola autobusari pasatzen utzi. Autobusak zeraman kamera –autobusetako batzuek izaten dituzte– lagungarri izango da ikerketan.

# Akordiorik gabe jarraitzen dute Aita Menni ospitalean

**ENEKO AZURMENDI** | ARRASATE

Badira urte batzuk Arrasateko Aita Menni ospitaleko langileak eta zuzendaritzak hitzarmena lortzeko negoziaketak hasi zituztela, eta oraindik ez dira akordio batera heldu.

Urtarrilean beste negoziazio bat hasi zuten eta bertan murgilduta daude oraindik, ez atzera eta ez aurrera, ELAtik adierazi dutenez.

Langile batzordeak dio zuzendaritzak ez duela benetako borondaterik erakusten adostasuna bilatzeko, eta ez dutela ulertzen jarrera hori. "Enpresa egoera larrian zegoela esan ziguten eta hori baliatu zuten guri soldatak jaisteko. Hala ere, denborarekin konturatu ginen egoera guztiz kontrakoa zela eta enpresa hazten ari zela", adierazi du Txema Kortabarriak, langileen batzordeko kideak. Enpresako zuzendaritzak, berriz, oraingoz ez du adierazpenik egin.

## Langileen mobilizazioak

2015eko azaroan hasita, langileek hainbat mobilizazio egin dituzte, bizi duten egoera salatzeko eta negoziaketa duin bat eskatzeko. "2014tik soldatak izoztuta ditugu eta ez dut uste eskatzen ari garena maximalista denik", nabarmendu du Kortabarriak.

Mobilizazioen artean, hainbat auto-karabana egin dituzte langileek eta Euskal Herriko Itzulia ere baliatu zuten errepide bazterrean pankartekin protestak egiteko. Enpresaren jarrera aldaketa eskatzen dute.




Auto-karabanan protesta egiten, Aita Menni inguruan. | TXEMA KORTABARRIA

# Preso Politikoen Egunean Bilbon izango den manifestaziorako busak antolatu dituzte

'Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera' izango da leloa

**M.T.** | DEBAGOIENA

Domeka honetarako, apirilak 17, *Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera* lelopean manifestazio nazionala antolatu dute Bilbon. Hain zuzen ere, apirilaren 17a Preso Politikoen Nazioarteko Eguna da mundu osoan, eta, honen harira, preso eta iheslari euskaldunen etxeratzea eskatu nahi dute.

Manifestazioa eguerdiko hamabietan abiatuko da Bizkaiko hiriburuko La Casilla plazatik.

Hori dela eta, eskualdeko hainbat herritan autobusak antolatu dituzte jendea manifestaziora joan dadin. Gaur arte, egubakoitza, izango da txartelak erosi edo zerrendetan izena emateko azken eguna, ohiko puntuetan (Arrasate: Irati; Bergara: Arrano, Pol-Pol; Oñati: Arrano; Aretxabaleta: Urbaltz; Antzuola: Aitz-Garbi).

Domekan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean aterako dira autobusak herrietako geltokietatik Bilborantz.

## Eskualdeko preso ohien deia

Joan den astean, Debagoieneko hirurogei preso eta iheslari ohik agerraldia egin zuten, herritarrei asteburu honetako manifestaziorako dei egiteko. Bertan adierazi zuten euskal gatazkaren funtsezko arrazoiak hor dirauela oraindik, estatu espainiarrak eta frantziarrak Euskal Herriari bere geroa eraikitzeko aukera bahitu diotela eta.

Bestalde, nabarmendu zuten borroka soilik molde politiko eta demokratikoetatik jorratzeko ezker abertzale osoaren hautua fermuki babesten dutela. Hala, Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin bat egiten dutela eta presoen etxeratzea lortzeko lege-baliabideak erabiltzea babesten dutela ere gehitu zuten.

# Aldundiak 3.300.000 euro bideratuko ditu Gipuzkoako nekazari sektorera

Landa garapenaren arlora bideratuko da kopuru hori, Feader funtsaren laguntzarekin

**ENEKO AZURMENDI** | DEBAGOIENA

Gipuzkoako nekazaritza ustiapenen aldeko landa garapeneko urteko laguntzak onartu ditu Diputatuen Kontseiluak, eta deialdiak irekitzea erabaki du.

Lehen sektorera bideratutako bi deialdi ireki ditu: alde batetik, mendi zonetan eta muga natural esanguratsuak dituzten zonetan dauden nekazaritza ustiapenetako titularrei zuzendutakoa; eta bestetik, nekazaritza ingurumenaren eta klimaren arloko eta nekazaritza ekologikorako laguntza.

Bien artean 3.300.000 euro bideratuko dira, guztira, Imanol Lasa foru bozeramaileak aditzera eman duenez.

Laguntza hauen helburua lehen sektorea indartzea da. Izan ere, aldundiak ezinbestekotzat jotzen du sektore honek gizarteari egiten dion ekarpena. Horregatik, baserritarren eta, oro har, landa ingurunean egiten den jarduera ekonomikoa balioan jarri nahi du Foru Aldundiak.

Laguntza hauek EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan jasota daude eta Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsetik (Feader) %75ean finantza ditzake Europako Batasunak.

## ZABALIK



**IGOR ARIZMENDIARRIETA**
goiena.eus/komunitatea/

# 'Ya asi nahiz'

*Ya asi nahiz* esaten zuen e-mail bat jaso nuen pasa den astean nire postan. Pertsona batek jarduera bat hasi zuenaren berri eman nahi zidan. Ez zuen hitz bat gehiago ez gutxiago idatzi. Ez agurrik, ez ezer ez. Formen atal hori alde batera utzita, kezkatzekoena hortografia (nahita dago ipinita) zen. Hura ikusita, ez nekien zer egin, negar, berari esan egin zituen akatsak, haserretu… Bueno, ba, esan nuen, hemen, GOIENAn, konpartituko dut nire inpotentzia, haserrea edo dena delakoa, ni neu lasaitzeko, behintzat. Eta berak irakurtzen badu, ba, primeran. Hiru hitz, hiru akats, hau marka. Ez dira hitz arrotzak, gainera; eguneroko hitzak ditugu.

> **Argi dago: berdin da norekin edo non, baina egin ezazu euskaraz**

Mugikorretan erabiltzen den lengoaiarena, telebistarena, gurasoena, gizartearena, eskolaren eragina ote? Auskalo. Baina susmoa daukat nirea ez dela kasu isolatu bat izango.

Dena dela ere, euskararen erabilera beheraka doa; hori diote Hezkuntza Saileko arduradunek emandako azken ikerketen emaitzek. Ezagutzak goraka egin duen arren, erabilpenak ez du ibilbide bera egin. Nire inguruan eta, zer esanik ez, herri eta hiri handiagoetan ikusten da: gazteen artean asko entzuten eta idazten da gazteleraz –teknologia berrietan–. Ez dut esaten gaztelera ikasi behar ez denik, baina dena neurrian.

Bestalde, Tarragona aldean oporretan egoteko aukera izan dut eta hotelean euskara barra-barra entzuten zen. Badirudi gure ingurunetik ateratzen garenean, bat-batean sartzen zaigula euskalduntasuna adierazteko sen hori.

Asteburu honetan ere, iparraldeko kanpin batean egoteko aukera izan dut eta ontziak garbitzerakoan zein beste instalazioetan jendearekin gurutzatzean agur eta elkarrizketa ia guztiak euskaraz egiten genituen. Euskaraz erdipurdi zekitenak ere gurekin euskaraz egiten saiatzen ziren.

Argi dago: berdin da norekin edo non, baina egin ezazu.

## USTEAK USTE

**AMAIA TXINTXURRETA** | atxintxurreta@goiena.eus

# Eskerrik asko kantarizaleoi!

Bukatu ditugu Kantari karaoke ikuskizuneko grabazioak. Izugarria izan da aurtengoa, marka guztiak hautsi ditugu eta 1.000 gaztetxo debagoiendarrek euren kanturako eta dantzarako abileziak erakutsi dizkigute herriz herri. Eskerrik asko, bihotzez, banan-banan, modu batera edo bestera Kantariren parte izan zareten guztioi. Ilusioa, poza eta lanean jarraitzeko indarra eman diguzue, beste behin. Jarraitu euskal abestiak entzuten eta abesten, eta, noski, horiekin gorputzak mugitzen. Segi dezala Kantari festak bakoitzaren etxean, Goiena telebista piztuta, gure gaztetxo kantariekin batera, ondo pasatuz eta bazterrak alaituz! Aurrera!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Ez da berri txarra baina…

**Joserra Aizpurua**
http://goo.gl/ppOvyn

Azken egun hauetan Iberdrolako Sanchez Galán jaunak Garoñaren itxierari buruz iradokitakoa berri ona da.

Erabakiaren arrazoiak ekonomikoak omen dira eta hala izango da, gure gizartean guztia diru bihurtzen baita; ofizialki erabaki irmorik egon ez arren urrats garrantzitsua izan da Iberdrolaren posizionamendu bidea.

Endesa, bitartean, isilik.

Iberdrola eta Endesa dira erdibana zentralaren jabe eta itxiera bezalako gai garrantzitsuenean biak batera ez agertzeak harritu nau.

Petrolioa hain merke dagoen honetan zentrala bideragarri ez izatea uler dezaket, baina ez ordea hori esateko orain arte egindako eszenifikazioa.

Endesarentzat zentrala bideragarria al da?

Edo bere kezka itxiera bera da; ez al da garestiagoa izango zentrala ixten hastea piztuta mantentzea baino?

Ba al dakigu zentrala ixten?

Zentrala ixteko biderik merkeena ahalik eta gehien desmuntatzea da eta geratzen dena, gunea alegia, betirako lurperatzea.

Baina hori onartuko al genuke?

Ez dut uste eta beraz ixtea estaltzea ez den bideak gastu, ez inbertsio, erraldoietara eraman ditzake enpresa jabeak.

Hipotesiak hipotesi utz dezagun oraingoz gaia hemen eta poztu gaitezen berriarekin.

# Ahanztura

**Angel Erro**
http://goo.gl/vZTstL

Euskal kulturako sortzaile erreferentzial batek idatzi dit bere izena hemen inolaz ere ez ateratzeko, hauek Panamako paperak balira baino beldurrago, bestela, papereztatuko nauela (sic; bai, horrela edo are okerrago mintzo dira euskal kulturako sortzaile erreferentzialak).

Nik ez nuen asmo handirik, egia esan; izan ere, nahikoa ahantzita neukan, baina orain utzi nau ez dakidala zer bestez jardun.

Bitxia da euskal sortzaile batek ahaztu dezaten eta hartaz ardura ez daitezen eskatzea, munduak ahaztu dezan eta hartaz ardura ez dadin bide ezin egokiagoan baitago berez, abiadura ederrean, gainera.

Baina badira irrelebantziaz inoiz asetzen ez direnak, antza.

Ni momentuz askietsita nago nire ahanztura kuota arrazoizkoarekin (errezitaldi guaietan, manifestuen sinatzaileen artean, nire belaunaldikoen antologietan baino ez naute ahanzten).

Baina batek daki euskal idazle moduan zor zaidan gutxiespen eta bazterketa guzti-guztia (kanpora eta baita barne begirakoa ere) kolpe batean jasotzeko gutizia noiz sartuko zaidan, oinordetzan inori utzi gabe, bizialdian disfrutatu ahal izateko moduko eskubidea balitz bezala, edo neke eskerga eskertu gabe ozpintzen ikustearen tortura eteteko bide bakarra.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## Erramu Z(tx)apatua

**Mikel Azkarateaskasua**
(Txapa Irratiko kolektiboaren izenean)
Bergara

8 urtez lagun koadrila batek antolatu eta herriko eragile desberdinekin aurrera eramandako herri bazkariak goitik behera aldatu du Bergarako Erramu Zapatu eguna. Feria eguna hogeita lau orduko jaia da orain eta herri-bazkaria antolatzeko modua eredu parte-hartzaile bat.

Ziklo berrian, Txapa Irratikook hartu dugu erreleboa bazkariaren antolaketan eta gu ere ez gara bakarrik ibili. Bidelagun izan ditugun Bergarako Udalari eta Xaxau konpartsari esker mila. Ezin ahaztu eguraldiak gelditu ez zituen trikitilari eta txaranga koadrila nekaezinak, zein burruntzi sukaldariak. Eskerrik asko ere bertako merkatariei: Konde eta Mizpildi okindegiak; Bixain harategia; Mertxe urdaitegia; Larrañaga, Raizabal eta Mujika gozotegiak; Miner ardoak; LarreGain sagardotegia; frontoiko taberna eta Harreman denda.

Estimatua etorritako guztiek sortutako giro itzela, sarrerarik gabe geratu zirenen ulermena eta jasotzen lagundu zutenen elkartasuna. Bukatzeko, bereziki eskertu nahi diegu trantsizioan emandako sostengua aurreko antolatzaile horiei eta zerbitzatzen lagundu gintuzten txapalagun guztiei. Hurrengo urtera arte *txapairratia.org*-en eta FMko 97.20an entzungo dugu elkar. Biba zuek eta biba Erramu Z(tx)apatua!

## Aurrezki erakundeek lapurtu egiten diete herritarrei

**Jesus Alvaro Esparza Aierdi**
Bergara

Draghi jaunak zuzentzen duen Europako Banku Zentralak interes-tipoa %0ra jaitsi die bankuei martxo hasieran. Onartezina eta lotsagarria dena da aurrezki-erakunde horietan dirua sartzen dugun herritarrei %0,05 eta %0,3 arteko urteko interesa eskaintzen digutela; mailegu pertsonalei dagokienez, oso garesti segitzen dute eta hainbat baldintza dituzte –nominak, ordaintze-babes aseguruak, beste produktu batzuk kontratatzea–, eta %9 eta %10 artean eskaintzen dizkigute. Lapurreta hutsa da.

Galdera: zer egin beharko genuke? Diru guztia atera erakunde horietatik edo dagokion erakunde publikoan salaketa jarri edo protesta egin, herritarrek bidegabekeria hau jasan beharrik ez izateko. Krisialdia bizi izaten ari gara, baina, egoera hori aprobetxatzea gure patrikak are eta gehiago astintzeko, onartezina eta jasanezina da; izan ere, betiko moduan, herritar arruntok laguntzen diegu aurrezki-erakundeei publikoki –gure zergekin– edo pribatuki –gure aurrezkiekin–, eta interes baxuagoak eskaini beharrean egoera larri honetan aurrera egin ahal izateko, masakratu egiten gaituzte eta irabazi edo etekin handiagoak ateratzen dituzte urte bukaerako emaitza ekonomikoetan.

## Venezuela: PPk, PSOEk eta Ciudadanosek laguntzen duten kriminalentzako amnistia legea?

**Salvador Gonzalez**
(Venezuela Aurrera elkartearen izenean)
Bergara

Estatu espainiarra, Alderdi Popularrak, PSOEk eta Ciudadanosek gogotsu bermatu eta txalotu duten *Proyecto de Ley de Amnistía y Reconciliación Nacional* izena duen lege proiektua onartu du Venezuelako Asanblada Nazionaleko gehiengo opositoreak. Sostengu honen adibide garbia, Mariano Rajoy berak *El País*-en lege horren alde idatzi duen artikulua.

Baina zer bultzatzen ari dira *demokrata* hauek Venezuelan? Amnistia lege honek ezarritako ordena konstituzionala edo gobernua aldatzeko manifestazioetan edo protestetan parte hartzeagatik egindako delituak amnistiatuko ditu, zehazki 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera eta legea onartu arte, hau da, Hugo Chavezen eta Nicolas Maduroren legegintzaldietan bakarrik egindako delituak.

Zer delitu barkatu ditu lege honek? Adibidez, "garraio zerbitzuetan, sistema informatikoetan edota edozein zerbitzu publikotan eragindako hondamenak edo suntsipena", "lehergailuen edo bonba su-eragileen fabrikazioa edo inportazioa", "delituak egiteko adingabekoen erabilpena", "suteak eragitea", "legeen desobedientzia eta gorrotoa sustatzea", "agintaritzaren aurka egitea" eta "droga-trafiko txikia" eta "iruzurra, maula eta lukurreria etxebizitza eraikuntzetan" barkatuko ditu lege honek.

Barkamena lortzeko baldintza bakarra "Estatuko botere betearazleak egindako politiken aurkako protesta, manifestazioa edo bileren bidez" bultzatutako delituak izatea da.

Lege honen bidez argi onartzen du oposizioak Nicolas Maduroren gobernua bere postutik kentzeko indarkeria erabili duela, eta, honetaz gain, kartzelatik atera nahi dituen pertsonen zerrenda zehatza osatzen du. Hauen artean ezagunena Leopoldo Lopez da, duela bi urte 43 hildako eragin zituen indarkeria olatuaren erantzule zuzena.

Venezuela Aurrera iraultza bolivartarraren aldeko euskal elkartasun plataformatik, Estatuko zenbait alderdi politikok zein komunikabidek bultzatzen duten Inpunitate Lege honen nazioarteko salaketa egitera deitzen dugu. Badakigu Venezuelak pairatzen duen gerra ekonomiko, mediatiko eta politikoa sistema neoliberalaren berrezarkuntza lortzeko beste ahalegin bat dela, eta Venezuela, azken hilabeteetan Brasil, zein Latinoamerikako beste prozesu aurrerakoiak erasotzea duela helburu.

Venezuela Aurrerak apirilaren 19an Venezuelako iraultza bolivartarrarekin nazioarteko elkartasun jardunaldian parte hartzera deitzen du euskal herritar oro.

## Nicholson, Maia eta Zarraoa

**Feli Zumalde eta Jotxo Larrañaga**
(Erain Debagoiena / Oñatiko taldeko kideak)
Oñati

Aste honetan hitzaldi potoloak egon dira Oñatin, Kultur Etxean. Elikadura burujabetzaz jardun zuen Paul Nicholson bizkaitar baserritarrak astearten, eta erabakitzeko eskubidearen gainean beste bik, Jon Maia zumaiarrak eta Iñaki Zarraoa getxotarrak, asteazkenean. Ortuzabal taldeak antolatuta lehendabizikoa eta Erain Debagoiena / Oñatiko taldeak bestea.

Jende ugari bietan. Zerbaiten seinale. Sistema ekonomikoak eta politikoak, gurean ere, goia jo du eta jendeak bide berriak nahi ditu. Bide parte-hartzaileak eta hurbilekoak, geure esku daudenak. Alde batetik, nekazaritza lokala eskubide politikoa da, eta, gaur egun, baserriaren gainbeheraren irteera. Gazteen esku dagoena.

Beste aldetik, erabakitzeko eskubidea praktikan jartzen hastea da geure etorkizuna. Gai politikoak, ekonomikoak, sozialak eta laboralak gero eta urrutiago erabakitzen dira, gutxi batzuen mesedetan. Finantza enpresak lurraren jabe egiten ari dira, di-da batean dena da saldu eta erosi, baina oraindik ez dira gizon-emakumeon jabe. Horixe da gure indarra. Herritarron indarra. Maia, Nicholson eta Zarraoa bat datoz horretan.

Ekaineko galdeketaren aurrean, garrantzitsua ez da irabaztea edo galtzea, independentziaren alde egotea edo Madrilekin aldebikotasuna nahi dugun azaltzea. Erabakia nork hartzen duen. Hori da benetan garrantzitsua. Geureak diren gauzetan geuk erabakiko dugula esatea, nahi dugula erabaki, eta ahal dugu egin, gainera. Ekainean Debagoienean horretara goaz elkarrekin.

Jon Maiak zioen norberaren trintxera mentalak hautsi eta drenaje soziala egin behar dugula gehiengo soziala erabakitzeko eskubidearen oinarrizko eskubide demokratikoaren alde jartzeko. Horretarako tresna betearenganako enpatia dela esan zuen. Iñaki Zarraoak azpimarratu zuen eraginkorrak izateko gehiengoa lortu behar dugula.

Bi kultura politiko ados azaldu dira erabakitzeko eskubidearen alde Oñatin. Badira kultura politiko gehiago, kolektibo sozial gehiago adostu beharrekoak. Ahal dugu eta egingo dugu.

## Maitasun osoz, agur eta ohore, Antton!

**Kirmen Gaztelu**
(Arrasateko Askapenaren izenean)
Arrasate

Bizi oso bat emana munduko herri borrokalarien alboan. Euskal Herriaren aldeko borrokan lehen lerroan izan zaitugu lagun. Geroz eta helduago, geroz eta gogorrago eutsi diozu borrokaren gorriari. Borroka maitatuz eta maitasunez borrokatuz, munduko zapalduenekin batera amorerik eman ez duzun iraultzaile nekaezina izan zaitugu.

Askapenako kideok ere zure ondoan borrokatzeko parada ederra izan dugu. Brigaden formazio saioetan, hitzaldiak emanez, Askapenaren ekimenetan parte hartze zuzena izan duzu beti. Bolivia, Venezuela, Palestina, Txetxenia, Kurdistan... etxekoak zenituen. Beraiekin batera sufritzen zenuen, gurekin batera borrokatu.

Agur eta ohore, Antton! Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.

## Kirolen jasangarritasuna

**Iñigo Ramirez de Okariz Telleria**
Antzuola

Aurreko asteko *Puntua* aldizkarian azaltzen zen *Mendian zehar korrika* izeneko artikulua izan da pizgarria hausnarketa hau irakurleekin partekatzeko. Esan behar dut ez dela berria, aspaldidanik bueltan ari delako berau nire buruan. Izan ere, era askotako mendi lasterketak ari dira han eta hemen ugaritzen azken urteetan, eta euretako asko natura ondare ikuspuntutik oso toki sentikorrak eta, sarri, oso hauskorretan egiten direnak. Mendian ibiltzea gustatzen zait, eta, egia esanda, igandean Udalatx proban aintxintxikalariek zapaldutako inguruak ezagutzen ditut, batzuk, nire ustez, oso hauskorrak direnak, eta egiten ari diren lasterketek ez dietenak batere onik egiten. Ezagutzen ditut, aldi berean, Anboto, Txindoki, Aizkorriko bertikalak egiten diren inguruak ere, eta, egia esanda, ez zait batere gustatu txapelketek bertan lagatako *aztarna,* besteak beste, malda handienetan eta hauskorrenetan eragindako erosioa, eta gelditu ezean ugaritzen joango direnak. Badakit euskal mendi federazioak ere esku artean duela gai hau eta sentsibilitatea adierazi duela.

Ni neu antzuolarra izanik, Antzuolan ere egiten da mendi lasterketa bat, eta momentuz bere eragina alde batera lagata, badugu udalerrian beste arazo larri bat gero eta jasanezinagoa dena; izan ere, izugarria da mendiko motoek herriko mendietan (Arrola eta Irimo), zelaietan, pistetan eta mendi magaletan sortzen dituzten triskantzak, eta jasanezina bihurtu duena, aurretik eta behingoan arautzen ez bada, aktibitate (edo kirol) hau.

Honekin ez dut inoren zaletasuna izorratu edo mugatu nahi, ezta debekatzea aldarrikatu ere; bai, ordea, denon artean kalte ondorioak baloratzea. Burura datorkit han eta hemen ibiltzen naizenean Mikel Laboaren *Maite ditut maite geure bazterrak* izeneko kantua, baina *lanbroak ezkutatzen dizkidanak* ez zaizkit asko gustatzen. Eskerrik asko.

# HERRIAK

# Nafarroa abiapuntu hartuta, iragana eta oraina ulertzera

## Zuztarrak Errotuz-ek seigarren aldiz antolatu du Udaberriko Hitzaldien Zikloa; hiru saio egingo dira Kulturaten, goi mailako adituen ahotik

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

2010ean lehen aldiz antolatu zenetik Zuztarrak Errotuz taldeak urtero antolatu du Udaberriko Hitzaldi Zikloa, 2011n izan ezik. Aurtengoa seigarren aldia izango da eta, aurreko ziklo batzuetan moduan, aurten ere Nafarroa izango da abiapuntua. Hiru saio izango ditu aurtengo zikloak: apirilaren 20an, Amaiurko Gazteluko azken aurkikuntzak izango ditu hizpide Juantxo Agirrek; apirilaren 27an, Nafarroako aldaketaren gakoez arituko da Floren Aoiz eta maiatzaren 3an edo 4an –Kulturate libre noiz egongo den zehazteke dagoelako– Nafarroako Erresumako txanponen historia izango du berbagai Mikel Legorburuk. Hitzaldi guztiak Kulturateko areto nagusian izango dira, 19:00etan hasita.

**Txanponak, "agiri historiko"**

Hasiera baten Legorburuk ireki behar zuen hitzaldi zikloa baina hainbat arrazoi direla medio zikloa itxiko du azkenean. Haren arabera, "oso korapilatsua" izan da Euskal Herriaren historia: "Herri zatitua izanik eta agintaritzen menpeko ekonomiaren dokumentu ofizialak txanponak direnez, horien bitartez aztertuko dugu zein izan den gure herriaren historia". Legorburu ez da ekonomiaz arituko, historiaz baizik. Modu dibulgatiboan mintzatuko da, edonork ulertzeko moduan. Izan ere, uste du euskaldunok ez garela gure historiaren jakitun: "Ez dugu gure atzean duguna ezagutzen, ez dakigu gure historia nolakoa izan den. Pasarte batzuetan gu izan gara agintari eta beste batzuetan agindu egin gaituzte... Bada, txanponen bidez historia esplikatu daiteke askoz egokiago orain arte erakutsi digutena baino". Legorburuk Kristo aurreko Baskoien garaian egindako txanponetatik hasi eta 36ko gerraren garaian Jose Antonio Agirreren agindupean egindako pezeta bateko eta biko txanponetan amaituko du saioa. Herri batek moneta propioa izateari "garrantzi handia" ematen dio adituak: "Uste dut nazio bakoitzak bere izaera adierazi beharko lukeela txanponetan. Euroa dugun lurraldeetan, adibidez, moneta bateratua izan arren, herrialde bakoitzak bere izaera du adierazita monetan. Frantsesek eurena dute, espainolek ere... Euskaldunok gurea izan genezake; Europako Batasunetik kanpo egongo bagina, arrazoi handiagoarekin".

Antolatzaileek aurreratu dutenez, hitzaldi guztien amaieran zalantzak argitzeko edota debaterako gai ezberdinak proposatzeko aukera egongo da. Herritar oro gonbidatu dute.



**JUANTXO AGIRRE**
ARANZADIKO IDAZKARIA

### Amaiurko Gazteluko azken aurkikuntzez, XV. mendeko armak barne

Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari Juantxo Agirrek irekiko du Udaberriko Hitzaldi Zikloa, apirilaren 20an, Kulturateko areto nagusian (19:00). Antolatzaileek aspalditik ezagutzen dute Agirre eta adituak berak ere aspalditik ezagutzen du Arrasate: "Meritu handiak egin ditu historiaren ikerketan, langile amorratua da–eta", diote Zuztarrak Errotuz taldekoek. Amaiurko Gazteluaren inguruan egin diren azken aurkikuntzez egingo du berba Agirrek; izan ere, XV. mendean erabili izan ziren armak aurkitu dituzte azkenaldian, besteak beste.



**FLOREN AOIZ**
HISTORIA IKERTZAILEA

### Nafarroan izan den aldaketaz eta haren iraunkortasunaren gakoez

Sortu alderdiaren Iratzarri fundazioko presidente eta historia ikertzaile Floren Aoizek Nafarroako aldaketaren gakoak izango ditu hizpide hilaren 27an Kulturateko areto nagusian (19:00). Aoizen arabera, Nafarroako aldaketarako grina "indartsua" da oraindik ere, baina horren aurkako indarrak aintzat hartu behar direla dio: "Boteretik kanpo geratzean kolpe gogorra hartu zuten, baina burua altxatzen ari dira, eta kontraeraso indartsua prestatzen. Nafarroakoa ez da gobernu edo kolore aldaketa hutsa izan, erregimen oso bat desmuntatzen ari da", uste du.



**MIKEL LEGORBURU**
NUMISMATIKAN ADITUA

### Nafarroako Erresumako txanponen bidez, historia ezagutzeko aukera

Numismatikan aditua den Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlari Mikel Legorbururen hitzaldian txanponak izango dira protagonista. Hori bai, Legorburu ez da ekonomiaz arituko; Nafarroako Erresumako txanponen bidez Euskal Herriaren historia azaltzen saiatuko da. Halako saioak "izugarri interesgarriak" direla dio: "Ez nire afizioa delako, baizik eta gabezia handiak ikusten ditudalako gure herriaren historiaren inguruan. Kontu hauek guztiak zabaldu beharko lirateke. Hitz egitea, entzutea, ikastea falta da... Gauza asko falta dira".

**XABIER ZUBIZARRETA**
ZUZTARRAK ERROTUZ

### "Historiaren isla ezberdina da benetan zer gertatu zen jakiten denean"


GOIENA

Udaberriko Hitzaldi Zikloaren seigarren edizioaren nondik norakoak azaldu ditu Xabier Zubizarretak.

**Zein da hitzaldi zikloaren helburua?**

Iraganera begiratzen badugu ere, ahalegintzen gara ekartzen ditugun hizlarien bitartez gaur egun Euskal Herrian interesa duten gaiak jorratzen. Historikoki zein lotura izan dezaketen, nola jokatu izan dugun historian zehar gai horien inguruan... Aurten ere hori izan da gure saiakera; helburua da Kulturateko ateak ahalik eta herritar gehienek zeharkatzea.

**Historia berridatzi beharra dago oraindik?**

Berridatzi baino gehiago, idatzi egin behar dela esango nuke. Izan ere, beste batzuk izan dira gehienetan gure historia idatzi dutenak; ez legoke gaizki historia behar bezala idazten hastea.

**Monetaren gaia, esaterako, zergatik ekarri duzue?**

Oso interesgarria dela uste dugu. Adibidez, betidanik ezagutu dugun pezetaren iraupen historikoa 100 urte eta gutxikoa dela enteratu nintzenean konturatu nintzen historia aztertzea merezi zuela, gure txanponak izan ditugu–eta Kristo jaio aurretik. Aldiz, gure kontzientzia horri buruz zen pezeta izan dela gure betiko txanpona; horregatik uste dut historiaren isla oso ezberdina dela benetan zer gertatu zen jakiten denean edo besterik gabe duzun inpresioan oinarritzen bada.

EGUN URDINAK
FORD FOCUS ECOBOOST 12.490€



APIRILAREN 1ETIK 23RA
PREZIO HARRIGARRIAK

MUGARRI AUTOAK
Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744
Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua: 3,8-7,7 l/100 km. $CO_2$ emisioak: 99-175 g/km.
Apirilaren 1etik 23ra eskaintza harrigarriak izango ditugu Ford gamako turismoetan. Eskaintza baliagarria atxikitako kontzesionarioetan, stockean dauden autoendako. EcoBoost motorrak %20 hobetzen ditu kontsumoak motor konbentzional batekin alderatuta. Focus Trend 1.0 Ecoboost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate, atzeko kristal-jasogailu elektrikoak eta lainotako argiak. Eskaintzaren barne daude: BEZa, IEDMT (garraiobide mota batzuei ezarritako zerga berezia, autonomia erkidego bakoitzaren araberakoa; komeni da lekuan lekukoa aztertzea), garraioa, sustapen deskontuak, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC SErekin finantzatzearren, 8.000 euroko gutxieneko geroratua finantzazio konbentzionalean eta 24 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoa. Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren menpe dago eskaintza. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria 2016/04/23ra arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Iragarkian agertzen den modeloak ez du zertan eskainitakoa izan. Ale mugatuak stocka bukatu arte. **Ford.es.**

# "Muzibartik Maalara arteko zati osoa berritzearen aldekoak gara"

## Proiektua definitu aurretik, ikerketa lan bat eskatu dio EH Bilduk Udalari

**ENEKO AZURMENDI / J.B.** | ARRASATE

Udalak Arbolapeta eta Muzibar arteko kale zatia berrantolatzeko duen asmoen harira, EH Bilduk proiektua berraztertzea proposatu du asteon: "Zati hori bakarrik aztertu beharrean, ardatz osoa aztertu beharko litzateke, Muzibartik Maalara arte. Mugikortasun Plana aintzat hartuta, erreka non bistaratu behar den jakiteko, adibidez, ardatz osoa kontuan hartzea komeni da", dio Maialen Zabaleta zinegotziak. Koalizio ezkertiar eta abertzaleak begi onez ikusten du Udalak otsailean Kulturaten ireki zuen erakusketa, herritarrek aukera ezberdinen artean gustuko proposamena aukeratu ahal izan zuten eta: "Oso kontuan hartu behar dira herritarrek egindako ekarpenak, 400 baino gehiago egin dira eta hori oso positiboa da. Beraz, iritzi hori kontuan hartu behar da zer egin erabakitzeko orduan", uste du Zabaletak.

**Ongizatea lehentasun**

Horrez gain, Eneko Barberena bozeramaileak nabarmendu zuen errekaren biziberritze ekologikoaren alde eta espaloia zabaltzearen alde daudela, baina, betiere, herritarren ongizatea lehenetsita: "Gauzak zentzuz eta datuetan oinarrituta egin behar dira. Horregatik, aurretik ikerketa lan bat eskatzen dugu, benetan baloratzeko egiten den aukeraketa horrek ze eragin izango zukeen ez soilik zati horretan, baizik eta herri guztian". Herritarren bizi kalitatea hobetzeko aukera egokienak zeintzuk diren aztertu eta bideragarrienak diren espazioak ahalbidetu beharko liratekeela uste du Barberenak.



EH Bilduko Zabaleta eta Barberena, Monterron jauregiaren ondoan. | E. AZURMENDI

JOAN ZAIGU

## Antton Mendizabal Etxabe, 'Tonino'

Unibertsitate irakaslea, aktibista eta ezker abertzaleko militantea



Mendizabal, Goienan, iaz. | GOIENA

Astelehen gauean hil zen, 70 urte betetzear zituela, Antton Mendizabal *Tonino* unibertsitate irakaslea eta aktibista. Bihotzeko gaitz batek jota ahul zebilen azkenaldian, eta ospitalean zendu zen. *Arrasate Press* eta Goienako kolaboratzailea izan zen luzaroan eta kolaborazio estua izan zuen Arrasateko hainbat eragilerekin; herritar ugariren estimua zuen. Horren adierazle izan zen eguaztenean Aldai parkean egin zioten agur ekitaldi jendetsua. Han batu ziren senitartekoak eta hainbat lagun; baita ezker abertzaleko –tartean Sortuko idazkari nagusi Arnaldo Otegi eta EH Bilduko lehendakarigaia izan zen Laura Mintegi unibertsitate irakaslea– eta mugimendu sozialetako hainbat kide eta EHUko lankideak ere. "Bihotza, utopia eta konpromisoa" hitzak erabili zituen Sortuko Joseba Permatxek *Tonino* definitzeko. Ekitaldi hunkigarria izan zen: txalapartariak, aurreskua, bertsoak eta anekdotetarako tarteak izan ziren. Astean zehar hainbat izan dira Mendizabalen figura goraipatu duten eragileak. Askapenarentzat, esaterako, "munduko zapalduenekin batera amorerik eman ez duen iraultzaile nekaezina" izan zen eta Arrasateko EH Bildurentzat, berriz, "pertsona zoragarria, umoretsua eta kritikoa" zen: "Eskertzen diogu zinez bere ekarpena, justizia sozialaren eta herri zapalduen alde. Zaila izango da haren hutsunea betetzea".



Eguaztenean Aldai parkean egin zioten azken agurra *Tonino*-ri. | KEPA ORMAETXEA

### Komunikazio parekidea lantzeko mahai-ingurua apirilaren 19an Kulturateko areto nagusian (19:00)

Emakume Txokoak *Komunikabide feministak, bidea urratzen* izeneko mahai-ingurua antolatu du hilaren 19rako. Argiako kazetari Onintza Iruretak gidatuta, Klitto agerkari digitaleko Ana Iruretagoiena eta Pikara magazineko June Fernandez arituko dira hizketan: "Hedabideek duten garrantziaz ohartuta, komunikazio ez sexistaren gaian sakondu nahi dugu", diote antolatzaileek.



Machu Picchu: inken gune arkeologiko ezaguna eta gizateriaren ondarea, 2.430 metrora kokatua.

## Perura bidaian, hamaika altxor eta gizateriaren ondarea gertutik ezagutzeko asmoz

Perutik Machu Picchu gogora ekartzea izaten da ohikoena. Baina gune arkeologiko inkaz harago, amaigabeak dira herrialde latinoamerikarrak eskaintzen dituen aukerak: Limako Erregeen Hiria eta Amodioaren Parkea, Paracasko erreserba naturala, Arequipako Hiri Zuria, Colcako haran ederra, inken Cusco hiriburua... Hori eta askoz gehiago bisitatzeko aukera eskaintzen du Halcon Bidaiak agentziak, Arrasatetik bertatik irtengo den bidaia antolatu baten bidez. Irailean bi asteko bidaia antolatu du Halcon Bidaiak agentziak, talde txikian eta espezializatutako gidari batekin. Hortaz, egun ahaztezinak bizitzeko osagai guztiak ditu proposamenak.

**Geldialdi interesgarriak**

Peruko magia bertatik bertara ezagutzeko, geldialdi ezin interesgarriagoak egingo dituzte hamabost egunetan: Limako Erregeen Hiria –Unescok gizateriaren ondare izendatutakoa–, Ballesta uharteak –itsas lehoiak eta pinguinoak bisitatzeko aukerarekin–, Nazcako lurretan irudikatutako formak abioneta batetik ikusteko irteera –Unescok gizateriaren ondare izendatutakoa hori ere–, Titicaca lakutik bidaldia, inperio inkaren haran sakratua –Marako salinerak, Machu Picchu gune arkeologikoa...–, eta beste hainbat txoko.

Herrialdeaz gehiago jakiteko, Madrilen Peruko enbaxadan lan egiten duen Ana Maria de la Cruzek hitzaldia emango du. Ondoren, luntxa egongo da. Saioa apirilaren 28an izango da, Kulturateko Loramendi gelan (18:30). Doakoa da, baina bertaratu nahi duenak aldez aurretik eman behar du izena.



Xaman perutarra, herrialde espiritual baten adierazle.



# "Guardia Zibilarekin oso harreman txarra genuen"

## Migel Etxagibel Ertzañako ertzain ohia da, 1936koa; bihar Jaurlaritzaren omenaldia jasoko du udaletxean

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Migel Etxagibel Urizar arrasatearra Ertzañako ertzain ohia da, Ertzaintzaren hasierako lehen kideetako bat izan zen eta. Azaroaren 21ean beteko ditu 98 urte. Bada, 18 urte bete barik zituela, 1936an Jose Antonio Agirre Lehendakaria zeneko garaian, aritu zen ertzain 1937ko ekainean tropa frankistek Bilbo hartu zuten arte.



Migel Etxagibel Urizar, bere etxeko egongelan. | MIREIA BIKUÑA

**Iñigo Urkullu omenaldian**

Hain justu, Ertzaintzak 80 urte betetzen ditu aurten, eta, urteurrena aprobetxatuta, Jaurlaritzak omenaldia egingo dio bihar, zapatua, udaletxean (12:00). Besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakariak hartuko du parte. Lehen ertzainen artean azkena da Etxagibel –bizirik geratzen den bakarra–, eta "sorpresaz" hartu du gonbita: "Ez dut uste merezi dudanik", dio, apal. Orduko Ertzañaren oroitzapen onak gordetzen ditu: "Jende ona, sanoa eta normala zen, konfiantzazkoa. Oso giro ona zegoen. Eskola etengabea zen, etorkizunera begira zegoena eta mendeku goserik gabekoa. Akordatzen naiz segundo guztiak aprobetxatzen genituela eta ordena zela nagusi".

Ikasi beharreko hainbat konturen artean, armak erabiltzea: "Pistolak genituen. Bi pistola izan nituen nik, baina ez nuen sekula erabiltzeko beharrik izan. Gure lana ikasteko ematen zizkiguten eskoletan; atxiloketa egin behar bagenuen, adibidez, agindua zen espektakulurik ez egitea. Atxiloketa oharkabean pasa zedila zen agindua". Ertzañan jaso zuen eskolaren modukorik "gutxi" izan dituela dio Etxagibelek: "Denbora gutxi genuen denerako. Asko aldatu dira gauzak, baina ni ez naiz atrebitzen gure garaikoak egungo ertzainak baino hobeak edo okerragoak diren esaten. Gogoratzen dut Guardia Zibilarekin harremana oso txarra zela, mespretxuan eta amorruan oinarritzen zela. Oso gaizki ikusiak ziren gure artean", gaineratu du.

## Elkarte gastronomikoen arteko haragi gisatu lehiaketa baserritarren azokan

**J.B.** | ARRASATE

Hilero hirugarren zapatuan egiten den moduan, baserritarren azoka egingo da bihar Seber Altube plazan (09:00-14:00). Ohiko postuez aparte, apirileko azokaren bereizgarri izango da elkarte gastronomikoen arteko haragi gisatu lehiaketa. Otsailaren 19tik apirilaren 17ra bitartean luzatu diren Jardunaldi Gastronomikoen barruan kokatzen da lehiaketa. Udaleko Garapen Sailak SUDCen bidez antolatu du eta bihar 13 elkartek hartuko dute parte. 11:30 aldera ekarriko dituzte haragi gisatuz betetako lapikoak eta orduan ekingo dio epaimahaiak onena zein den erabakitzeari.

Ondoren, 12:00etatik aurrera, pintxoak dastatzeko aukera izango dute bertaratzen diren herritarrek.



JOKIN BEREZIARTUA

## Bigarren Errepublikari gorazarre

Atzo, apirilak 14, Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zela 85 urte bete ziren, eta bandera jarri zuten Irabaziko kideek udaletxeko balkoian. Errepublikak berdintasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen mesedetan ekarri zituen onurak nabarmendu dituzte. Martxoaren 22ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak hiru koloreko bandera jartzea.



# Udaberria kalitatezko doinuekin dator, zuzenean

Apirileko azken bi aste bukaeretan sei kontzertu, bertako eta kanpoko artistekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaberria musikaz blai dator aurten ere Udaberriko Musikaldearen XII. edizioari esker. Aurten sei emanaldi batuko ditu musika zikloak eta protagonisten artean hiru herrikoak bertakoak izango dira: Txorbela otxotea, Arrasate Musikal eta Goikobalu.



Ubarretxena, Olaizola, Alberdi, Barriocanal, Mendieta eta Aiastui. | JOKIN BEREZIARTUA

**Doakoa, Stradivarias izan ezik**

Honako hau da egitaraua: apirilaren 22an, Opus 4 taldearen eta Txorbela parrokian; apirilaren 23an, KUP taldea parrokian; apirilaren 24an, Stradivarias Amaia antzokian; apirilaren 29an, Arrasate Musikal eta Goikobalu San Frantzisko elizan; apirilaren 30ean Pirenaeus Consort parrokian eta maiatzaren 1ean Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena Kulturateko areto nagusian.

Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira eta doakoak dira, Stradivarias-en emanaldia izan ezik. Umorea, musika eta antzerkia uztartzen dituen proiektu arrakastatsua da Stradivarias eta Udalak dagoeneko salgai jarri ditu sarrerak, hamar eurotan: *www.arrasate.eus*.

**Kultura, "ardatz nagusietakoa"**

Kulturak Arrasaten pisu handia duela frogatuko du, beste behin, Musikaldiak: "Kultura gure lan ardatz nagusietakoa da. Herriko kultura eskaintza zabaltzea eta kultura bera sustatzea ditugu helburu. Horregatik, egitaraua zabala eta askotarikoa izan dadin egin dugu lan, baina, bereziki, talde arrasatearren partaidetza indartu nahi izan dugu", adierazi zuen martitzeneko aurkezpenean Maria Ubarretxena alkateak. Herriko taldeen parte-hartzea nabarmentzeaz gain, kanpoko proposamenak "aberatsak" direla esan zuen kultura teknikari Karmelo Alberdik: "Edonork disfrutatzeko moduko eskaintza da".

Aurkezpenean bertan egon ziren Arrasate Musikaleko ekintza arduradun Edorta Aiastui, Goikobaluko presidente Juan Antonio Barriocanal eta Txorbelako kide Inazio Olaizola. Hirurek Udalaren aukera eskertu zuten: "Urte asko daramatzagu Goikobalurekin batera kontzertua antolatzen eta Udalari eskerrak eman behar dizkiogu urtero gutaz akordatzearren", esan zuen Aiastuik.

**Txorbela, telonero lanetan**

Txorbelakoak, berriz, Galiziatik etorri berri dira, han ere arrakastaren zaporea dastatu ostean: "Oso gustura ibili gara Galizia aldean, itxuraz arrakastatsua izan da. Oraingoan, baina, gurea teloneroaren lana izango da; lau kantu egingo ditugu sarrera gisa", eman zuen aditzera Olaizolak.

## ZALDIBAR

**AZKEN JARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Dribling - Olympiakojos FC | 14-0 |
| Lasagabaster - Sonografos | 2-3 |
| Aldatz - Betrayer | 2-2 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **A MULTZOA** | | | |
| 1 | Sonografos | 9 | 2 |
| 2 | Lasagabaster | 8 | 2 |
| 3 | Aldatz | 8 | 1 |
| 4 | Betrayer | 3 | 2 |
| 5 | Rayo Makabro | 1 | 0 |
| **B MULTZOA** | | | |
| 1 | Dribling | 10 | 1 |
| 2 | Monte Taberna | 8 | 1 |
| 3 | Abokajarro | 6 | 1 |
| 4 | Elorra JMA | 2 | 1 |
| 5 | Olympiakojos FC | 1 | 2 |

**PARTIDUAK (2. FASEA)**

APIRILAK 16, ZAPATUA

**11:30** Monte Taberna-Elorra JMA / **Sonografos**

**12:30** Betrayer-Sonografos / **Monte Taberna**

APIRILAK 17, DOMEKA

**11:30** Aldatz - Rayo Makabro / **Elorra JMA**

**12:30** Olympiakojos FC - Elorra JMA / **Aldatz**

**Atsedenaldia:** Lasagabaster eta Monte Taberna

## NIRE USTEZ



OSCAR RODRIGUEZ

# Eszenatoki berriak

Duela lau hilabete hiritarrok gure bozka eman genuen (edo ez) Espainian antolatu ziren hauteskundeetan, baina oraindik gobernurik ez daukagu. Gainera, nahiz eta oraindik hiru asteko epea aurretik dagoen, badirudi ez dugula gobernurik edukiko hauteskundeak errepikatzen ez baldin badira. Espainian ohituta egon gara beti alderdi batek hauteskundeak irabaztera eta alderdi horrek gobernua eratzea.

Une historiko honetan, hauteskundeak irabazi dituen alderdiak –ustelkeriaz inguratuta– ezin duenez konfiantza lortu gobernu bat martxan jartzeko, sekulako nahasketa daukate alderdi-buru guztiek. Ez dakite zer egin, nire aburuz, egoera berria ulertzen ez dutelako.

Benetan ez dakit hauteskundeak errepikatuko diren ala ez. Baina gaur egun daukagun eszenatokia errepikatuko dela ziur nago, ezagutu dugun bipartidismoarekin hiritargoak apurtu egin duelako. Eta alderdiak zuzentzen dituzten pertsonak ohitu beharko dira eszenatoki berriak kudeatzera, hitz potoloak eta horrenbeste marra gorri alde batera utzita.

Ez genuke drama bat balitz bezala bizi behar egoera hau. Guztiz alderantziz! Herri baten kultura politikoa ez da hilabete batzuetan aldatzen.

Eta argi daukadana da gure kultura politikoan aldaketa sakon bat behar dugula. Horretan gabiltza.

**"Gure kultura politikoan aldaketa sakon bat behar dugu"**

## 80 kilo olagarro dastatzeko aukera etzi San Isidroko plazan

Musakolako jai batzordearen eskutik, olagarroa dastatzeko aukera egongo da domeka goizean San Isidro elizako plazatxoan, "prezio onean". Iazko arrakasta ikusita, aurten 80 kilo enkargatu dituzte, eta edatekorik ez da faltako. Gainera, San Isidro jaietarako poloak eta barruko arropa ere jarriko dituzte salgai.

## 'Zaku Bete Lelokeri' ipuin kontaketak datorren astean

Liburuaren Egunaren harira, Eider Eibar ilustratzaileak eta Miren Larrea ipuin kontalariak *Zaku Bete Lelokeri* izeneko saioak eskainiko dituzte datorren astean. Bi saio izango dira: apirilaren 19an Santa Marinako bibliotekan (17:00) eta hilaren 21ean Kulturaten (18:00). 4 urtetik gorako umeei daude zuzenduta.

## Eguzkilaru Eguna antolatzeko deia gaurko

KOMUNITATEA GOIENA

TXATXILIPURDI | ARRASATE

Txatxilipurdi Elkartetik Eguzkilaru Eguna 2016 elkarrekin prestatzeko deialdia egin nahi diegu herriko ume eta familiei. Izan ere, udaberria etorri da eta Eguzkilaru Eguna gerturatzen ari da. Aurreko astean Eguzkilaruren bisita jaso genuen Arrasateko kaleetan. Aurtengorako ideia gabe gelditu dela-eta, bereziki Arrasateko umeen laguntza eskatu du 2016 urteko Eguzkilaru Eguna prestatzeko.

Horretarako, herriko umeekin elkartzeko hitzordu bat jarri du: gaur izango da, hilak 15, Biteri plazan (18:30).

Guztiok zaudete gonbidatuta, etorri eta ekarri zuen ideiak eta ametsak! Elkarrekin egingo dugu 2016ko Eguzkilaru Eguna!.

## Mondrate taldearen udako campusean izena eman behar da ekainaren 10a baino lehen

J.B. | ARRASATE

Iazko arrakasta ikusita, Mondrate areto futbol taldeak bigarren urtez antolatuko du udako campusa. 2000 eta 2008. urte artean jaiotakoendako da, uztailaren 4tik 15era. Bi astekoa izan arren, nahi duenak astebetez bakarrik hartu ahalko du parte. Ordutegia 10:00etatik 13:30era izango da eta, eskatuz gero, zaintza egongo da 09:00etatik aurrera. Areto futbola lantzeaz gain, umeek elkarbizitzen ikastea da asmoa. Horretarako adin ezberdinekoen artean hainbat jarduera egingo dira: jolasak, irteerak, partiduak… Plaza mugatuak dira eta izena emateko azken eguna ekainaren 10a da. Hamaiketakoa banatuko dute egunero; informazio gehiago: 634 211 146 edo 662 520 359 eta *mondrate@gmail.com*.

arbolapeta
arrasate
beinke

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

# Beatriz Sanchez: "Adimenaren teoriak besteen jarrerak ulertzen laguntzen du"

## Helduen eskolako irakasleak bere ikerketa aurkeztu zuen eguaztenean

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Beatriz Sanchez irakasleak duela hiru urte Bergarako Helduen eskolako ikasleen artean egindako galdeketa batekin ikerketa egin zuen, inteligentzia emozionalerako gaitasunak adimenaren teoriarekin zuen erlazioa frogatzeko asmoz. Eguaztenean lana aurkeztu zuen Irizarren. Bere doktore tesian planteatutakoa frogatzeko egin zuen ikerketa Sanchezek; hau da, inteligentzia emozionalaren oinarrian adimenaren teoria dagoela frogatzeko, Mayerren eta Saloveyren arabera (teoria hori lehenengoz planteatu zuten adituak).

**Ikerketaren emaitzak**

Sanchezek azaldu du adimenaren teoria dela gizaki guztiok (autismoa dutenek izan ezik) duten gaitasun bat, zeini esker, "inguruan ditugun pertsonen jarrerak ulertzen ditugun". Honako adibide hau jartzen du irakasleak: "Pertsona bat semaforodun zebrabide baten ondoan geldirik ikusten badugu, ez gaitu harritzen, badakigulako semaforoa berde jartzeko zain dagoela". "Gaitasun horregatik ez balitz, mundua kaosa irudituko litzaiguke", azaldu du: "Gugan dagoen gaitasun bat da, nahiz eta lau urte ditugun arte ez dugun guztiz garatzen". Aurrerago, bizitzako esperientziarekin gehiago garatu daiteke adimenaren teoria hori.

Inteligentzia emozionala, berriz, labur esateko, "bestearen tokian jartzea" izango litzateke, edota, esaterako, eskerrak ematen jakitea, albokoari laguntzea, liskarrak ekiditeko joera... "Adituen esanetan, inteligentzia emozionala burmuinaren gune kognitiboan dago, eta norberaren emozioak erregulatzen ditu".

Inteligentzia emozional altua duen jendeak adimenaren teoria garatuagoa daukala da Sanchezek bere ikerketatik atera duen ondorioa. Ondorio horretara iristeko, galdeketak osatu zituzten Bergarako ikasleek, inteligentzia emozionala neurtzen zutenak, batetik, eta adimenaren teoria neurtzen zutenak, bestetik. Eta, kasu gehienetan, inteligentzia emozionalean puntuazio altua zutenek adimen gaitasuna ere hala zeukaten, eta baxuagoa zutenek, alderantziz.



Sanchezek bere ikerketari buruzko argibideak eman zituen. | M.T.

### Solasaldia Irizar jauregian

**Beatriz Sanchez irakasleak *Inteligentzia emozionala eta adimenaren teoria* izeneko hitzaldi–solasaldia eskaini zuen eguazten arratsaldean Irizar jauregiko azkenengo solairuko ekitaldien aretoan.**

**Bertan, egoitza berean dagoen Helduen Eskolako kideekin burutu zuen ikerketari buruzko azalpenak eman zituen, proiektoreko aurkezpen batez lagunduta. Hitzorduak interesa eragin zuen, jende dezente batu baitzen Sanchezen hitzaldia entzuteko asmoz.**









MARTXANTERAK

## Martxanterak manifestazioan

***Feministok Prest! 11 eraso 12 erantzun* leloarekin manifestazioa egin zen zapatuan Gasteizen, eta bertan parte hartu zuten Martxanterak taldekoek. 12.000 lagunek egin zuten bat Euskal Herriko mugimendu feministak indarkeria matxisten aurka antolatutako protestarekin.**

NIRE USTEZ

**JAIONE CARPINTERO**



## Zenbaki hutsak

Aste Santuko oporretan, autobusa hartu eta egun batzuk kanpoan eman nituen. Baina atseden egunak ez nituen hanka onarekin hasi.

Autobus geltokian ordu eta erdi eman nuen zain. Hasieran, atzerapen txiki bat izan zuela esan ziguten. Gero, ibilgailuak arazo mekaniko bat izan omen zuela. Azkenean, eta erreklamazio orriak esku artean izandakoan, gure gidaria izango zenarekin ordutegi nahasketa bat izan zutela esan ziguten.

Lotsagarria iruditzen zait enpresek gehienetan izaten duten bezeroekiko azaleko harreman hori. Ekonomiak gizartean hartzen duen paperak humanitatea guztiz baztertzen du. Bezeroak zenbaki hutsak izatera pasatzen gara.

Hori bai, erreklamazio orriak eskatzen dituzunean, zerbait magiko eta misteriotsua gertatzen dela dirudi: azalpenak ematen hasten zaizkizu, irribarre jator bat irteten zaie aurpegian...

Arrazoia bat edo beste. Enpresa bat zein beste. Gaur egun zerbait lortzeko bidea protestatzea dela dirudi. Gero eta gehiago gara bide horretara jotzera behartuak sentitu izan garenak noizbait.

Beraien zerbitzuak erosi eta gure diruz ordaintzen ditugun bitartean, tratu duinagoa merezi dugu. Errespetua, alegia. Hilabete bukaeran beraien balantzeetan positiboki zenbatuko duten zifra hutsak baino zerbait gehiago gara.

# Umeekiko ardurak partekatzea hizpide hilaren 20an

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

*Familian guztion parte-hartzea, denontzako onuragarria* da eguazteneko hitzaldiaren izenburua. Etxadiko kideek emango dute, Udalaren Orientazio Psikologikorako Zerbitzua eskaintzen duten profesionalek; Irizar jauregian izango da, 18:00etan, eta euskaraz.

Hitzaldia iragartzeko eta zertaz izango den azaltzeko Etxaditik bidalitako oharrak dio guraso biek –bi direnean– "inplikatu" behar dutela seme-alaben "hezkuntzan eta hazkuntzan", erantzukizunak partekatuz: "Medikuarenera eraman; irakasleak deitzen dituen bileretara joan; parkera, igerilekura eraman; ipuin bat irakurri; higiene, elikadura edo ikasteko ohiturak ezarri; arau eta mugak jarri.... Batik bat, horrek guztiak gure alaba edota semeen garapenari mesede egiten diolako".

"Seme-alabek gurasoen hurbiltasuna sumatzea" ere inportantea da: "Beraien lehentasunak eta nortasuna ezagutu; esateko dutena entzun; sentitzen duten horri izena jarri; esperientziak, bizipenak konpartitu; babesa adierazi eta laguntza eskaini; gatazka-egoerak ebazten lagundu...".

Hitzaldira joatekoak diren gurasoei Udaletik eskatzen diete izena ematea (943-77 91 26 eta 943-77 91 65), gela egokitzeko.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA



DRAGON ORIENTAL
Jatetxea
Janaria ere etxera eramaten dugu
Plater gustukoenak:
• Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
• Curry triangeluak okelaz beteta
• Langostino frijituak almendrekin
Etor zaitez!
☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

# Geltokian hobekuntzak egiteko herri partaidetza eskatu du EH Bilduk

## Bidegorriaren proiektuak gunean eragingo dituen lanak lekua moldatzeko baliatzea proposatu dute


Gorka Artola eta Joseba Moñux zinegotziak, Iker Intza aholkulariarekin. | M.T.

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

EH Bilduk Urteaga eta Ibargarai inguruko bidegorriaren proiektuaren barruan autobus geltokiari dagozkion egokitzapenak zehazteko parte hartze prozesu bat eskatu dio Udal Gobernuari.

Bidegorria egiteko, lan batzuk egin behar dira geltokian, eta horiek baliatuz lekua hobetu beharko litzatekeela uste dute oposizioko ordezkariek.

Aurreko agintalditik dator Urteaga eta San Antonio auzoetatik pasako den bidegorriaren egitasmoa, ondoren Ibargaraiko autobus geltokiaren alboko bidegorriarekin bat egingo duena.

Bidegorria oraingoarekin lotzeko, ordea, geltokian lanak egin behar dira, eta horiek "geltokia hobetzeko baliatu beharko liratekeela" uste dute EH Bildutik: "Bidegorriaren proiektua aurreko legealdian landu zen parte hartze prozesu bidez, baina ez ziren zehaztu geltokian suposatuko zituen lanak. Ikusi dugu proiektuan planteatzen diren lanak uste baino handiagoak izango direla", dio Gorka Artolak, obra batzordeko zinegotziak.

Uste dute geltokiko tramuak diagnosi berezitua behar duela, herritarren parte hartzearekin egina. Bestalde, EH Bilduk proiektuaren inguruko hainbat proposamen aurkeztu zituen, eta salatu dute Udal Gobernuak ez dituela kontuan izan.

### Mugikortasun mahaia

Bukatzeko, mugikortasun mahaia berraktibatzeA eskatu dute, euren esanetan Udalak guztiz desaktibatu duena.

# Pentekosteetako zapirako lehiaketa abian

KOMUNITATEA GOIENA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Gerturatzen ari dira Pentekosteak, eta jaietan dotore-dotore ibiltzeko zapiak aterako ditu aurten ere Jardunek. Eta zapirako marrazkia aukeratzeko lehiaketa martxan jarri dugu.

Edonork eta nahi beste marrazki aurkeztu har dezake parte lehiaketan. Marrazkiak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko eta azken eguna apirilaren 27a da.

Lanak Jardunen bulegoan aurkeztu edo jardun@topagunea.com helbidera bidali beharko dira. Saria: 60 euro.

# Bozka bidez erabaki zehatzak hartuko dituzte 'Abian' batzarrean

## Ezker abertzalearen gaineko gaiak landuko dira

M.T. | BERGARA

Bihar, apirilak 16, ezker abertzalearen *Abian* eraberritze prozesuaren herri mailako hirugarren bilera izango da. Aurrez beste bi hausnarketa batzar egin dituzte herrian, eta bihar erabakiak hartuko dituzte herritarren bozka bidez. 10:30ean izango da, Aranzadi ikastolan, eta euren burua ezker abertzalekotzat dutenei egin diete parte hartzeko deia.

### Aurrez egindakoa

Lehen batzarrean, eraberritze prozesuaren lehen fasetik jasotakoarekin egin zen *Abian* txostenaren tesi eta ildo orokorrari baiezkoa eman zioten. Euskal Herrian parte hartzaileen %81ek hurrengo urteetako lehentasuna herri prozesu independentista martxan jartzea izan behar dela onartu dute, antolakundeak ohar bidez azaldu duenez. Bigarren batzarrean, berriz, eztabaidatu eta ekarpenak jaso zituzten.

Biharko azken batzarrean, berriz, Euskal Herri mailan 6.000 pertsonak proposatutako alternatibak bozkatuko dituzte. Jarraian, gai nagusiak: "Desobedientzia zibilak izan behar duen garrantzia eta ezaugarriak", "Preso politikoen defentsarako antolakunde berria sortu ala ez", Ezker Abertzalea 9 antolakundez osatutako blokea izatea edo ez".

Bi orduko batzarraren ostean, luntxa izango da Pol-Pol tabernan.

## Nuria Simon Garcia

La Barata arropa denda

# "Prezioa baxua da, arropak markakoak ez direlako, baina kalitatea ona"

Denda ireki berri du Domingo Irala kaleko 4.ean. Kate honetako denden ezaugarria da 4 eta 10 euro arteko prezioa dutela bertan aurki daitezkeen arropa eta osagarri guztiek.



Nuria Simon dendaria, Irala kaleko La Barata dendan.

Astelehenetik zapatura goizez 10:00etatik 13:30era egongo da irekita; astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara arratsaldez eta zapatuetan 17:30etik 20:00etara.

**Hasierarekin pozik?**

Oso pozik, jendea oso ondo erantzuten ari da eta. Mota guztietako jendea dator, eta hori zen asmoa.

**Zergatik zabaldu duzu denda?**

Bergarak baditu dendak, baina ez era honetakoak; *low cost* erakorik ez dago. Oso denda onak daude, kalitate handikoak, baina prezio altuetakoak dira. Hemen prezioa baxua da, arropak markakoak ez direlako, baina kalitatea ona. Orain batetiketa gero beste tik pikatzea gustatzen zaienentzat, poliki-poliki erosten joatea gustuko dutenentzat aukerakoa da; 50 euroko txaketa bat edukitzea baino, 10 euroko bost eduki eta aldatzen joatea nahiago dutenentzat.

> Facebookeko orrian eta dendan bertan, erosketaren ziurtagiriarekin, txandaka, zozketak egingo ditut, denek izan dezaten zozketa hauetan parte hartzeko aukera.

**Zer duzue dendan?**

Bitxietan merkeenek 4 euro balio dute; gerrikoak ere baditugu, zapiak... Eta arropek 10 euro balio dute: jakak, bakeroak, brusak, soinekoak, *body-ak*, *short*-ak... Askotariko janzkeretakoak ditugu. Astean bitan iristen zaigu arropa berria, astelehenetan eta eguenetan.

**Dena neskentzat.**

Bai, denentzat; 14 urteko neskatilentzat, adibidez, XS edo 36 neurriak badira-eta, edo emakume nagusiagoentzat, badira-eta brusak, alkandorak, kamisetak 56 tailara arte, prakak barne.




# 'Ilargiaren egutegia' hitzaldia eskainiko du Jakoba Errekondok

Jakoba Errekondok, bihar, *Ilargiaren egutegia* hitzaldia eskainiko du Ubera auzoko Eskoletxean, 11:15ean hasita. Bi orduko iraupena izango du; lehenik, aurkezpena egingo du, eta ondoren, galderetarako tartea izango da. Udalak eta Migel Altunako Bizikasi zerbitzuak antolatu dute hitzordua.

# San Prudentzio jaiak domekatik aurrera Elorregi auzoan

Hilaren 17an, 22an, 23an, 24an eta 28an San Prudentzio jaiak ospatuko dituzte Elorregin. Makalaren jasotzea 22an izango da, baina, hasteko, domeka honetan, auzoko emakumeendako txokolatea txurroekin izango da arratsaldeko seietatik aurrera, baita umeendako jolasak ere.

# Natur zientzien gaineko herritarren programak mintzagai gaur

Gaur, egubakoitza, *Natur Zientzien arloko herritarren zientzia programak eskualdean?* izeneko topaketa burutuko dute Laboratorium museoan, 19:00etan. Boluntarioen zientzia programak izango dituzte hizpide, eta instituzioen mesedetan erabiltzeko programen eredu desberdinak aurkeztuko dituzte.

# Egubakoitzera arte egin daiteke txosnen ustiaketarako eskaera

Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete Pentekoste jaietarako eskaerak; lehentasuna izango dute kultura, kirola, hezkuntza edo irakaskuntza eta ongintza helburu dituztenek. Apirilaren 22ko 12:00ak arte aurkeztu daitezke eskaerak.



Iaz egin zuten Erresistentzia Egunean, 1937an borrokatu ziren milizianoak eta gudariak omendu zituzten Elgetan.

# Emakumeei egingo zaie aitortza aurten

## Intxortako Erresistentzia Eguna egingo dute apirilaren 24an, domeka, Elgetan

Apirilaren 24an, 16:00etan, 79 urte beteko dira frankistak Elgetan sartu zirela. Hain zuzen, egun horretan, Intxortako Erresistentzia Eguna egingo dute. Egun beltzak izan ziren elgetarrentzat 1937ko haiek. Elgeta erresistentziaren ikono izan zen; eta, horregatik, borroken ondoren, frankistek gura zutena egiteko baimena izan zuten. Bortxaketak, erailketak, lapurretak... egin zituzten bi egun haietan Elgetan.

Aurtengo Erresistentzia Egunean, emakume erresistenteak eta errepresaliatuak omendu nahi dituzte, bereziki isilduak eta zapalduak izan zirelako. Bada, oraingoan, 40 bat emakumeri egingo diete aitortza; errepresaliatuak eta erresistentziako kide izan ziren emakumeei, hain zuzen. Aitortza egingo diete, besteak beste, Arrasateko Iñigo Arregi eskultura-egileak egindako *Egiaren iturria* oroigarria emanez.

### ERREKREAZIOA INTXORTAN

Aste bukaera osorako antolatu dituzte ekintzak; izan ere, zapatuan hasiko dira ekintzak eta domekan ekitaldi nagusiak egingo dituzte.

Intxortako Atean 1937ko apirileko borrokaldien errekreazioa egingo da, laugarren urtez. 11:30ean izango da, eta 150 lagunek parte hartuko dute errekreazioan. Emakumeen partaidetza sustatu nahi izan dute aurten; hala, errekreazioan 42 emakumek parte hartuko dute. Falangistak, armada, karlistak, erregularrak eta gudariak, guztiak egongo dira ordezkatuta domekako errekreazioan.

### BISITA GIDATUAK

Elgetako frontea ezagutzeko bisita gidatua urte osoan zehar egiteko aukera dago. Hileko lehenengo eta azkeneko dometan egiten dituzte bisitak, 5 euroren truke. Hiru ordu eta erdikoak izaten dira; lehenengo, museoa bisitatzen dute, eta ondoren, ibilaldia egiten dute, oinez –bost kilometroko ibilaldia–. Harrera-gunea eta erakusketa Espaloia Kafe Antzokian daude. Ibilbidean zehar, Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera dago. Aurrez izena eman behar da *turismo@debagoiena.net* helbidean.

Bisitak beste edozein egunetan ere egin daitezke, gutxienez 12 laguneko taldeak izanez gero.

### APP-A SORTU DUTE

Telefono mugikorretik Intxortako ibilbidea ezagutzeko aukera ere badago mugikorretarako Elgeta Memoria aplikazioaren bitartez. App Store eta Google Play denda birtualen bitartez jaitsi daiteke Intxortako frontearen ibilbidea.

Audio-gida baten bitartez ibilbideko puntu ezberdinak ezagutzeko aukera dago modu horretan. Sei hizkuntzatan dago aplikazioa: euskaraz, espainolez, ingelesez, alemanez, frantsesez eta katalanez.

### EGITARAUA

**APIRILAK 23, ZAPATUA**

- **18:00** Bisita gidatua.
- **19:30** Orkestra Elektrotxaranga.
- **22:30** Kontzertua: Perlak + Gose

**APIRILAK 24, DOMEKA**

- **10:00** Hamarretakoa.
- **10:30** Gudari eta milizianoen igoera.
- **10:40** Lore eskaintza Salbadorren.
- **11:30** Errekreazioa Intxortako atean.
- **12:00** Lubakiak ikusteko aukera.
- **12:30** Martxa Elgetara.
- **13:00** Emakumeei omenaldia. Ain_1 eta Gasteizko Abesbatza Errepublikanoa.
- **14:45** Bazkaria frontoian.






Pello Alberdi, erakusketako koadroen ondoan. | XABIER GOROSTIDI

# Pello Alberdiren hogei koadro ikusgai gaurtik Aroztegin

JULEN IRIONDO | BERGARA

*Beti* du izenburua Pello Alberdi elgetarrak gaurtik maiatzaren 1era Aroztegi aretoan ikusgai izango duen erakusketak. Hiru tamainatako –handi, txiki eta ertain– hogei olio-pintura dira jarritakoak, Elgetakoa izan arren Bergaran jardutea zer den badakien eta herrian ezaguna den artistak azken urtebete inguruan egindakoak.

Koadroetan nabarmentzen dira koloreak eta geometria. Abstraktuak dira, eta ikusle bakoitzak aterako du iradokitzen diotenaren gaineko ondorioa, autorearen hitzetan; hori bai, bere asmoa koadroek giro goxoa sortzen laguntzea da.

Erakusketa egongo da ikusgai astean zehar arratsaldez, domeketan goizez eta zapatuetan goiz eta arratsaldez.

## Udaberriko kirol festa, Kirola Kalera eta bizikleta zaharren eta ziklismoko materialaren erakusketa

Bihar, zapatua, udaberriko kirol festa Agorrosinen, 17:00etatik 20:00etara: *master class*-a, areto txirrindularitza, *krossfit*-a, *zumba*... Gaur amaitzen da izen-ematea. Domekan, berriz, Kirola Kalera; bizikleta martxak, begiraleekin: 09:00etan, mendi bizikleta; 10:00etan, emakumeentzako txangoa; 10:30ean, familientzako (kaskoa behar da). Horrez gain: 10:30ean, trail lasterketetarako hastapen saioa; eta 11:00etan, patin martxa bidegorritik, bizikleta eliptikoak eta elektrikoak, ginkanak eta jolasak eta gosari osasungarria. Dena Labegaraieta kiroldegian. Azkenik, *Garai bateko bizikleta* erakusketa, hilaren 19tik 24ra, udaletxean.

# 'Apirilean musika': gaur hasita ekintzaz eta emankizunez betetako hamabostaldia

J.I. | BERGARA

Musika Eskolaren zikloa kantu ikasleen emanaldiarekin hasiko da: popa, musikalak, opera, bakarlariak... askotarikoak entzuteko aukera izango da. Bestalde, domekan eta aurten hirugarrenez, ikasle eta herritarrei Udal Musika Bandan dauden haizezko instrumentuak gerturatzea helburu duen kontzertua egingo dute; horretarako, umeentzako pelikuletako musikarekin programa berezi bat dute prestatuta. Gero, aste osoan –baita hilaren 22tik 30era– ekintza ugari egongo dira.

### ASTE HONETAKO EGITARAUA

**APIRILAK 15**

**19:00** Kantu ikasleen emanaldia Mariaren Lagundiko elizan.

**APIRILAK 16**

**11:00** Suzuki ikasleen kontzertua Zabalotegin.

**12:00** Bergarako eta Irungo biolontxelo ikasleak Zabalotegin.

**APIRILAK 17**

**12:30** Banda: kalejira (11:00) eta saio didaktikoa frontoian.

**APIRILAK 18**

**14:00 eta 17:30** *Marrazkien bizitza? Musika* tailerra eskolan.

**18:30** Orkestrakoentzat tailerra Musika Eskolan: afinazioa.

**18:30** Ikasle helduen kontzertua Zabalotegin.

**19:30** Trikitixa ikasleak eta perkusio taldea Zabalotegin.

**19:30** *Eskolan Rock* saioa Musika Eskolan.

**APIRILAK 19**

**14:00 eta 17:30** *Marrazkien bizitza? Musika* tailerra eskolan.

**18:00** *Pianoarekin laguntzen* tailerra Musika Eskolan.

**18:30** Biolin taldeak Ospitaleko elizan.

**18:30** Piano ikasleen kontzertua Zabalotegin.

**APIRILAK 20**

**18:00** Gitarra ikasleen kontzertua Zabalotegin.

**18:30** Biolin eta biola ikasleen kontzertua Ospitaleko elizan.

**18:30** Txistuari buruzko hitzaldia eskolan Jose Miguel Laskurainekin.

**APIRILAK 21**

**18:30** *Musika kalera! Goazen denok dantzara!*

## 'Bat-batean: munduko musikekin bertsotan', gaur Arrano tabernan

Jardunekin elkarlanean antolatu dute bertso saio, musika saio eta kantu saio, hiruetatik den ikuskizuna. Hitzak bat-batekoak izango dira; musikak, aldiz, aurrez aukeratuak, doinu ohiko eta ezohikoak, samba, sona edo tango kutsuz. Oskar Estanga eta taldearen saioa 22:00etan hasiko da.

## Bergara Hiria eta Udaberri Txapelketa, Udal Pilotalekuan

Bergara Hiriko emaitzak: promesetan, Egiguren/Garmendia 20-Gartzia/Artola 22; nagusietan, Ugalde/Martinez 22-Etxeberria/Aldape 7. Martitzenean, 19:30ean: Alberdi/Aizpuru-Anso/Eskiroz eta Peña/Olaizola-Urbieta/Arratibel. Gaur, berriz, Udaberriko lau partidu jokatuko dira (19:15).

## Eguenera arte eman daiteke izena Pol-Polen 24ko irteeretarako

Beteranoek Lagran-Cervera-Samaniego ibilbidea –15 kilometro– egingo dute, Araban . 20 euro da parte hartzeko. Gazte taldeak, berriz, Arantzazu-Elgea-Andarto-Urkulu-Aretxabaleta ibilbidea egingo du. 12 euro ordaindu behar da. Izena, bulegoan, egubakoitz, astelehen edo eguen, 19:00etatik 20:00etara.

## LABEGARAIETA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| River City-Sanpe United | **10-5** |
| America-Estrella Coja | **2-7** |
| Vodka Juniors-SVC | **2-11** |
| Komando Piperrak-Poteo Izarrak | **15-5** |
| Arrano Zabalik-Birgerias | **5-9** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **1** | Estrella Coja | **39** | **15** |
| **2** | Komando Piperrak | **33** | **13** |
| **3** | River City | **32** | **15** |
| **4** | Errefuxa | **30** | **15** |
| **5** | Poteo Izarrak | **23** | **14** |
| **6** | America | **23** | **14** |
| **7** | Birgerias | **18** | **14** |
| **8** | Arrano Zabalik | **15** | **15** |
| **9** | Vodka Juniors | **13** | **14** |
| **10** | Sanpe United | **9** | **14** |
| **11** | HIS | **9** | **14** |
| **12** | SVC | **7** | **15** |

**PARTIDUAK**

Apirilak 16, zapatua

**17:30** Poteo Izarrak-Vodka Juniors / **HIS**
**18:30** HIS-Sanpe United / **Vodka Juniors**

Apirilak 17,domeka

**17:00** Birgerias-SVC / **River City**
**18:00** River City-America / **SVC**
**19:00** Arrano Zabalik-Errefuxa / **Estrella Coja**
**20:00** K. Piperrak-Estrella Coja / **A. Zabalik**

## OHARRAK

**ESKUBALOIA**

Bergarak Egia hartuko du domekan 11:30ean Labegaraietako kiroldegian.



BETI BUSTI

# Hiru domina Espainiako Kopan

Irunen jokatu zen asteburuan Espainiako Kopako bigarren jardunaldia, kadeteetan. Iker Mansok eta Unai Otaduik C2an eta Miren Murgizuk K1ean hirugarren egin zuten, eta Murgizuk berak bigarren C1ean.



SHOTOKAN

# Shotokanekoak Euskadirekin

Shotokaneko Unai Nogales eta Aritz Sabalza hurrengo asteburuan Murtzian jokatuko den kumite modalitateko Espainiako Txapelketarako deitu ditu Euskadiko selekzioko hautatzaileak.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

play&say
San Martin Agirre herri eskola

Uztailean, diberti zaitez ingelesez.
3 eta 12 urte bitarteko umeentzako udako ikastaroak
DATAK : Ekainak 27-Uztailak 29
ORDUTEGIA: 10:00–13:00. Nahi izanez gero (09:00–10:00) doaneko zaintza zerbitzua.
LEKUA: San Martin Agirre eskola
INFORMAZIO GEHIAGO: 943 76 26 29 // bergara@playandsay.org
Anima zaitez!

# "Igerilekuak bi kale gehiago izatea jasotzen duen proiektua dugu"

▸ Herriko kirol eragileekin aztertu gura dutela adierazi du alkateak

▸ Atez atekoa, txantxiak, obrak eta zarata ere izan ditu hizpide 'Harira'n

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udalak esku artean dituen hainbat proiekturen gaineko azalpenak eman zituen Mikel Biain alkateak martitzenean Goiena telebistako *Harira* saioan. Aipatu zuen, adibidez, kale garbiketa zerbitzuaren erabakia bide onetik doala. "Zerbitzua era duinean emateko eta hobea izateko hartu dugu udalaren esku pasatzeko erabakia. Lanketa handia eskatu du prozesuak. Langileen ordezkariekin harremanetan gaude eta dagoeneko adostu dugu plegua. Asmoa da apiril bukaeran edo maiatz hasieran onartzea plegua", argitu du alkateak.



Mikel Biain, Goiena telebistako *Harira* saioan | GOIENA

**Inbertsioak**

Bestalde, azken osoko bilkuran eztabaida sortu zuen gaiaren inguruko azalpenak ere eman zituen Biainek. Udalbatzak onartu zuen aurrekontuetan jaso ziren proiektu batzuk, milioi bat euro, 2017ra pasatzea, diru faltagatik. EAJk aurkako botoa eman zuen, milioi bat gehiago pasa beharko zela esanez, egoera hori "udalaren planifikaziorik eza" dela argudiatuz eta "ekidin zitekeela" gaineratuz. Alkateak *Harira* saioan azaldu zuen 2015eko exekuzio maila ia %87koa izan dela. "Iazko exekuzio maila oso ona izan da, baina gura izan dugu plan ekonomiko finantzarioa egin barik, partida batzuk 2017ra pasatzea, tartean ekipamendu sozialetarakoa. Zubillaga eraberritzeko proiektuan fase merkeena egingo da aurten eta udaletxearen berokuntza inbertsioa 50.000 euro txikiagoa izango da", azaldu du Biainek. Udalaren osasun ekonomikoa ona dela ere aipatu zuen: "Historikoki zorpetze maila baxuena du egun Oñatiko Udalak".

**Aparkaleku sistema**

Zubikoa kiroldegia berritzeko eta igerilekua handitzeko proiektuaren lehen zirriborroa jaso du Udalak, eta, zehaztapen batzuk egin ostean, bigarren proiektu baten zain daudela adierazi du Biainek. "Proiektu horrek jaso du, adibidez, igerilekuak bi kale gehiago izatea. Baina posible da bestelako aukerak ere egotea. Bigarren zirriborroa jasotakoan ikusi eta aztertu beharko da zer egin. Maiatzaren lehen hamabostaldian jasoko dugu eta herriko talde eta kirol eragileekin aztertu gura du, zer egin erabakitzeko", azaldu du alkateak.

Atzeko kaleko bigarren zatia konpontzeko lanen gainean, hormigoia erabiliko dela argitu zuen alkateak, granitoaren ordez, "lehendik eginda dagoen zatiaren berdina izan dadin bigarrena". Corpus jaien ostean hasiko dituzte lan horiek. Mugikortasun planaren barruan, hirigune historikoan lehentasuna oinezkoei ematea da asmoa eta obra horiek txandakako aparkaleku sistema ekarriko dute. "Oraindik ez da zehaztu eremua, baina tiket bidezkoa izango da. Enkarguak edo bestelako zereginak egiteko denbora muga bat jarriko da eta tarte horretan doan izango da gune horietan aparkatzea", argitu du. Bide batez, Obispo Otadui eta Lizaur kaleek ere azterketa eskatzen dutela aipatu zuen.

**Zarata eta atez atekoa**

Zarataren arazoaren aurrean zer egin behar duten galdetu zion herritar batek alkateari, eta, horri erantzunez, aitortu zuen Kale Zaharretik jaso dituzten kexei irtenbidea ematen ez dutela asmatu. "Baina guk dugun arautegia eta gai honen inguruko legea uztartuz, zarataren gaineko ordenantza berria lantzen ari gara, kalerako zein industria-guneetarako, herritarrek atseden hartzeko duten eskubidea bermatzeko", esan du.

Etxaluzeko parkearen egoeraren gainean, adierazi zuen nabarmena dela konpondu beharra duela, baina bizilagunekin batera egin gura dituztela lanak; zorua iragazgaitz bihurtzeko lanak garajeen jabeek ordaintzea eta gainerakoak udalak. Alde bien arteko lehen bilera egin dute dagoeneko. Olakuako urmaelaren gainean, berriz, urmaela bera eta ondoko jolas parkea berritzea proiektu baten batu eta landu gura dituztela adierazi du.

Txantxien proiektuak uste bezain besteko emaitza onik ez eman arren, aurrera jarraitzea erabaki dutela azaldu zuen: "Merkatariekin batera hartutako erabakia da hori". Atez ateko sistemari buruz, berriz, hauxe esan du: "Sistema ona izan arren hobetu daiteke eta horren gaineko ebaluazio prozesua abiaraziko dugu 2017an, sistemak herrian ze asebetetze duen ikusteko".

## Arrikrutzeko lehoiaren garaiko kontuak zapatuan

Larunbat honetan, Pleistozeno garaiko Euskal Herriaz jardungo du Asier Gómez paleontologoak Arrikrutzen, 10:00etan. Orain milaka urte, gure inguru hauetan zegoen paisaia eta bertan bizi zirenak gerturatuko ditu. Lehoi, hartz, errinozeronte eta bestelakoak desagertu zirenetik milaka urte igaro diren arren, beraiek utzitako aztarnekin nola lan egiten duten azalduko du.

## Uda kanpainako izen-ematea datorren astean egin behar da

Udaleko kirol sailak egin du aurtengo udako eskaintza eta datorren astean egin behar da izen-ematea. Orriak astelehenean, martitzenean eta eguaztenean jasoko dituzte kiroldegian, eta eguenean egingo da zozketa. Behin betiko izen-ematea hilaren 25etik 29ra bitartean egin beharko da, bakoitzari egokitu zaion orduan eta tokian. Eskuorriak kiroldegian har daitezke.

## Erraustegiaren aurkako ekintza egiteko bilera

Oñati Zero Zabor taldeak deituta, bilera egingo dute, astelehenean, erraustegiaren aurkako ekintza bat prestatzeko. "Erraustegiak aurrera egin ez dezan denon laguntza eta konpromisoa beharrezkoa izango da eta egun bateko erraustegiaren aurka egiteko laguntza eske gatoz. Ekintza antolatu eta Oñatin jendea batzeko bilera izango da", dio Oñati Zero Zaborrek. Euskaldun Berria gelan da bilera astelehenean, 19:00etan.




ILUNPETAN

## Ados, erabakitzeko eskubidean

Jon Maiak eta Iñaki Zarraoak erabakitzeko eskubidearen gainean jardun dute, eguaztenean, Erein Degabagoiena ekimeneko Oñatiko taldeak gonbidatuta. Kultura etxeko aretoa bete egin zen ia. Biek oinarrizko eskubidetzat jo dute erabakitzekoa, independentziaren alde egon edo ez.



UDAL EUSKALTEGIA

## Maskarada ikusten egon dira

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiak antolatuta, 45 lagun joan ziren hilaren 10ean Zuberoako Sohüta (Hoki) herrira, maskarada ikustera. Hango herri bazkarian izan ziren, gainera, 35 lagun. Roberto Altunak azaldu duen moduan, bidaia atsegina izan eta primerako eguna pasa zuten.



Herriko artista gaztetxoen erakusketa zabalik dago kultura etxean. | IÑIGO BIAIN

# Gaztetxoen alderdi artistikoena ikusgai kultura etxean

Maira Jimenezen ikasleek egindako margolanen erakusketa zabalik dago datorren astera arte

MAIDER ARREGI | OÑATI

Paisaiak, animaliak, natura bizia, lan abstraktuak... askotariko lan koloretsuak batzen dituen erakusketa zabalik dago kultura etxean apirilaren 24ra arte (18:00etatik 20:00etara).

Baina ez dira edonolako lanak: bost eta hamahiru urte arteko gaztetxoek egindakoak dira. Benetan "lan ederrak eta ikusgarriak" direla diote bertatik pasatzen diren herritarrek.

Maira Jimenez bergararra da irakaslea. "Etortzen diren gaztetxoak ondo pasatzera datoz pintura ikastarora. Pintura zer den ikastera datoz; baina euren alderdi artistikoa garatzera eta artea barrutik kanpora ateratzera ere badatoz", kontatu du Jimenezek. Eta alderdi artistiko hori pixkanaka badoala azaleratzen gaineratu du: "Teknika ezberdinak landu eta ikasten ditugu; modu horretan pixkanaka gaztetxoek alde artistikoa kanporatzen dute". Marrazketa asko lantzen dutela ere azaldu du; eta gero, marrazketa lan hori egindako koadroetan islatzen dutela.

**Erakusketa, gazteak saritzeko**

Bi urte daramatza Jimenezek Oñatin irakasle: "Oso pozik nago. Hasiera batean, lanak etxera eramateko egiten dituzte. Baina, emaitza ikusita, erakusketa egitea merezi duela uste genuen. Eurendako saria dela nabarmendu du. "Oso pozik daude eta euren autoestimuan eragin positiboa dauka. Izan ere, egindako lanaren emaitza modu horretan erakustea saritzat hartzen dute".

## Oñatik Emakumeen Bira hartuko du 2019an

E.A. | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak Iurretako Emakumeen Bira kirol elkartearekin hitzarmena sinatu ostean, antolatzaileek konpromisoa hartu dute etapa bat aurten eta ondorengo hiru urteetan Debagoieneko herriren batean egiteko. Horren truke, Mankomunitateak diruz lagunduko du proba. Aurtengo edizioan Eskoriatzan izan da, hain zuzen. Datorren urtean Antzuolan izango da, 2018an Aretxabaletan eta 2019an Oñatin.

Aurten 9.000 eurokoa izan da ekarpena eta datozen urteetan 12.000 eurokoa izango da. Mankomunitateak jarritako diru hori herrien artean banatzen da. Hala, etapa hartzen duen herriak diru kopuru handiena ordainduko du eta tarteko helmuga hartzen dutenen eta Mankomunitateko gainontzeko herrien artean banatuko da geratzen den dirua.

Oñatiko udalak 2016-2019 artean 9.196 euroko ekarpena egingo dio Mankomunitateari, hitzarmena gauzatu ahal izateko.



Agirre. | DONOSTIAKULTURA.COM

## 'Putinen guardasola' ekarriko dute etzi gaztetxera

O.E. | OÑATI

Musikaz eta antzerkiaz gozatzeko ekitaldiak antolatu dituzte asteburu honetarako Antixena gaztetxean.

Domekan, esaterako, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreak etorriko dira *Putinen guardasola* antzezlanarekin. Asier Sotak zuzendutako lan honetan, Ray eta Nik izeneko bi musikari dira Agirre eta Tolosa. Lehendakariak euskaldun guztiak batuko dituen ereserki bat egin gura du, eta bilera luze baten ostean erabaki dute lan hori bi musikari horiei enkargatzea. *Xentimorik gabe* eta *Koka Kola eta barea* antzezlanetan bezala, honetan ere musika eta umorea eskainiko dute, zuzenean, aktoreek.

Domeka arratsaldean izango da antzezlana, 18:00etan.Sarrerak dagoeneko salgai daude, bost eurotan, Txokolateixian eta Arrano eta Ona tabernetan.

**Kontzertuak**

Gaur, egubakoitza, eta bihar, berriz, musika zuzenean entzuteko aukera egongo da gaztetxean. Gaur, Hartzak Blues Band eta Flyshit taldeek joko dute. Sarrera hiru euro da. Eta bihar, beste bi talde: Melmak eta Meido.

Kontzertu biak 22:00etan hasiko dira Antixena gaztetxean.

## Udaltzaingoan pilatu dira kalean topatutakoak objekxtuak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herritarrek ohitura dute kalean topatutako arropak edo objektuak udaltzaingora eramateko, eta hantxe daude, pilatuta. Arropak, patineteak, giltzak eta betaurrekoak daude, adibidez, jasotako gauzen artean.

Galdutako arropa eta objektu horiek udaltzainen bulegoan daude ikusgai eta han egongo dira apirilaren 18ra arte, astelehena arte. Behin egun hori pasata, jaberik ez duten arropak Hermansoloña edo Remar elkarteei emango dizkiete. Betaurrekoen kasuan, herriko optiketara eramaten dira, Saharara bidali daitezen, eta telefono mugikorrak enpresa espezializatu batera bidaltzen dira deuseztatzeko.



Jasotakoa. | ONATI.EUS

## Beteranoen txapelketa azken txanpan sartuta

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Herriko futbol txapelketako denboraldia bukatzear da dagoeneko.

Aurreko astean kopako bi final-laurden jokatu ziren eta Txuskos eta Dollygan's taldeek egin zuten aurrera.

Txuskos 0-3 nagusitu zitzaion Kili-kolori eta Dollygan's-ek penaltietan (4-1) kanporatu zuen Shatoken Moura, partidua bana bukatu ostean.

Asteburu honetan kopako beste bi final-laurden eta ligako bi finalaurreko jokatuko dira: batetik, kopan, Sasquatch-Joxely eta Auschwitz-Bundeswehr. Bestetik, ligan, Zalaparta-Etxaixat eta Kalañatasaray-Albok.

**Zalaparta, talde onena**

Fase erregularra lehenengo postuan amaitu du Zalapartak, bere lehenengo denboraldian.

Hamabi partidu jokatu dira eta bederatzi garaipen, bi berdinketa eta porrot bakarra erdietsi du talde gazteak.

Sanmigeletako zazpiko txapelketan nagusi izan ziren eta orain liga irabaztea dute xede.

### Haurrendako antzezlana egongo da domeka arratsaldean Santa Anan

*Martina eta paperezko basoa* antzezlana egongo da Santa Ana aretoan domekan, 17:00etan. Haurrendako antzezlana da. Martina paperezko neskatoa da eta kartoiz egindako etxe batean bizi da. Behin batean, tximeleta baten atzetik zihoala, basoan galdu zen, baina lagun berezi-bereziak aurkitu zituen, eta zirraraz beteriko bidaia egin zuten.

### Jurgi Ekizak zuzenean joko du Pako tabernan domeka iluntzean

Jurgi Ekizak, Willis Drummond taldearen etenaz baliatuz, bakarkako ibilbideari ekiteko erabakia hartu, eta hamar abestiz osatutako diskoa argitaratu berri du. Domekan zuzenean entzuteko aukera egongo da, Pako tabernan, 19:30ean. Gitarra eta loopera izango ditu alboan, besteak bere, Juri Ekizak.

### Erakustaldi berezia egingo dute herriko gimnastek 30ean

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko sailak 25. urteurreneko ospakizuna egingo du apirilaren 30ean. Ekitaldi horretan, koreografia labur eta polit bat egin gura dute gimnasta izan direnekin, eta deia zabaldu dute apuntatzeko. Gimnasta ohiak, beraz, Aloña Mendirekin harremanetan jar daitezke.

### Añanako irteerarako izena eman behar da Natur Eskolan

Natur Eskolak antolatuta, Añanara egingo da irteera hilaren 24an. Ingurumen jardunaldien barruan antolatutakoa da eta egun osoko irteera izango da, 08:00etan postetxetik abiatuta. Autobusean joango dira, eta komeni da izena aurretik ematea, plazak mugatuak dira eta. Bideak dira: *natureskola@yahoo.com* edo 943 71 64 04.

### Hitzaldia, tailerra eta dokumentala burujabetzari buruz

Oñatiko Ortuzabala Kontsumo Taldeak jardunaldiak antolatu ditu Elikadura Burujabetza izenburupean, eta egitarau horretan sartzen da gaurko hitzaldi-tailerra, 18:30ean: *Elikadura burujabetza eta ekonomia feminista: elkar hezitzea*. Martitzenean, 19:00etan, *Bide berriak* dokumentala botako dute. Biak dira kultura etxean.

# Jarduera sustatzeko egitasmoa jarri dute abian

## 'Mugi Atxabalta' aurkeztu dute Udalak eta Osasun Sailak eta orientazio bulegoa jarriko dute Durana kalean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herritarren artean jarduera fisikoa bultzatzeko helburu duen *Atxabalta Mugi* egitasmoa aurkeztu dute astean. Eusko Jaurlaritzak, Debagoieneko ESIk (Erakunde Sanitario Integratua) eta Udalak egin dute bat horrekin eta elkarlanean jardungo dute.



Mendizabal, Artzelai, Lamariano, Elkoro, Aiastui eta Muxika, martitzenean. | M.A.

**Sedentarismoa gutxitu**

Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Mugiment proiektu barruan dago *Atxabalta Mugi* eta hori aurkezteko elkartu ziren martitzenean, Arkupen, Jon Lamariano, Osasun Publikoko koordinatzailea; Andoni Artzelai, Debagoieneko ESIko gerentea; Unai Elkoro, alkatea; Asier Muxika, Udaleko kirol teknikaria; Mirari Aiastui, Udaleko gizarte laguntzailea; eta Goizane Mendizabal, osasun etxeko erizaina.

Gizarte aktiboagoa sortzeko abian jarritako ekimena da Mugiment, jarduera fisikoaren praktika areagotzeko eta sedentarismoa gutxitzeko asmoarekin. Eta hainbat sektore dabiltza elkarlanean, Osasun departamentua eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura departamentua, besteak beste. Jaurlaritzak 2013-2020 Osasun Plana dauka zehaztuta eta lehentasunen artean bizitza ohitura osasungarriak sustatzea du. Horretan udalen inplikazioa ezinbestekotzat jo zuen Osasun Publikoko koordinatzaileak.

**Orientazio bulegoa**

Dagoeneko hiru bat hilabete daramatzate lanean Aretxabaletan, eta lehen pausoa izan da Mugisare edo tokiko sarea sortzea. "Mahai egonkor bat da eta hemen elkartutako guztiok gaude ordezkatuta: osasun etxea, Debagoieneko ESI eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kirol Saila, besteak beste", argitu zuen kirol teknikariak.

Elkarren artean plan bat osatu dute eta zehaztu 2016an abian jarriko dituzten urratsak. Lehenengoa izango da aretxabaletarrek jarduera fisikoaren inguruan dituzten ohiturak zeintzuk diren ezagutzea. Horretarako 553 inkesta (Osasunaren Mundu Erakundeak homologatuak) egingo dituzte kalean, MUko ikasleen laguntzarekin.

Bigarren urratsa izango da orientazio bulego bat irekitzea. Durana kalean, Murrukixo mendizale elkarteak bulegoa duen lokal berean, egongo da hori: "Herritar guztiei egongo da zabalik bulegoa, baina bereziki izango da osasun etxetik eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik bideratutakoendako", adierazi du Muxikak. Aholkularitza zerbitzua jasoko dute guztiek han.

**Sentsibilizazio ekintzak**

Beste ekimen batzuk etorriko dira ondoren, sentsibilizazio ekintzak, esaterako. "Oraindik zehaztu barik ditugu ekitaldiak eta datak, baina asmoa da sortzea korrika taldea, oinezkoen taldea eta nordic walking taldea, besteak beste. Eta Mugi Eguna ere egingo dugu", argitu du kirol teknikariak. Izan ere, herriko kirol arduradunek uste dute kirol jarduera bultzatu izan dela beti, eta orain, jarduera fisikoa sustatzen jarri gura dituzte indarrak.

### OHARRAK

**GAZTEEN BATZARRA**

Gazte Ekimeneko kideek batzarra egingo dute herriko gazteekin gaur, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Inkesta egin dute gazteen artean, eta emaitzak aurkeztuko dizkiete.

**KUKU MIKUKO KIDEEN BATZARRA**

Kuku Miku elkarteko kideek batzarra egingo dute bihar, zapatua, 10:30ean, egoitzan, zehazteko ikasturte bukaera arteko kontuak eta ekintzak. Bestetik, apirilaren 22an Sabeletik Mundura elkartekoen eskutik, *baby led weaning* edo elikadura autoerregulatuaren inguruko hitzaldia izango dute. 18:00etan da, Kuku Mikun.

### Alkateari elkarrizketa datorren martitzenean 'Harira' saioan

Unai Elkoro alkatea Goiena Telebistako *Harira* saioan izango da martitzenean, apirilaren 19an, 22:00etan. Eneko Azkarate kazetariak elkarrizketatuko du eta ikus-entzuleek ere izango dute galdera egiteko aukera: Whatsapp bidez: 688 69 00 07; posta elektronikoz: *berriak@goiena.eus*; eta Goiena App bidez galdera bidalita.

## Espainiako II. Errepublika izan du gogoan Irabazik, pertsonen "eskubideak aldarrikatuz"

M.A. | ARETXABALETA

Atzo, apirilak 14, bete ziren 85 urte Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zela, eta udaletxeko balkoian bandera more, gorri eta larua jarri zuten, beste urte batzuetan egindako legez.

Aretxabaletako Irabazi taldeak ondo gogoan izan du urteurren hori: "1931ko apirilaren 12ko Udal hauteskundeek ezker errepublikaren koalizioari garaipena eman zioten, eta hala, bi hamarkadatan izandako abusuak eta errepresioa bukatu ziren", jakinarazi du Luis Gomezek, Irabaziko zinegotziak, eta gaineratu: "Langileria eta talde ahulak kontuan hartzen hasi ziren eta historiako aldaketarik handienak izan ziren orduan politika solidarioei, hezkuntzari, osasungintzari eta emakumeei dagokienez, besteak beste".

**Siriarrak gogoan**

Errepublika gogoan dutela gaur egun Europan hainbat lagunek bizi duten egoera salatu du Gomezek: "Irabaziko eta Ezker Anitzako kideok uste dugu abusu handia dela batzuek irabaziak lortzea beste batzuen kontura; Nazio Batuen Erakundeak ere argi eta garbi dio pertsona guztiak direla libre eta berdin", eta gaineratu du: "Europako azken gertakariak eta gobernuek hartutako jarrerak ez dira egokiak. Siriarrek, batez ere, emakumeek eta umeek, bizi duten egoerak argi utzi du gobernuek behin eta berriz jarraitzen dutela pertsonen eskubideak eta askatasuna zapaltzen".

Era berean, hainbat alderdiren eta politikariren jarrera salatu gura izan du: "Gobernu ezkertiarra sortzeko aukerak zapuzten dabiltza. Historia errepikatzen dabil".




# Agintaldirako hirigintza plangintza egin gura du EH Bilduk

▶ Baliabideak eta beharrak aztertuko dituzte, eta mugikortasun plana zehaztu

▶ Udal gobernuari aurkeztu diote eta hark "begi onez" hartu du proposamena

M.A. | ARETXABALETA

Agintaldia hasi zenetik hamar hilabete pasatu ondoren hirigintza kontuen gaineko hausnarketa egin du EH Bilduk: "Herrian hainbat gaik eskatzen dute hausnarketa eta erabakia hartzea; kuartel zaharrak, esaterako", argitu du Pedro Mendietak. Basotxo erretiratuen egoitza dagoen eraikinean zer egin ere erabakitzeko dagoela diote, baita agustindar mojen komentuan ere. Era berean, udaletxeak berak hainbat "muga eta behar" dituela gogorarazi dute.

Osasun arloko eraikinetan eta hezkuntzari dagozkionetan ere badagoela "zer hausnartu" diote. Industriaren kasuan, industrialdea "hilerri" bihurtu dela uste dute, eta, Azbe eta inguruko eremuetara iniziatiba pribatuak hurreratu badira ere, epe motzekoak izanik horiek, "arriskutsuak" izan daitezkeela uste dute.

Hori horrela, Aretxabaletari norabide "berritzailea" eman gura diote: "Zelako Aretxabaleta gura dugun era integralean pentsatzeko une egokia da, inprobisazio arriskua alderatuz eta epe luzeko akordioak bultzatuz", diote.

**Mugikortasun plana**

Hori horrela, hurrengo lau urteetarako plangintza zehaztu dute. Lehenengo, herriko baliabideak eta beharrak aztertuko dituzte, lurrari eta etxebizitzei dagozkien baliabideak, besteak beste. Ondoren, mapak sortu gura dituzte zer eta non kokatu erabakitzeko, osasun arloko kontuak, etxebizitzak eta zerbitzuak, besteak beste.

Gero etorriko litzateke mugikortasun plana zehaztea: "Oinezkoen lehentasuna bermatzeko, aparkalekuak ondo antolatzeko eta garraio publikoari behin betiko irtenbidea topatzeko". Horrez gain, zona batzuetan planifikazio zehatzak egin gura dituzte, Santa Kurtz kalean eta Txarapean, esate baterako.

Agintaldi bukaeran hau guztia jasoko duen "plan orokor bat" martxan jarri beharko litzatekeela diote EH Bilduko kideek. Eta horretarako talde bat sortzea proposatu dute. Hor egongo lirateke



Albizu eta Mendieta. | MIRARI ALTUBE

ordezkari politikoak, Udal teknikariak eta kanpoko adituak. Era berean, herritarren parte-hartzea ere bultzatu gura dute.

Hau guztia dagoeneko aurkeztu diote Udal gobernuari eta "harrera ona" egin diote: "Onartu dute plangintza ona dela Aretxabaletarako. Datorren astean lantaldea sortuko da eta lanean hasi", argitu du Ion Albizu zinegotziak.

# Erain Debagoienak egubakoitzak girotuko ditu

## Sinadura bilketarekin jarraituko dute 1.000ra iritsi arte

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA
Poliki-poliki 1.000 sinadurara hurbiltzen dabiltza Erain Debagoiena ekimeneko kideak. Ekainaren 12an egingo duten herri galdeketari babesa emateko behar dituzte sinadura horiek, eta 866etik gora dituzte dagoeneko, Aretxabaletan. Sinadura bilketa horiek girotzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte datozen egunotan.

**Gaitariak eta D-Skarga**
Pagaldaixena hartu du kokaleku Erain Debagoienak azken hilabetean, eta datozen ekitaldi asko ere han egingo dituzte. Dena den, kale bazterrak girotzeko asmoa ere badute; gaur, egubakoitza, esaterako, herriko gaitariek jardungo dute kaleetan.

Hurrengo egubakoitzean, apirilaren 22an, ostera, herriko D-Skarga taldearen emanaldia izango da Pagaldaixenean; talde gaztea da baina eskarmentu handikoa dagoeneko. Eta apirila agurtzeko, hilaren 29an bakarrizketa saioa egingo du Ion Martinez *Txiki*-k.

Horrez gain, apirila bukatu artean pintxo-potea egiten jarraituko dute eguaztenetan, Pagaldaixenean.

# Manex Agirre, Xabi Igoa eta Martin Berrizbeitia bihar Urbaltzen

**M.A.** | ARETXABALETA
Bertsobar izenarekin ekitaldia antolatu du Lekaixoka bertso eskolak biharko, apirilak 16, eta Manex Agirrek, Xabi Igoak eta Martin Berrizbeitiak jardungo dute bertsotan Urbaltz elkartean; 13:00etan izango da.

**Ezohiko ekitaldia**
"Urteko egitarauaren barruan dago sartuta. Urte hasieran aurreikusi genituen ekintza ezberdinak, eta bertso saio ezberdin bat egitea pentsatu genuen. Otsailean bertso afaria egiten dugu; abendu aldean saio klasiko bat Arkupen; eta oraingo hau taberna giroko saio bat da. Gainera, ordutegia ere ezohikoa izango du; hala, gauean joan ezin dutenek aukera izan dezaten gerturatzeko", jakinarazi dute Lekaixokako kideek, eta gaineratu: "Tabernan izateak beti ematen dio informal ukitua eta zaletasun handia ez duena samurrago gerturatuko da".

Oraingoan bertako bertsolariekin egingo dute saioa, gertutasunagatik; Aramaioko bertso eskoletako Agirrek eta Igoak eta Lekaixokako kide den Berrizbeitiak jardungo dute. Eta Lekaixokako gainerako kideek gaiak jarriko dizkiete.


BASOTXO

# Basotxoko kideak Benidormen

Benidorm aldean ibili dira, ederto ibili ere, Basotxo erretiratuen elkarteko 23 lagun. Valentziara egun pasa ere joan ziren (argazkian): "Arte eta zientzien hiria, akuarioa, museoa, alde zaharra... ikusi genituen, baita paella dastatu ere Fallen gaineko museoan". Benetan egun polita pasatu zutela gaineratu dute.

NIRE USTEZ

**PALOMA MARTINEZ**



## Zapia integra dezakegu?

Orain dela hilabete bat edo, neska musulman bati buruz hitz egiten ari ginen emakume talde bat eta horrelakoak esan genituen haren gainean: "Zein ondo integratua dagoen, zapia ez du erabiltzen, tantaia jasotzen egon zen…". Pozik eta gustura sentitu ginen horrelako *eredua* ikusiaz.

Hortik egun batzuetara zapia daraman neska musulman batekin geunden hitz egiten beste emakume talde bat (euskaldunak, mexikar bat eta marokoar bat euskaraz hitz egiten!) eta bat-batean konturatu nintzen zapia zeramalako ez nuela hain integratua sentitu; "zapia kenduko balu…". Egun hartatik hona burutik kendu ezinik dauzkat hainbat galdera: Zer da integrazioa? Nork egiten du integrazioa, etorkinok bakarrik? Zer utzi behar dugu etorkinok integratuak egoteko? Itxura aldatu barik integratu gaitezke?

**"Zer utzi behar dugu etorkinok integratuak egoteko?"**

Aretxabaletara heldu nintzenetik gaur egun arte integrazioaren alde hainbat pertsonekin batera lan egiten dihardut. Hala eta guztiz ere horri buruz gero eta gutxiago dakidala iruditzen zait. Mendebaldeko estereotipoak oso barneratuak dauzkadala konturatzen ari naiz.

Zapia ez zaigu gustatzen, emakumeak gizonen menpe daudela adierazten duela sinistuak gaudelako. Zapirik gabeko emakumeok ere matxismoa ezagutzen dugu… Utz dezagun zapia alde batera eta integraziorako beste bide batzuk jorra ditzagun.

# Globalizazioaren gainean egingo du berba Juan Jose Ibarretxek

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohia etorriko da datorren martitzenean, apirilak 19, Arkupe kultura etxera, 19:00etan, eta globalizazioaren gainean jardungo du, euskaraz; hona hemen hitzaldiaren gaia: *Bidea eginez... Gizarte globala, erantzun lokala*. Udaleko Kultura Sailak antolatu du eta herritar guztiei dago zabalik.

Ekonomian lizentziatua eta zuzenbidean doktorea da Ibarretxe, eta gizarte globalari erantzun lokala zelan eman argituko du: "Globala denak lokala dena ezeztatzen duela dioen paradigma zaharra ez da bete eta eta paradigma berri batek hartu dio tokia: errealitate lokalak mugiarazten du mundua".


Juan Jose Ibarretxe. | GOIENA

**ARETXABALETAKO ALKATEA**

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | ALKATEEKIN ELKARRIZKETAK | UNAI ELKORO, ARETXABALETAKO ALKATEA
APIRILAK 19, 22:00ETAN |
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA:
**Whatsapp**: 688 69 00 07
**Posta elektronikoa**: berriak@goiena.eus
**Goiena app**: Galdera bidali



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Erantzun bikaina izan du laugarren Osasun Asteak

## Inplikazioarekin eta harremanekin bizitza osasuntsua lortzen dela azpimarratu dute aurtengo edizioan

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako laugarren Osasun Astean hainbat ekintza izan dira; guztiak, bizitza osasuntsuagoa eramateko asmoz. Beste urte batzuetan baino parte-hartze handiagoa izan da herritarren partetik; beraz, antolatzaileek balorazio oso positiboa egin dute.

Aurtengo gai nagusia diabetesa izan da, baina bestelako hainbat kontu ere landu dituzte tailerren, ikastaroen, hitzaldien eta ekitaldien bidez. Gainera, herriko txoko ezberdinetara eraman dituzte ekintzak: plazara, zaharren egoitzara, tabernetara, antzokira, ikastetxeetara... eta leku guztietan arrakasta izan dute. Honela adierazi du Rosa Lasagabaster Eskoriatzako kirol aholkulariak: "Balorazio esponentziala izan dugu. Ekintza guztietan jende ezberdina izan da, eta osasuna harremanetan dagoela ikusi dugu; ematen badugu, gero, bueltan dator. Gakoa jende ezberdinaren inplikazioan egon da, erantzuna bikaina izan da".



Imanol Ibarrondoren hitzaldian Zaldibar antzokia beteta. | IMANOL BELOKI

Hitzordu guztietatik aipagarriena Imanol Ibarrondoren hitzaldia izan da. Zaldibar antzokian 120 pertsona batu ziren, eta herritarrak oso gustura izan ziren bertan. Bestalde, zaharren egoitzan, *Recetando Sonrisas* antzerkian, barre egiteak osasunean eragina duela azpimarratu zuten, eta errezetarik onena maitasuna eta besarkadak direla.

### Datorren urteari begira

Zapatuan, Osasun Astea amaitzeko, ahotsaren osasunaren formakuntza izango da, eta dagoeneko 18 pertsonak eman dute izena.

Hurrengo ediziori begira bide bera jarraitu behar dela eta talde ezberdineko jendearen parte-hartzea bultzatu behar dela adierazi du Rosa Lasagabasterrek.



Jaiak prestatzeko bigarren bileran, kultura etxean batutakoak. | I.B

# Sanpedroak antolatzeko bilerak bide onetik doaz

## Hirugarren bilera apirilaren 18an, astelehenean, izango da, 18:00etan, kultura etxean

**I.B** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak San Pedro Jaiak antolatzeko bilera irekiak hasi ditu herriko hainbat elkarte, eragile eta norbanakorekin. Astelehenean bigarrena izan zen, eta bertaratu zirenek hainbat eskaera egiteko aprobetxatu zuten.

Arantza Unzueta kultura teknikariaren esanetan: "Lehenengo eguna, ekainaren 28a, bezpera, zehaztu dugu, baina zer kontratatu dugun ez dut esango, sorpresa izateko. Bestalde, txosnetan zer egongo den, Gorosarri plazako ikuskizunak, gazteendako ekitaldiak… komentatu ditugu, baina ideia berriak eskuratzeko jende gehiago etortzea ondo legoke".

### Hirugarren bilera

Hurrengo bilera irekia datorren astelehenean, apirilaren 18an, 18:00etan izango da, kultura etxean. Eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Udalak Eskoriatzako San Pedro jaiak antolatzen laguntzera.

## Ziklismoa eta Eskoriatza, batera Ibarraundin

Eskoriatza eta txirrindularitza uztartzen dituen erakusketan material ugari dago pilatuta Ibarraundin; mundu mailako txirrindularien maillotak, herrikoenak, argazki zaharrak, aspaldiko eta gaur egungo bizikletak... besteak beste. Bildutako materiala ikusgai egongo da domekara arte.



I.B



IMANOL SORIANO

## Erain Debagoienak lokala ireki du

Eskoriatzako Erain Debagoiena taldeak hilaren 8an ireki zuen ekainaren 12ko herri galdeketaren alde sinadurak biltzeko eta informatzeko lokal berria, herriko plaza aurrean, Jose Arana 19an. Inaugurazio ekitaldian, txistulariak, trikitilariak, musika eskolako abesbatza, bertsolariak... izan ziren giro ederrean. Gaur, 18:00etan ere lokala irekiko da sinadura bilketarekin jarraitzeko.




### 'Futbolariak eta printzesak' antzezlana izango da Zaldibarren

Jon Zubiaga eta Olatz Pagalday aktoreek parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko antzezlana taularatuko dute. Ikuskizuna Zaldibar antzokian izango da, domekan, 17:00etan, eta sarrerak hiru eurotan egongo dira salgai. Aukera dago aurrez erosteko, kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

### Sei Urte taldeak 'Ezpalak' diskoa aurkeztuko du gaur Inkernu tabernan

Sei Urte taldeak *Ezpalak* diskoren aurkezpena egingo du Inkernu tabernan. Atxorrotx kultur elkarteak antolatutako kontzertua 23:00etan hasiko da. Musika britainiarra ardatz izanda, pop-rockaren eremuan sailkatuta dauden arren, rock modernoagoa egiten saiatu dira lan berri honetan, disko trinko eta indartsuagoa lortzeko asmoz.

### Udalekuetarako begiraleak behar dituzte Txirikilakoek

Eskoriatzako udaleku irekiak uztailaren 5etik 22ra izango dira, eta begirale bila ari da Txirikila. Curriculumak entregatzeko azken eguna apirilaren 27a izango da, eta Tortolisen entregatu edo *txirikila@gmail.com* e-mailera bidali daitezke. Curriculumaz batera, datuak egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

# Belen Berasategi: "Eskerrik asko Alberto Elizburu bizilagunari"

## Sarasketa baserriko erreteilako lau bat zutabe berritu beharko dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Astelehen goizaldean –apirilak 11, 07:30 aldera– piztu zen sutea Irimo Goena auzoko Sarasketa baserrian. "Gertatu ahal zen gutxiena gertatu da eta... eskerrak! Parean suertatu zen bizilagunak kea ikustea, bestela... zorionez, dena susto ikaragarrian geratu da", kontatu dio Goienari Belen Berasategi senitartekoak. Izan ere, astelehen goizean hiru lagun zeuden lotan baserrian –ama-alabak eta zaintzailea–. "Nire amaginarrebak 90 urte ditu, eta susto galanta hartu zuen. Egia esan, suhiltzaileak eta anbulantzia berehala etorri ziren eta amaginarreba oso ondo artatu zuten. Benetan eskerrak eman nahi dizkiogu Igeribar baserriko Alberto Elizburu bizilagunari".

"Suhiltzaileak etorri zirenerako sutea itzalita geneukan. Nire senarrak, Jose Ramon Jauregik, badaezpada, mangera luzea etxe ondoan edukitzen du beti; eta horrek salbatu zuen baserria sugarretatik. Gu kalean bizi gara, eta, koinataren deia jaso bezain laster, berehala igo ginen sua itzaltzera".



Sarasketa baserriko ganbara zatia, erreta. | BEÑARDO KORTABARRIA

### Kalteak zenbatzen

Sua tximini ondoko zutabe batek hartu zuen, berotasunaren ondorioz. Perituak azaldu duenez, lau zutabe berritu beharko dira. Kalte materialak ez dira, baina, larriak izan eta bizilagunak onik daude.

# Aurten, Aiherrako umeak udalekuetara etorriko dira

## Uztailaren 1etik 14ra egingo diren udalekuetarako izen ematea astelehenean zabalduko da

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako Idolaz elkartea udalekuen kudeaketaz arduratuko da aurten ere. Eta Udalak Idolazekin daukan hitzarmena martitzeneko ohiko osoko bilkuran onartu zuten. Mikel Bargiela Hezkuntza eta Gazteria zinegotziak azaldu zuen Idolazek aurrez egin behar diren antolaketa lanen, begiraleen lanen eta guztia kudeatzeko tasen ardura izango duela. Aurten, baina, bereziak izango dira herriko udalekuak. Izan ere, gaztetxoen arteko senidetza indartzeko asmoz, aurten Aiherrako umeak etorriko dira udalekuekin gozatzera Antzuolara.

Udalekuetan izena emateko epea apirilaren 18tik 30era artekoa da. Eta aurten, Aiherrako umeak euren etxeetan jaso gura dituzten familia antzuolarrei ere dei egiten die Udalak.

Udalekuak uztailaren 1etik 14ra egingo dira eta Aiherrako umeak uztailaren 4an etorriko dira. Zortzi urtetik gorako umeak izango dira. Herriko udalekuetan, baina, Antzuolako 5 eta 12 urte arteko 193 umek daukate parte hartzeko aukera.

### Hainbat gai

Bestelako gaiak ere ekarri zituzten osoko bilkurara. Hala, onartuta geratu dira euskara bultzatzeko proiektu ezberdinei Udalak bideratu gura dien diru laguntzak. Eta aho batez onartuta Torresoroako Eguneko zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak solte erabiltzeko aukera. Aurrerantzean, dutxa edo arropak garbitzeko zerbitzua erabiltzeagatik soilik ordainduko dute erabiltzaileek.

Eta, bestetik, Alderdi Sozialistak Siriako errefuxiatuen bidalketa masiboen aurkako mozioa aho batez onartu zuten alderdi guztiek.

# Landatxope elkarteak batzarkide berriak ditu

Landatxopek zapatuko Batzar Nagusian aukeratu zituen hiru batzarkide berriak. Hala, aurrerantzean, idazkaria Pilar Etxaniz izango da, kontu-hartzailea Mari Karmen Larrañaga eta bokala Benanzio Tena. Presidentea ez da aldatuko, eta beste bi urtez Jesus Murumendiaraz izango da.



IMANOL SORIANO

### 'Ahotik bihotzera': ahozkotasunaren festa ospatuko da hirugarrenez herriko kaleetan, domekan

Ipuinen eta istorioen transmisioa bermatzeko asmoz jaiotako ekimena, *Ahotik bihotzera*, hirugarrenez egingo da domekan, apirilaren 17an. Eguerdiko ordu batean bertso-ipuin poteoa egingo dute herriko tabernetan barrena. 18:30ean, aldiz, Torresoroan jaialdiari jarraipena egingo zaio. Nahi duen orok parte hartu dezakeela azaldu dute Oihulari Clown taldekoek.

### Haurreskolan irailean hasteko asmoa dutenendako izen ematea maiatzean zabalduko da

Antzuolako haurreskolan irailean, urrian edo azaroan hasi gura duten umeek izena eman dezakete. Epea maiatzaren 2an zabalduko da eta maiatzaren 11ra arte egongo da zabalik. Eskaera orria haurreskolan bertan hartu daiteke. Edozein zalantza izanez gero haurreskolatik pasatzeko aukera ere badago: 13:30etik 15:00etara edo 943 786 015 telefono zenbakira deituz.

### Arrola mendizale elkarteak Batzar Nagusia egingo du eta batzarkide berriak aukeratuko ditu

Arrola taldeko Batzar Nagusia apirilaren 18an, astelehena, egingo dute, Olaranen, 19:00etan hasita. Bertan, 2015eko jarduera eta balantze ekonomikoari buruzko azalpenak emango dituzte. Aurten egin gura diren ekintzez ere hitz egingo dute. Eta batzarkideak aldatuko dira. Hala, boluntariorik ezean, zozketa bidez aukeratuko dira federatuen bitartez.

### Gazte mailako Uzarragako Txirrindulari igoera egingo da bihar, zapatua, arratsaldean

Antzuolako gazte mailako Uzarragako Txirrindulari Igoera egingo da apirilaren 16an, bihar. Peña Aiastuik antolatzen duen lasterketa 16:00etan abiatuko da Olaran etxearen ostetik. Helmuga, 18:00etan, Uzarragan izango du txirrindulari probak. Gogoratu Uzarragarako bidea itxita egongo dela tarte horretan.

## OHARRAK

**HERRIKO JAIAK**
Antzuolako jaiak uztailaren 14tik 17ra ospatuko dira. Hala, herritarren ekarpenak jasotzeko bi batzar egingo dira. Lehena gaur, gaztetxean, 22:00etan. Eta bigarrena martitzenean, apirilak 19. Olaranen izango da, 18:30ean, Udaleko Kultura batzordeak deitua.

**HITZALDIA**
Sendagaien erabileraz jardungo dute Olaranen hilaren 20an, 18:00etan. DYAko ordezkariak izango dira bertan.

**BIRPAGAKETAK ITZULTZEKO**
Birpagaketak itzultzeko eskuorriak jasotzeko aukera dago hilaren 18an eta 19an Landatxopen 16:00etatik 18:00etara. Lehen aldiz eskaria egingo dutenek eraman beharrekoa hauxe: bankuko kontuaren nazioarteko kodea, NA txartela eta Osakidetzako txartela.

**'ABIAN' PROZESUA**
Ezker abertzaleak ekin dion *Abian* prozesuaren hirugarren batzarra apirilaren 16an Olaranen egingo dute antzuolarrek, 11:30ean hasita.

**BILBOKO MANIFESTAZIOA**
*Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera* lelopean manifestazioa egingo da Bilbon apirilaren 17an. Antzuolatik autobusa egongo da eta 10:00etan autobus geltokitik irtengo da. Izena emateko aukera Aitz Garbi tabernan dago.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

# Mendeurreneko ekitaldien inaugurazioa bihar egingo dute

Bizente Goikoetxearen estatua eraberritu egin dute; plaka bat jarriko diote alboan, musikariaren omenez

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Apirilaren 9an bete ziren ehun urte Bizente Goikoetxea apaiz eta konpositore aramaioarra hil zela. Hura gogora ekartzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte; bada, bihar, zapatua, inauguratuko dituzte mendeurreneko ospakizunak.

Bañera parkean egingo dituzte ekitaldiak –eguraldiak laguntzen ez badu kultura etxean izango dira–. 18:00etan hasiko dute inaugurazioa.



Estatua eraberritu egin dute; eguenean, hainbat langile eta herritar ingurunea txukuntzen. | ARANTZAZU EZKIBEL

**Bizitza, bertsotan**

Bizente Goikoetxea abesbatzak bi kanta abestuko ditu: Bizente Goikoetxearen omenezkoa bat eta *Salve Regina* bestea. Azken hori Goikoetxearen obra da.

Herritar askok parte hartuko dute ekitaldian. Manex Agirrek bertsotan abestuko du Goikoetxearen bizitza; emanaldian Larraitz Arriolabengoa piano-jolearen laguntza izango du. Ondoren, Lierni Altuna alkateak eta Igone Martinez de Luna Aldundiko kultura, euskara eta kirola diputatuak hitz batzuk esango dituzte.

**Plakaren irekiera**

Goikoetxearen omenez egindako eskultura garbitu egin dute. Bihar zabalduko dute, herritar guztiek ikus dezaten. Gainera, plaka bat jarriko diote oinean; Lorenzo Askasibarrek zabalduko du plaka. Askasibar elgetarra Goikoetxearen eskultura egin zuen artista da –1954ean egin zuen–. "Nor izan zen Goikoetxea, noiz jaio zen, ze lekutan... hori guztia jarriko du plakan", azaldu du Cristina Etxenausia kultura zinegotziak. Etxenausia pozik dago Askasibar inaugurazioan egongo delako: "24 urterekin egin zuen eskultura; egun, Gasteizen bizi da Askasibar", dio, eta gaineratu du: "Eskultura konpontzen lagundu digu, lurra apurtuta zeukan eta". Ondoren, aurreskua dantzatuko diote eskultoreari eta opari bat emango diote.

**Hiru abesbatzaren emanaldia**

Azkeneko zatia abesbatzen txanda izango da. Elai gazte abesbatzak hiru abesti abestuko ditu; Papargorri eskolaniak bi abesti; eta Bizente Goikoetxea Abesbatzak, Elai Gazte Abesbatzak eta Papargorri eskolaniak elkarrekin Goikoetxearen *Karmengo ama* abestuko dute. Ondoren, luntxa egongo da.

Biharko ekitaldiarekin, urte osoko egitaraua inauguratuko dute. Hurrengo ospakizuna ekainaren 18an izango da: Araba Abesbatzak eta Camerata Gasteizek kontzertua eskainiko dute parrokian.



AMAIA TXINTXURRETA

## Aramaiorrak Kantarin izan dira

Joan zen zapatuan eta domekan Kantariko saioak grabatu zituen Goiena telebistak, Arrasateko Amaia antzokian. Han izan ziren Aramaioko taldeak ere. Bi saiotan parte hartuko dute kantari aramaioarrek. Saio bat maiatzaren 28an, zapatua, estreinatuko dute, 9:00etan; eta beste saioa ere egun berean estreinatuko dute, 10:30ean. Saioen errepikapenak egongo dira Goiena telebistan.

## Apirilaren 18tik aurrera egin daiteke aitorpena ogasun bulegoan

Aurtengo kanpainarekin %8,8 gehiago biltzea aurreikusi du Arabako Foru Aldundiak

**A.E.** | ARAMAIO

Arabako Aldundiak martxan du pertsona fisikoen 2015eko errentaren kanpaina. 112.308 zergadunek etxean jaso dute aitorpena eginda; horiek apirilaren 6tik aurrera kobratu dute –Ogasunak konpromisoa hartu du gehienez ere 48 orduan itzultzeko dirua–.

**Errenta bulegoan egiteko**

Errenta aitorpena ogasun bulegoetan edo finantza erakunde, aholkulari bulego edo kudeatze agentzia laguntzaileetan egingo duten zergadunek apirilaren 18tik ekainaren 16ra arteko epea izango dute horretarako. Horiek Ogasunak Gasteizen duen egoitzara eta Laudion eta Guardian dituen bulegoetara jo beharko dute; salbu eta ekonomia jardueretan dihardutenek, beren ohiko etxebizitza 2015ean saldu dutenek edo ekitaldian zehar higigarrien hiru salmenta eragiketa baino gehiago egin dituztenek. Hitzordua eskatu beharko dute: Internet bidez, *www.araba.eus* helbidera idatzita; telefonoz, 901 50 40 30 deituta; edo bertatik bertara informazio puntuetan –Gasteiz –Samaniego kalea–, Kanpezu, Murgia, Oion eta Agurain–.

Aurtengo kanpainarekin %8,8 gehiago biltzea aurreikusten du Aldundiak. Interes tasa jaitsi izana, funtzionarioek aparteko ordainsaria berreskuratu izana eta BGAEetatik gehiago berreskuratu izana dira aurreikusten den gorakadaren arrazoiak. "Arabarren erosteko ahalmenak gora egin duela pentsarazten digu", azaldu zuen prentsaurrekoan Jose Luis Cimiano ogasun saileko diputatuak kanpainaren aurkezpenean.

NIRE USTEZ



**XABI IGOA**

## Papera eta paperak

P..pa…padel, pagatu, pailazo, Panama… paper:

iz. 1. Landare-zuntzezko orea hedatuz eta lehortuz egiten den materiala, orri oso meheen itxura ematen zaiona eta idazteko, inprimatzeko, biltzeko, etab. erabiltzen dena.

Eta beste batzuen artean: -(EN) PAPERA(K) EGIN. Itxura(k) egin. Ergel-papera egiteaz aspertuta dago. Zintzoaren paperak eginez dabil. Edo adibidez, Imanol Ariesek *Cuentame como paso* telesailean egiten duena. Edo batek daki zein aktorek Almodovarren gidaritzapean egiten duena. Edo bi hauek Panaman dituztenak…

Itxuran, egiten dituzten mugimendu horiek guztiz legalak diren arren, etikoki zuzenak ez direla gizartearen gehiengoak onartuko duela uste dut. Edo hala beharko luke behintzat.

Soria ministroaren barne kontzientziak (halakorik baldin badu) ordea, kongresuan ez duela zertan azalpenik eman esaten dio. Kovacevic-ek nik dakidala ez du ezer esan eta Bertin Osbornek aukeran, hobe luke isilik egon balitza.

Baina paperen kontuarekin jarraituz, ez al da paper (edo gezur) bat hauena?Batzuk damu direla esan, beste batzuk patriotatzat aurkeztu dirua nonbait izan arren, ez ikusiarena egin, aholkulariari errua bota…

Pelikulak amaiera garratza behar luke protagonistentzat, baina izango al du amaierarik?

**"Pelikulak amaiera garratza izan beharko luke protagonistentzat"**

## Euskarazko literatura tertuliak sortu nahi dituzte Aramaion

Irakurtzea gustuko dutenei zuzendutako deia da; eta euskaraz irakurtzen dutenei, edo asmoa eta gogoa dutenei. Apirilaren 20an, eguaztena, lehenengo bilera egingo dute literatura tertuliak sortzeko, 18:00etan, kultura etxean. Hara joango direnen artean erabakiko dute zenbatean behin bildu eta zer irakurri.

ELGETA

# Herritarrak trebatzen, konposta baldintza onenetan egin dezaten

Agertu diren arazoak ohikoak eta soluzio errazekoak direla esan du adituak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Konposta egiten duten hainbat elgetarrek prozesua baldintza onenetan egiteko gomendioak jaso dituzte asteon. Kontuan hartu beharreko gutxieneko neurrien errepasoa egin dute Vermican enpresako Joseba Sanchezekin.

Elgetan 163 familiak dihardute konposta egiten: 63 familiak nork bere konpostagailuarekin eta 100 familiak konpost-guneetan. Kalitate oneko konposta dela esan du Iraitz Lazkano alkateak, orain arteko kalifikazioetan baratze ekologikoetan erabiltzeko baimena lortu baitu. Azkenaldian, ordea, eltxoak eta usaina kezka iturri izan dira erabiltzaile batzuen artean, eta horiek zelan konpondu azaldu dute.



Herritar taldea eta alkatea Joseba Sanchezen gomendioak entzuten. | L.Z.

### Soluzio errazak

Vermican enpresako teknikariak esan du agertu diren arazoak soluzio errazekoak direla, eta hiruzpalau jarraibide eman ditu. "Lehenengo eta behin, ondo bereizi behar da etxean; izan ere, azkenaldian, plastiko batzuk agertu dira. Eta behin hondakinak konpostagailura botata, ondo mugitu behar dugu barruan dagoena. Joan aurretik, egituratzaile lehorrarekin ondo estalita utzi behar dugu guztia". Erabiltzaileek neurri horiek kontuan har ditzaten, erraz irakurtzeko panelak ipiniko dituzte auzo konpost-gune guztietan. Horrekin batera, Udalak beste bi neurri hartu ditu: alde batetik, egituratzaile sendoagoa ipini dute; eta bestetik, zulatzaile elektrikoa erosi dute udal brigadako langileek hondakinak aireztatzen laguntzeko.

### Datu onak herrian

Arduradunak pozik agertu dira herritarrek urteotan erakutsitako inplikazioarekin. "Datuak onak dira bai ikuspuntu ekologikotik bai ekonomikotik. Herrian zenbat eta hondakin gehiago kudeatu, orduan eta merkeago atzeratzen zaigu, eta beharra badago erabilgarri edukitzen dugu konpost hori", esan du alkateak.

Joseba Sanchezek ere balorazio positiboa egin du: "Askotan gertatzen da jendea oso motibatuta egoten dela, baina hasieran. Elgetan gertatu dena da motibazio hori mantendu egin dela hiruzpalau urtean, eta mantentzen ari dela. Seinale oso ona da".

## Kepa de Vega: "Gurasoek eragin handia dute umeen hizkuntza ohituretan"

L.Z. | ELGETA

*Elgetan berbetan* ekimeneko dinamizatzaile Kepa de Vegak gurasoei zuzendutako aurkezpena egin zuen eguenean eskolan. Neska-mutikoen hizkuntza ohiturak izan zituen hizpide, eta jakinarazi zuen umeek denboraren %15 soilik igarotzen dutela eskolan. "Eskolan ikasten dute euskara, baina baita ere futbolean, aisialdian edo familian", esan du. Azpimarratu du gurasoen eragina handia dela, eta horren kontziente izan beharra dagoela. *Elgetan berbetan* ekimena gurasoei ere zabalik dagoela jakinarazi du.

## Udalak errenta aitorpena euskaraz egitera gonbidatu ditu herritarrak

L.Z. | ELGETA

Uemarekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du Elgetako Udalak. Jakinarazi dute gero eta gehiago direla hautu hori egiten duten herritarrak, eta beharrezkoa dela, euskararen normalizaziorako bidean pauso handia eta sendoa izan dadin. "Errenta aitorpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da", gogoratu dute erakunde biek. Horregatik, errenta aitorpena euskaraz egitera gonbidatu dituzte elgetarrak ere.

## Gurasoak hezkuntza emozionalean trebatzeko saioa hilaren 28an Elgetako Herri Eskolan

Bideberri mankomunitateak antolatuta, hilaren 28an, eguena, gurasoendako ordu eta erdiko formazio saioa egingo dute Elgetako Herri Eskolan, 18:00etan. Helburu da lehen hezkuntzako haurrak dituzten gurasoak hezkuntza emozionalean trebatzea. Ludoteka zerbitzua egongo da. Ez da aurrez izenik eman behar.

## Zapatu eguerdian egingo dugu maiatzaren 4ko irteerarako izen-ematea Ozkarbi elkartean

Elgetako Xalbadorpe Erretiratuen Elkarteak antolatuta, maiatzaren 4an irteera bat egingo da. Ordiziako azoka ikusi eta gero Donostiara joango gara. Bazkaria Aginagako sagardotegian egingo dugu. Prezioa da 30 euro. Interesatuek zapatuan, hilak 16, eman behar dute izena 11:00ak eta 12:00ak bitartean, Ozkarbi elkartean.

KOMUNITATEA GOIENA | ELGETA
XALBADORPE ERRETIRATUEN ELKARTEA



GOIENA

## Elgetarrak Kantari saioan bihar

Kantari saioan parte hartu duten Elgetako bi taldeen emanaldia telebistan ikusteko aukera emango du Goienak zapatutik aurrera. Pirritx eta Porrotxen *Iritsi da eguna* eta Gatibu taldearen *Euritan dantzan* abestuko dituzte Tximeletak —argazkian— eta Lau Elgetarrak taldeek. Emisio egunak dira zapatuan (10:30 eta 20:00), domekan (09:00 eta 16:30), astelehenean (19:00) eta eguenean (13:30).

## Xabier Ortuzar garaile Elgoibarko tiraldian

Martxan da Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa. Zapatuan jokatu zuten lehen tiraldia Elgoibarren, eta Elgeta taldeko Xabier Ortuzar izan zen onena. Bost txirlo jo zituen, eta sailkapeneko lehenengo postuan dago.

## Hilaren 23an 'zumba' maratoia Espaloian

Bi orduko saioa izango da 10:00etan hasita. Plaza mugatuak dira, eta prezioa da 10 euro (ikasleendako 8 euro). Izena emateko: Eneritz 680 68 28 83, Janire 666 71 20 73 edo Maria Luisa 615 74 68 89.

## OHARRAK

**IPUINEN ORDUA**
Gaur, hilak 15, umeendako ipuin kontalari saioa liburutegian. Bi saio: 16:40an bost urtetik gorakoendako eta 17:25ean bi urtetik gorakoendako.

**TUTOREA KZGUNEAN**
Hilaren 20an, eguaztena, 09:00etatik 10:30era, kultura etxean.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**
Zabalik da kultura etxean Mauro Saraviaren *Azken batailoia* argazki erakusketa. (Ikus 4. orria)

**MARGO ERAKUSKETA**
Pello Alberdi elgetarrak erakusketa ipini du Bergarako Aroztegi aretoan. (Ikus. 17. orria)

LEINTZ GATZAGA

# Zirku tailerraren bigarren saioa bihar, zapatua

Kultura etxean egingo dute 9 urtetik gorako neska-mutikoek 12:30etik 14:00ak bitartean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Joan den zapatuan 5-9 urteko neska-mutikoek lehen saioa egin ondoren, bihar, zapatua, 9 urtetik gorako neska-mutikoek zirku tailerra egingo dute kultura etxean, 12:30etik 14:00etara bitartean. Xabi Larrea malabarista, artista, kale-antzerkigile… adituak gidatuta. Gurel elkarteak antolatutako tailerra da hori, beste bi saio izango dituena: maiatzaren 7an eta 14an, hurrenez hurren. 5 urtetik gorako 24 neska-mutikok dihardute bertan parte hartzen. "Aurten proba modura egiten gabiltza, eta, ondo irteten bada, asmoa da datorren urtean urte osoko ikastaroa antolatzea", esplikatu du Joannes Mendizabalek, Kulturako zinegotziak.

### Herri batzarra, gaur

Bestalde, Mendizabalek jakinarazi du gaur, egubakoitza, herri batzarra egingo dutela, 19:00etan, kultura etxean. Helburua da Debagoieneko Mendi Ibilbideen Jaialdia aurkeztea.

Ekainean izango da jaialdi hori: ekainaren 10, 11 eta 12ko asteburuan.

### Egitarau oparoa

Debagoieneko Mankomunitateko turismo bulegoarekin batera dabil Leintz Gatzagako Udala jaialdi hori antolatzen, eta egitarau oparoa borobildu guran dabiltza: mendi irteerak, mendi produktuen azoka, kale eskalada, BTT irteera, musika, diaporamak, antzerkia, eta beste. Hala, biharko herri batzarrean hori berori aurkezteaz gainera, gatzagarrek izan ditzaketen galderak eta proposamenak ere jaso gura dituzte. Eta lantaldeak sortu gura dituzte.

### Legutio-Gatzaga

Horrez guztiaz gainera, egutegian gertuago beste mendi ibilaldi bat izango da: Legutio-Gatzaga. Hori Donostia 2016-ko ekitaldien barruan egingo dute. Eta maiatzaren 15ean izango da; 17:00ak aldera iritsiko da udalerrira.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**
Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**LAURA ALUTIZ**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna,18 solairuartea
687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**MIRARI KORTA**
Aramaio / Azkoaga Auzoa 3 / 647 27 31 40

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NAGORE ARANBURU**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18, solairuartea, esk
685 72 01 42

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**UNAI SERRANO**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

**SADHANA YOGA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KIROLA



Emma Johansson helmugan sartzen. Atzetik, Carmen Small.

TXIRRINDULARITZA

# Emma Johansson azkarrena izan da Eskoriatzan

**MIREIA BIKUÑA** | DEBAGOIENA

Tripako minez hasi zuen Emma Johanssonek Emakumeen Euskal Bira, baina azkarrena izan zen Eskoriatzan hasi eta bukatu zen etapan. Hamabost kilometroren faltan, Leintz Gatzagarako igoera hasi aurretik, txirrindulariak elkarrekin pasa ziren Eskoriatzatik. Azken igoeran, hamar segundoko abantaila hartu zuen Suediako txirrindulariak, lehen eguneko arazo fisikoak ahaztuta zituela erakutsiz. Jaitsieran, harekin bat egin zuen Carmen Smallek eta bien arteko lehia estua izan zen. Azken metroetan apur bat aurreratu zen Johansson eta lehena sartu zen helmugan.

**Lider berria**

Biko ihesaldiak gainera, aldaketa ekarri zuen sailkapen orokorrean. Lotta Lepistok liderraren maillota galdu zuen. Carmen Small da Emakumeen Euskal Birako lider berria.

**Hiru etapa**

Lehen etaparen ostean beste hiru geratzen zaizkie: Etxarri Aranatz-Urkiola (109 kilometro), Berriatua-Berriatua (109 kilometro) eta Portugalete-Portugalete (76 kilometro). Horietan erabakiko da irabazlea nor den.



Schweizer eta Hagiwara ihes eginda, Untzillara iristeko 300 metroren faltan.



Tropela Aretxabaletako Durana kalean.



Joserra Zubizarreta lasterketa hasierako zinta mozten.



Emakumeen Euskal Birako 127 txirrindulariak irteera puntuan.



Eskoriatzako zaleak animatzen.

ARGAZKIAK: XABI URTZELAI, SERGIO AZKARATE ETA MIREIA BIKUÑA

AUTOMOBILISMOA

# Jaraman egindako debutean garaipena 'Purito'-rendako

▶ Madrilen jokatutako Trofeo Race lasterketa poltsikoratu du Arrasatekoak

▶ Karting-a alde batera utzi eta indartsu ekin dio proiektu berriari

XABIER URZELAI | ARRASATE

Kartinga alde batera utzi eta hilabete gutxitan proiektu berriari ekin dio Xabier Fernandez *Purito*-k. Eta zelako emaitzekin, gainera. Joan den zapatuan egin zuen debuta Jaramako zirkuituan, Trofeo Race izeneko lasterketan, eta bere kategorian arrasatearra podiumeko lehenengo koskara igo zen, lehenago *pole-position*-a eskuratuta: " Zer esango dugu ba! Sekulakoa izan da, niretako berria den zirkuitu baten, eta lehenengo lasterketan irabazi ahal izatea".



Hainbat lagun mekanikari lanetan, Purito-ren Leonean, Jaraman. | X

**Hasieratik erritmo onean**

Poliki-poliki autoari eta zirkuituan ibiltzeari neurria hartzen hasi beharrean *Purito*-k ez zuen astirik galdu. Jaramara Arrasatekoari laguntzera joandako lagun-taldekoek aipatuta, asfaltoa zapaltzeaz batera itzuli bakoitzean aurrekoa baino denbora hobea egiten hasi zen –akats batzuk tartekatuta, normala den moduan– eta segidan, entrenamendu txanda irabaztea lortu zuen (1'48).

Lasterketak –biak irabazi zituen– lehenengo postuan hasi ahal izan zituen *Purito*-k, hainbat arazo izan zituen autoko gurpiletako batekin, baina horrek ez zion Seat Leon autoarekin lehen garaipena eskuratzea eragotzi, 3 klasean. Hori bakarrik ez, potentzia handiagoko autoekin batera ere lehia politak izan zituen, nahiz eta zuzenetan zaldi gehiagoko autoen indarra nabaria zen, eta desabantaila zuen hor: "Mila esker lagun eta babesleei, eurak gabe ezinezkoa izango litzateke hau dena".


Ford Mugarriko Herrero, Zarautzen kontrako partiduan. | GOIENA

ESKUBALOIA

## Ford Mugarri Arrasatek liga du jokoan domekan Basauriren kontra

X.U | ARRASATE

Denboraldiko helburu nagusia beteta –igoera faserako sailkatuta– baina urtea errematatzeko gogoz daude Ford Mugarri Arrasateko mutilak, eta domekan (11:45, Iturripe) izango dute liga irabazteko aukera, sailkapenean bigarren dagoen Basauri mendean hartuta –puntu bateko aldea baino ez dago bi taldeen artean–. "Egia esango dut, liga irabaztea oso ondo dago, baina nik gurago dut inork minik hartzen ez badu, denek merezi dutelako igoera fasea fisikoki arazo barik jokatzea", dio Andoni Arando ordezkariak. Duela bi urte, esaterako, Jorgek belauna hautsi zuen fasearen aurretik: "Eta izugarri sufritu zuen. Halako faseak jokatu beharrekoak dira, oso bizipen ederra delako, baina egia da minik ez hartzeko modurik onena betiko intentsitatez jokatzea dela". Gainera, errebantxa gogoa ere badago: "Joanekoan dena irten zitzaigulako aldrebes".

**Aloñakoek etxeko azkena**

Izarraitz Aloña Mendiko zaleei aurten emandako babesa eskertu ahal izango diete jokalariek, etxeko azken partidua jokatuko dutelako zapatuan (18:00), Urdulizen kontra. Hirugarren amaituko dute liga, ikusgarri.

SASKIBALOIA

## MUk eta Soraluce BKEk derbia jokatuko dute zapatuan

X.U. | BERGARA

Gipuzkoako senior mailako MUk eta Soraluce BKEk derbia jokatuko dute zapatuan Iturripen. Bi taldeak daude sailkapenean atzealdean, mahoneroak azkenak (25 puntu), eta arrasatearrak (30 puntu) jaitsiera postuengatik borrokan, Zarautzekoekin eta Zast-ekoekin batera. Hala, garaipen beharrean kantxaratuko dira bi taldeak 16:00etan hasita (Iturripe).

**MU Kantabriara**

EBA mailan Mondragon Unibertsitatekoak Renedora abiatuko dira, Pielagosen kontra indarrak neurtzera (domekan, 18:30ean). Partidu berezia izango da, gainera, Kantabriako taldeak gaixorik dagoen haur bati laguntzeko kanpaina abiarazi dutelako, eta zuri-moreek kanpaina horretan parte hartuko dutelako. Horrekin batera, datorren astean Easoren kontrako derbi gipuzkoarrean Ointxe! klubak janari bilketa egingo du.

**Natra Oñatik liderra du zain**

Bigarren mailan bosgarren dagoen Oñatiko taldeak, berriz, Cafes Aitonaren kantxan jokatuko du zapatuan (20:00).

SKATEA

## Goroskt Tour txapelketako hirugarren edizioa egingo dute bihar Laino skate parkean

X.U. | BERGARA

Bihar, zapatua, egingo dute Gipuzkoa mailako skate txapelketa, Goroskt Tour izeneko hirugarren edizioa, Bergarako Lainon. Gaztetxoenak arratsaldeko lehenengo orduan hasiko dira lehian, 13:00etan (12 urtekoak), eta segidan hartuko dute parte 15 urte bitartekoek, 18 urte bitartekoek, emakumezkoek eta kategoria berezikoak (18-23 urte artekoek). Hala, aurreikuspena da 18:30ak aldera sari banaketako ekitaldia egin ahal izatea.

Txapelketaren gaineko informazio gehiago gura duenak 604108470 telefono zenbakira deitu dezake, edo *rolskt12@gmail* helbide elektronikora idatzi.

FUTBOLA


Lagun Onak taldearen kontrako partiduko irudia. | GOIENA

## Betoñori irabazita etorri behar da UDAren erreakzioa domekan

X.U. | ARETXABALETA

Kategoriari eutsi ala ez –oso zail dago– Aretxabaletak azkenera arte borrokatu behar du, eta hirugarren mailan taldea babestu duten zaleen aurrean garaipena eskuratu gura dute, hain zuzen, jaitsierako postuetan eurekin batera dagoen Betoñoren kontra (domeka, 16:30). Taldeak ez du merezi denboraldia zapore garratzarekin amaitzerik, eta halako partiduak aprobetxatu behar dituzte horretarako.

**Aloña Mendi, bosgarren**

Joan den astean Hondarribiaren kontra eskuratutako garaipen onari esker Aloña Mendi bosgarren postuan egonkortu da, eta Touringen zelaian ahaleginduko dira postu horri eusten.

**Mondra eta Bergara, borrokan**

Joan den asteko Bergararen garaipenak gehiago estutu du bigarren postuagatik borrokan dabiltzanen tartea. Mondra (50), Bergara (49) eta Urola (48) dira liga amaierara arte *playoff*-etarako txartela eman dezakeen txartelaren bila lehian ibiliko direnak. Bihar Mondrak Ilintxa hartuko du Mojategin, eta Bergarak Lagun Onaken zelaian jokatuko du.

Azkenik, Aretxabaletak Tolosa hartuko du etxean, eta Soraluzera joango da Antzuola.

KARATEA

## Gipuzkoako Txapelketa domekan Aretxabaletan

X.U. | ARETXABALETA

UDA kirol elkartearen 70. urteurreneko ospakizunen barruan egingo dute domekan Gipuzkoako Karate Txapelketa, Ibarra kiroldegian.

11 eta 15 urte arteko gazteak elkartuko dira kiroldegian, seguru asko ehun bat parte-hartzaile, eta 10:00etan hasiko dute txapelketa. Kumite modalitatean haurrek eta kadeteek jardungo dute, emakumezkoek zein gizonezkoek, eta bakarkako kata modalitatean, horiez gain kimuek ere bai. Hori bai, katan jarduteko derrigorrez gerriko berdea izan beharko dute eta kumiterako urdina.

Txapelketan Aretxabaletako karatekak ere izango dira: "Asko ez, baina bost inguruk hartuko dute parte; haurren eta kadeteen mailan jokatuko dute horiek", jakinarazi du Odilo Vazquezek, UDAko taldearen entrenatzaileak.

Maiatzean, ostera, areto futbolak hartuko du protagonismoa, Gipuzkoako Txapelketako final guztiak jokatuko dituztelako herrian.

# Uzarragako 42. igoeran junior mailako txirrindulariek euren indarrak neurtu beharko dituzte

IMANOL BELOKI | ANTZUOLA

Peña Ayastuy taldeak antolatutako Uzarragako 42. igoera izango da zapatu honetan, eta bertan, junior mailako 100 txirrindulari inguruk hartuko dute parte. 81 kilometro egin beharko dituzte parte-hartzaileek, eta 16:00etan hasiko da lasterketa Antzuolako Aiherra kalean. Helmuga 18:00etan izango da Uzarraga gainean.

Iaz, Iñigo Elosegi bizkaitarrak irabazi zuen lasterketa, helmugatik 300 metrora erasoa jo eta bigarrenari hamaika segundo aterata. Debagoiendar onena, berriz, Julen Umerez Oñatiarra izan zen, eta hamabigarren postuan iritsi zen helmugara. Debagoiendar askok hartuko dute parte lasterketan, baina faboritoa Mikel Arregi antzuolarra izan daitekeela adierazi du Jon Unamunok, Lokatza taldeko lehendakariak.

**Mikel Arregiren esperantzaz**

Jon Unamunok adierazi duenez: "Mikel Arregi antzuolarraren bigarren urtea da jubeniletan eta oso ondo ari da Ulma taldean. Seguru, etxean garaipena lortzea izango duela helburu".



Iaz, Iñigo Elosegik lortu zuen Uzarragako igoeran garipena. | GOIENA

## Kategoria txikien ziklismoa Aretxabaletan

Zapatuan, Aretxabaletako txirrindulari txikienek lasterketa egingo dute, 16:30ean hasita. Basabe poligonoari bueltak eman beharko dizkiote lasterketan, eta gaztetxoak Dorletako Amako lehen sariaren bila joango dira.

Bestalde, domekan Dorletako Ama txirrindulari elkartekoen aurkezpena egingo da Gatzagako Dorleta santutegian. 10:30ean batuko dira talde argazkia egin, eta txirrindulari bakoitzari banan-banan argazkiak ateratzeko.

## Beñat Rezustak eskuz banakako txapelketa hasiko du

Eskuz binakako pilotako finalean gertatutakoaren ostean, eskuz banakako txapelketa jokatuko du Beñat Rezustak. Final-zortzirenetan hasiko da jokatzen, bigarren kanporaketan, eta apirilaren 24an izango du partidua.

Artolak eta Untoriak neurtuko dituzte indarrak lehenbizi, eta irabazleak bergararraren aurka jokatu beharko du. Rezustaren eta aurkariaren artekoa irabazten duenak, aldiz, Bengoetxea izango du aurkari.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
**Aretxabaleta-Betoño Elorriaga**
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
**Touring-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:30. Fanderia.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
**Mondra-Ilintxa**
Zapatua. 16:30. Mojategi.
**Lagun Onak-Bergara**
Domeka. 17:00. Garmendipe.
**Aretxabaleta-Tolosa**
Zapatua. 16:30. Ibarra.
**Soraluze-Antzuola**
Zapatua. 18:00. Ezozia.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
**Ostadar-Arizmendi**
Domeka. 10:30. Michelin.
**Hernani-Mondra**
Domeka. 16:00. Zubipe.

**OHOREZKO GAZTEAK**
**Tolosa-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:30. Berazubi.
**Aloña Mendi-Eibar**
Domeka. 16:30. Azkoagain.
**Bergara-Ordizia**
Zapatua. 16:30. Ipintza.
**Ilintxa-Mondra**
Domeka. 16:30. Bikuña.

**OHOREZKO KADETEAK**
**Aloña Mendi-Elgoibar**
Zapatua. 11:30. Azkoagain.
**Arrasate-Eibar**
Zapatua. 10:00. Mojategi.
**Lagun Onak-Bergara**
Zapatua. 15:30. Garmendipe.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
**Aretxabaleta-Oiartzun**
Zapatua. 17:30. Ibarra.
**Sasikoa Durango-Eskoriatza**
Zapatua. 17:30. Landako.

**LEHENENGO MAILA**
**Pizza Per Tutti Mondrate**
Atsedena.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
**Eskoriatza-Anoeta**
Zehaztu barik.

**GIPUZKOAKO GAZTEAK**
**Pizza Per Tutti Mondrate-Lasarte Kafe**
Zapatua. 10:45. Iturripe.

**ESKUBALOIA**

**EUSKAL LIGAKO SENIORRAK**
**Izarraitz taberna Aloña Mendi-Urduliz**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
**Ford Mugarri-Basauri Indupime**
Domeka. 11:45. Iturripe.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
**Bergara-Egia Koxko**
Domeka. 11:30. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
**Pas Pielagos-MU**
Domeka. 18:00. Fernando Exposito.

**BIGARREN MAILA**
**Cafes Aitona -Natra Oñati**
Zapatua. 22:00. Jose Antonio Gaska.

**GIZONEZKO SENIORRAK**
**MU-Soraluze Bergara**
Zapatua. 16:00. Musakola.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
**Eskoriatza-Summa Aldapeta**
Zapatua. 20:00. Chaminade.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK, 2. MAILA**
**Bilbao unibertsitatea-ART**
Zapatua. 17:00. Landare toki.

**PILOTA**

**OÑATI**
**Egubakoitza, 18:45ean hasita:**
Aloña Mendi2-Legazpi4 (infantilak).
Aloña Mendi/Tatiegi-Tolosa/Goikoetxea (kadeteak).
Aloña Mendi/Urrutia-Bergara/Gartzia (kadeteak).
Azkoitia/Uranga-Aloña Mendi/Perez Ibon (kadeteak).
Aloña Mendi/Baseta-Lapke/Azkonobieta (Nagusiak).

**ESKORIATZA**
**Egubakoitza, 19:00etan hasita**
Urrutia-Suarez (Nagusiak).
Mikel Zubizarreta-Intxausti (nagusiak).
Eneko Zubizarreta-Izagirre (nagusiak).

**BERGARA**
**Egubakoitza, 19:15ean hasita**
Gallastegi-Larrañaga (kadeteak)
Bergara-Zubeldia (gazteak).
Iñarra-Santamaria (nagusiak)
Aristi-Uriarte (nagusiak).

**ARETXABALETA**
**Egubakoitza, 19:30ean hasita**
Zugasti-Badiola (kadeteak)
Etxeberria-Oiartzabal (nagusiak).

**ARRASATE**
**Egubakoitza, 20:00etan**
Infantilen bi partidu.

Debagoieneko
**GREMIOAK**

**AROZTEGIAK**

**AZKARATE AROZTEGIA**
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

**HONDEAKETAK**

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
*e.arrasate@gmail.com*

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

**LEIHOAK**

**ARGI-PLASTIK**
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

**LOREZAINTZA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

## Fenix Hegaztiaren azalean sartuta, Amaia antzokia beteko du Ken Zazpik

- Agortuta daude bihar, zapatua, Arrasaten egingo duen kontzerturako sarrerak
- Taldearen izaera galdu barik, Ricky Falkner ekoizleak bestelako soinua atera dio

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Urtarrilean abiatu zuen Ken Zazpi taldeak *Phoenicoperus* lana aurkezteko bira. Hamabost kontzertu egin dituzte eta horietan guztietan agortu dira sarrerak. Bihar, zapatua, Amaia antzokian izango dira (20:00). Emanaldi horretarako sarrerak ere aspaldi saldu zituzten.

Arrasatekoa bira honetan areto barruan egingo duten azkeneko kontzertua izango da. "Hamabost hilabeteko bira planteatu genuen. Segidan etorriko diren udako kontzertuak prestatzen ari gara orain. Arrasate plaza ona da barruko kontzertuen zerrenda ixteko", azaldu du Jon Mikel Arronategik, Ken Zazpiko kideak.


Ken Zazpi taldea 'Phoenicoperus' birako kontzertu batean. | DAVID HERRANZ

### Errautsetatik berpiztuta

Fenix Hegaztiaren mitoarekin jolastu dira oraingoan. Greziako mitologiaren arabera, bere errautsetatik berpizten zen hegazti miragarria zen hura. "Taldeak une horretan bizi duen egoera saiatzen gara islatzen disko bakoitzean. Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egin genuen azkena. Lan horrekin, taldekide bakoitzak bere *Phoenicoperus* propioa bizi izan zuen", dio taldekideak.

Ondo mimatutako hamar kantu jaso dituzte bilduma berrian. "Ricky Falkner ekoizlearengana jo genuen, soinu berezia gura genuelako; eta baita lortu ere! Hitzak idazteko ere lagun berriak aurkitu ditugu: Harkaitz Cano, Amets Arzallus, Unai Iturriaga... Eta zuzenekoetan, ikus-entzunezkoak ere asko zaindu ditugu".

**DATUA**

**8**

DISKO

2001ean kaleratu zuten lehenengoa: *Atzo da bihar*. EOSekin atera zuten, orain bi urte, azken aurrekoa.


Arronategi, Harreguy teknikaria, Elorrieta eta Falkner ekoizlea estudioan. | L. GARRO

### Hogei urteko ibilbidea

Eñaut Elorrieta, Jon Mikel Arronategi, Igor Artzanegi, Beñat Serna, Iñaki Zabaleta eta Jon Fresko izan dira hastapenetatik Ken Zazpi. Lan berriarekin, gitarrista bat gehiago dute taldean: Ruben Caballero. "Eñauten bakarkako lanean parte hartu zuen. Oso ondo egokitu da taldera; ez zuen erronka samurra. Ken Zazpiren lantaldea, baina, zabalagoa da; horren erakusle, teknikari guztiak zenbatuta Arrasatera hemeretzi lagun joango garela".

**JON MIKEL ARRONATEGI**
KEN ZAZPI

### "Garai berrietara moldatzen asmatu dugula esango nuke"


LANDER GARRO

Taularen gainean agertzen ez bada ere, Ken Zazpi taldea sortzeko *errudunetako* bat da.

**Nola gogoratzen dituzu Ken Zazpiren hastapenak?**
Eskixurekin nenbilen garai hartan. Taldea bertan behera geratu zenean, Eñautek talde berri bat sortzera animatu ninduen. Ez genuen imajinatzen honaino helduko ginenik.

**Atzeko lanetan, baina, beti.**
Aspaldi hartu nuen erabaki hori. Errepertorioa lotu, konposatu... denetik egiten dut.

**Gustura egindakoaz? Zerbait aldatu ahal izanez gero?**
Bai, oso gustura. Aldatu? Ez; egindakoak egında. Esango nuke asmatu dugula garai berrietara moldatzen.

**Taldekideen egoera pertsonala asko aldatu da. Musika alorrari dagokionez ere bai?**
Musika industria asko aldatu da eta aldatzen ari da. Pribilegiatu hutsak garela uste dut.



# Ahozko transmisioaren garrantzia eta bizi iraupena bultzatzeko ekimena

## Domeka goizean tabernetan eta arratsaldean Torresoroan izango dira

**A. ARANBURUZABALA** | ANTZUOLA
*Ahotik Bihotzera* ekitaldia egingo dute etzi, domeka. Antzuolako Udalak Oihulari Clown taldearekin elkarlanean hirugarrenez antolatutako ekimenak istorioen eta ipuinen ahozko transmisioan zubi izatea du helburu. "Gaur egun ez dugu garai baten moduan istorioak entzuteko ohiturarik. Gaur egun irakurri egiten ditugu eta bestela telebistak kontatzen dizkigu. Hori da domekarako dugun asmoa: askotariko istorioak kontatzea eta elkarri entzutea. Garai baten eguneroko eta etxe guztietako ohitura zen familiako kideak bildu eta amonak edo aitonak kontatukoak entzutea. Belaunaldi hori desagertzen ari da eta erreleboa hartu beharra dugu; gure historiaren eta ondarearen zati bat galduko da bestela. Gure identitatea ez galtzeko ahozkotasuna lantzea beharrezkoa dela uste dut", azaldu du Oihulari Clown taldeko Virginia Imazek.


Virginia Imaz, 2013an egin zuten 'Ahotik bihotzera' ekimenean, Torresoroan ipuina kontatzen. | JOSETXO ARANZABAL

**Edonor izan daiteke kontalari**
*Ahotik Bihotzera* ekimenaren asmoa ez da herrian goi mailako kontalariak biltzea. "Ez dugu profesionalendako deialdirik egin gura izan. Denok dugu zerbait kontatzeko; izan ere, haur batentzat haren amak edo aitak kontatuko dio ipuinik ederrena", dio Dorleta Kortazarrek, Oihulari Clowneko kideak.

Hori horrela, Antzuolako Udalak debagoiendar guztiak gonbidatu gura ditu domekan Antzuolara hurbiltzeko, kontatukoak entzutera, baina baita kontalari moduan jardutera ere: "Ipuinak, bestelako istorioak, garai bateko bizimoduaren pasarteak, bertsoak, kantuak... bakoitzak gura duena egin dezake. Ez dira kontakizun edo saio luzeak izan behar; asko jota hamar minutukoak. Parte hartu gura duenak Udaletxera deituta eman dezake izena (943 76 62 46) edo kultura sailera honako helbidera idatzita: *kultura@antzuola.eus",* azaldu du Jone Larrañagak, Kultura teknikariak.

Hala ere, aurrez izena eman barik ere, egunean zerbait kontatzera animatzen diren guztiek izango dute aukera.

**Kalean eta Torresoroan**
Egun osoko festa antolatu dutela dio Kortazarrek: "13:00etan bertso-ipuin poteoa egingo dugu tabernaz taberna. Iazkoa oso polita izan zen. Arratsaldean, 18:30ean hasita, Torresoroan elkartuko gara; kontakizunen maratoia egingo dugu han. Besteak beste, erretiratuak eta eskolakoak ere han izango direla esan digute".

ESANAK

**"Gure oroimena eta identitatea ez galtzeko ahozkotasuna bultzatzea beharrezkoa dela uste dugu"**

VIRGINIA IMAZ | ANTOLATZAILEA

# Debagoieneko Trikiti Eguna bihar Bergaran

## Hamabigarren edizioa da aurtengoa eta Bergaran antolatzen den bigarren aldia da

**ENEKO AZURMENDI** | BERGARA
*Apirilean musika* ekimena martxan da dagoeneko, Bergarako Musika Eskolak antolatuta. Hilabete osoko egitarau oparo eta zabalaren barruan, bihar, zapatua, ospatuko den Debagoieneko Trikiti Eguna da ekimen nagusienetako bat.

Aurten bigarren aldiz ospatuko da egun hau Bergaran, eta aurreko edizioarekiko hainbat aldaketa egin dituzte. "Gizartea asko aldatu da lehenengoz egun hau antolatu genuenetik. Horregatik, guk ere antolakuntzan hainbat aldaketa egiteko beharra ikusi dugu", adierazi du Aritz Alustizak, antolakuntzako kideak.

10:15ean izango da ongietorria. Segidan, eta berritasun moduan, solasaldi musikatua egingo da Miguel Altuna institutuan, Amaia Oreja eta Kristina Solano trikitilariak gonbidatu hartuta. Horrekin batera, haurrendako jolasak egongo dira seminarioko patioan, eta, hori bukatzean, kalejira batek alaituko du giroa herriko kaleetan zehar.

Bestalde, eskoletan sortutako rock edo konbo estiloko musika taldeek kontzertutxo bat eskaintzeko aukera izango dute. Ideia hau arrakastatsua izan dela azaldu du Alustizak.

14:30ean herri bazkaria egingo dute plazan –ez da sarrerarik gelditzen–, eta, arratsaldean, 17:00etako trikiti jaialdiak eta ondorengo triki-poteoak girotuko dute festa.

Azkenik, Gozategi taldearen kontzertua izango da herriko plazan, 23:00etan.

ESANAK

**"Guk ere antolakuntzan hainbat aldaketa egiteko beharra ikusi dugu"**

ARITZ ALUSTIZA | TRIKITI IRAKASLEA

# 'Maurizia' pandero jole handiaren historia dantzaren bitartez kontatuta

**A. A.** | BERGARA
Edu Muruamendiarazek zuzentzen duen Aukera dantza taldeak Bilboko Loraldia Jaialdian estreinatuko du zortzigarren lana.

Iaz deitu zion jaialdiko lehendakariak hurrengo urterako ikuskizunen bat prestatzen bazuen lekua egingo ziola aginduta. *Maurizia* sortzen ari ziren orduan. Domekan eskainiko dute Bilboko Campos Antzokian, 19:00etan. Sarrerak hamar eurotan eskura daitezke *loraldia.eus* atarian.

**Emakumeei omenaldia**
"Zeberioko pandero jolea du ikuskizunak abiapuntu. Plazarik plaza ibiltzen zen emakume handi bat zela dut gogoan; urte askotan dantzatu nituen hark jo eta abestutako doinuak. Ez da, baina, haren bizitzaren kontakizuna. Garai askotako emakumeei eskainitakoa da", dio zuzendariak.

**Karmele Jaioren idatzia**
65 minututan hamalau koreografia egiten dituzte. Dantza tradizionalaren eta garaikidearen arteko nahasketa da, dagoeneko Aukeranen marka bihurtu dena.

Musikaren eta Ainhoa Aierbe aktoreak irakurritako Karmele Jaioren testuaren gainean dantzatzen dute. "Une batzuetan, dantzatzen duten bitartean, panderoa ere jotzen dute. Hori bai izan dela erronka!", gaineratu du Bergarako koreografoak.


Aukeran dantza taldeko bi kide *Maurizia* ikuskizuna prestatzen. | AUKERAN.

# Gaur abiatuko da Plazatik Gaztetxera sariketa

**E.A.** | DEBAGOIENA
Eibarren hasiko da. 20:30ean afaria izango da eta 22:30ean bertso saioa. Aurtengo edizioan Bergarako gaztetxeak parte hartuko du antolakuntzan, berritasun gisa.

Debagoieneko hainbat bertsolari izango dira egingo diren lau kanporaketetan.

Lehenengo kanporaketa, esan bezala, gaur izango da Eibarren, eta Ane Zuazubiskar arrasatearrak eta Maria Izaga aramaioarrak kantatuko dute. Bigarren kanporaketa Ondarroan izango da, apirilaren 16an, baina ez da Debagoieneko ordezkaririk izango. Hirugarrena Soraluzen egingo da, apirilaren 22an, eta bertan Maider Arregi oñatiarra izango da. Azkenik, Bergaran bertan izango da azken kanporaketa, apirilaren 23an, eta Aitzol Iturbe antzuolarrak, Unai Aranzabal bergararrak eta Paula Amilburu aramaioarrak hartuko dute parte.

Euskal Herriko bertsolari gazteei abesteko aukera ematea da sariketa honen helburua.



Mirari Arandoren eta Koldo Balantzategiren iazko argazki bat. | M.A./K.B.

# Munduan zehar, Aretxabaletatik mugitu barik

'Ostegun bidaiariak' ekimena bueltan da

MAITE TXINTXURRETA | ARETX.

Aretxabaletan laugarrenez egingo dute *Ostegun bidaiariak*, debagoiendarren bidaia esperientziak partekatzeko ekimena. Hala, diaporama emanaldiak izango dira maiatzean eta ekainean Aretxabaletako tabernetan.

Udalak gonbidapen berezia egin die aurten Debagoieneko zein kanpoko ikasleei Ostegun bidaiariak ekimenean parte hartu dezaten. Modu horretan, ikasketak edo bestelako arrazoiak direla-eta kanpoan izan direnek euren egonaldien berri eman ahal izango dute.

Egingarri diren bidaia esperientziak jaso eta kanpoko herrialdeak ezagutzeko grina piztea du helburu egitasmoak.

**Parte hartzeko**

Izena emateko epea gaur hasten da, eta maiatzaren 2ra arte egongo da zabalik. Udaleko gazteria sailean apuntatu daiteke.

Aurkezten den bidaia duela bost urte baino gutxiago eginikoa izan beharko da. Aurkezpenak euskaraz izango dira eta diaporamaren iraupena 30-60 minutu bitartekoa izango da.

Diaporamen laburpen bat eta argazki batzuk aurkeztu beharko dira eta horietatik lau izango dira aukeratuak tabernetan aurkezteko.

**Diaporama emanaldiak**

Aukeratutako lau horietatik, irabazlea publikoak erabakiko du, aurkezpenetan zehar euren botoa emateko aukera izango dute eta. Hala, publikoaren gogokoenak ehun euroko saria jasoko du, eta lau parte hartzaileentzat berrogeita hamarna euroko saria izango da.

Emanaldiak maiatzaren 19ko eta 26ko eguenetan eta ekainaren 2an eta 9an izango dira, iluntzeetan, Aretxabaletako taberna desberdinetan.

# Amaitu dituzte Kantari saioaren edizio jendetsueneko grabaketa saioak

Asteburuan Amaia antzokian Arrasateko eta Aramaioko gazteak aritu ziren

M.T. | DEBAGOIENA

Dagoeneko bukatu dira aurtengo Kantari saioaren grabaketak. Pasa den asteburuan Arrasateko Amaia antzokian izan ziren, eta bertan, Arrasateko eta Aramaioko 294 gaztetxo igo ziren, denera, taula gainera.

Bosgarren edizio honetan inoiz baino parte hartze handiagoa izan da, 7 eta 11 urte bitarteko mila gaztetxo, hain zuzen. Amaia Txintxurreta aurkezlea pozik dago arrakastarekin: "Lan gogorra izan da, baina oso pozik egiten duguna". Aipatu du neska-mutikoak "ilusio handiz" joan direla grabaketetara.



Arrasateko grabaketak, zapatuan. | IMANOL SORIANO

**Irudimena sobran**

Amaia Txintxurretak azpimarratu du aurten bereziki ondo prestatuta eroan dituztela euren dantzak, abestiak eta baita janzkera ere: "Igarri da prestatzeko denbora asko erabili dutela. Denak etortzen ziren ondo jantzita, konjuntatuta, biserekin….".

Bestalde, nabarmentzekoa da edizio honetako parte hartzaile askok koreografia ere eurek prestatu dutela: "Kantariko blogean baditugu eredu batzuk, baina askok euren terrenora eroan dute, ondo dakiten horretara; batzuek euskal dantzekin, beste batzuek gimnasia erritmikoarekin...".

**Emanaldiak eta bloga**

Dagoeneko hasi dira emititzen aurtengo saioen emanaldiak Goiena telebistan. Zapatu eta domekero, 10:30ean eta 16:30ean, saio berri bat estreinatzen dute. Aretxabaletan eta Oñatin grabatutakoak dagoeneko eman dituzte, eta orain Bergarakoekin hasi berri dira. Horiek maiatzaren 7ko eta 8ko asteburura arte izango dira telebistan, eta hurrengo asteburutik aurrera hasiko dira Arrasaten grabatutakoak ematen.

Bestalde, orain arte telebistan azaldutako saio guztiak *blogak.goiena.eus/kantari* blogean ikus daitezke, eta grabaketa saioetako argazkiak ere bertan igota daude.

## Hasi dira 'Aundiya' filma errodatzen, Arregi zinemagile oñatiarraren zuzendaritzapean

M.T. | DEBAGOIENA

Asteon, astelehenean, hain zuzen ere, hasi dira Moriarti ekoizteetxean euren film berria errodatzen, Aitor Arregi oñatiarra zuzendari duena: *Aundiya*.

XIX. mendean kokatuko dute istorioa, eta Migel Joakin Eleizegi *Altzoko Handia* izenez ezagunago izan zen gizon erraldoiari buruzko pelikula izango da.

Bere garaiko pertsonarik handiena izan omen zen Eleizegi. Drama generoko lana izango da, eta, erraldoiaren pertsonaiaz harago, pertsona erakutsi nahi dute.

Nobedade moduan, film honetan efektu bereziak erabiliko dituzte.

**Grabaketak**

Euskal Herrian zehar hainbat tokitan egingo dituzte pelikularako grabaketak datozen hilabeteetan zehar. Esaterako, oraingo astean Beizama aldean ibili dira, baina Altzon edo Durangaldean grabazioak egiten ere izango dira aurki.

**'Loreak'-eko lantaldea**

Aitor Arregi zinemagile eta Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko irakasleak Jon Garañorekin batera dihardu zuzendari *Aundiya*n, eta Jose Mari Goenaga arduratuko da produkzioaz. Hain zuzen, Oscar sarietan parte hartzeko hautagai izatera iritsi zen Loreak film arrakastatsuaren lantalde bera da, nahiz eta, kasu horretan, Arregik gidoilari eta ekoizle jardun zuen eta Goenaga eta Garaño izan ziren zuzendariak.


MARIA CRUISCHANK



GOIENA TELEBISTA | GALDEGAZTE
OÑATIKO ELKAR HEZI IKASTETXEKO HIRU GAZTEK GALDERAK EGINGO DIZKIOTE MARIA CRUISCHANK AKTORE OÑATIARRARI
APIRILAK 20, 22:00ETAN | JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Naia Badiola** | Saskibaloi jokalaria

# "Entrenamenduetan egindako lanaren saria da Euskal Selekziotik jasotako deia"




**Naia Badiola entrenamendu saio baten.**

XABI GOROSTIDI

**XABI GOROSTIDI** | ARRASATE

Naia Badiolak (Arrasate, 2002) zainetan darama saskibaloia. Arrasate Ointxe! taldean jokatzen du, infantil mailan, eta urtarrilean, Huelvan izandako Espainiako Txapelketa jokatu zuen Euskal Selekzioarekin. Esperientzia ahaztezina izan zen, eta gogor lanean jarraitzeko bultzada izan da berarentzat.

**Nolatan hasi zinen saskibaloian lehen urratsak egiten?**

Nire anaiek saskibaloian jokatzen zuten, eta, horretaz gain, nire aita entrenatzaile lanetan aritzen zen. Hori dela eta, aitak entrenamendu batera eraman ninduen, eta bertan, nire adineko neskak nola entrenatzen ziren ikusi nuen. Jokatzeko gonbita egin zidaten, eta, era horretan, eurekin entrenatzen hasi nintzen.

**Abendu inguruan, Euskal Selekzioan aritzeko deia jaso zenuen. Zer sentitu zenuen aukeratua izan zinela jakin zenuen momentuan?**

Poz handia, lehenik eta behin. Bi urtean behin egiten den deialdia denez, oso zaila izaten da bertan sartzea, eta, beraz, oso pozik. Azken finean, zure entrenamenduetan egindako esfortzu guztiek zerbaitetarako balio dutela sentitzen duzu eta eguneroko lanarentzat sari bat bezala da.

**Zer-nolako esperientzia izan zen Euskadiko Selekzioarekin Huelvara joan eta Espainiako Txapelketan jokatzea?**

Oso esperientzia ona izan zen. Bidaia luzea egin behar izan genuen autobusean, barruan jende berri pila bat zegoen. Leku guztietara autobusean gindoazenez, lagun berriak egitea erraza izan zen. Partiduak ikusgarriak ziren. Musikarekin, harmailak jendez beteta... eta era horretan jokatzea oso polita da.

**Selekzioen artean lehiatuta, kalitate jauzia igarri zenuen?**

Bai, asko igartzen da. Korrika gehiago egin beharra dago, kantxak handiagoak dira, eta zailagoa da bertan lehiatzea.

**Jarraitzen dituzu Emakumeen Ligako euskal saskibaloi taldeak ?**

Ba, egia esan, ez. Behin, IDK Donostia taldearen lagun arteko partidu bat ikusi nuen Aretxabaletan, baina gerora ez dut talde hori jarraitu. Selekzioan egindako lagun batzuk Gernika Bizkaiaren zale amorratuak ziren, baina jarraitzen dudan taldea Laboral Kutxa Baskonia da.

**Ikasketetan saskibaloian bezain fin zabiltza?**

Bueno... saskibaloian bezala, ahal dudan onena egiten saiatzen naiz. Ez dut nire burua klaseko onenen artean ikusten, ikasle normala naizela esango nuke.

**Etorkizunera begira, zer izatea gustatuko litzaizuke?**

Ba, egia esan, ez daukat oso garbi zer izatea gustatuko litzaidakeen. Unibertsitatera joan nahi dudala badakit, eta, bitartean, saskibaloian jokatzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Baina, puntu horretan, garrantzi handiagoa emango nieke ikasketei. Zein ikasketa egingo dudan ez daukat batere garbi. Letrak eta Historia ez zaizkit askorik gustatzen; beraz, zientziekin edo matematikekin lotutako zerbait egingo nuke.

**Saskibaloia alde batera utzita, beste afiziorik baduzu?**

Ba, lagunekin ibiltzea eta bidaiatzea gustatzen zait. Lagunekin leku berrietara egun-pasa joatea atsegin dut, baina ez ditugu horrelako asko egiten, tamalez. Gustatuko litzaidake eurekin gehiago bidaiatzea.

**Telebista piztu eta albistegiak ikustean, zerk haserretzen zaitu gehien?**

Ba, asko harritzen naute emakumeen aurkako biolentzia kasuek. Ez dut ulertzen nola izan daitekeen gai gizon bat bere bikotekidea edo semeei kalteak eragiteko. Maite duten pertsona erail eta ondoren bere buruaz beste egiten duten kasuak asko entzuten dira, eta ez zaizkit batere normalak iruditzen.

**Lanpara magikoa esku artean eduki eta desio bat egia bihurtzeko aukera emanez gero?**

Ba, erantzun zaila da. Gauza asko konpontzea gustatuko litzaidake, baina, bat aukeratzetakotan, munduko aberastasuna era justuagoan banatzea gustatuko litzaidake. Jende guztiak dirua izateko aukera izatea.

### MARRA AZKARREZ

**Pelikula bat:** *Tres metros sobre el cielo.*
**Musika talde bat:** Vendetta.
**Janari gustukoena:** Lasagna.
**Bidaiatzeko leku bat:** Hawaii.
**Bizitzeko leku bat:** Euskal Herria.
**Herriko toki kuttunena**: Herriko Plaza.
**Kolore bat:** Morea.
**Amets bat:** Olinpiar Jokoetan parte hartzea.
**Telebista saio bat:** *Mujeres y Hombres.*
**Saskibaloi jokalari bat:** Stephen Curry.
**Beste kirol bat:** Futbola.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Uxuri Olalde**
Apirilaren 21ean, 4 urte. Zorionak etxeko danon partetik, maittia!



ARRASATE
**Alain, Iraitz eta Anselmo**
Iraitzek 7 urte 18an, Alainek 5 urte, 20an eta aitita Anselmok 68 urte, 21ean. Zorionak, hirukote, familia guztiaren partetik. Muxu potolo bat eta oso ondo pasatu zuen egunean.



ARRASATE
**Lide Azkarate Ojanguren**
Apirilaren 18an, 10 urte. Zorionak, Lide! Garaziren, amatxoren, aitatxoren, lehengusu Oihanen eta Hegoiren, amama-aitaiten eta osaba-izeben partetik.



BERGARA
**Julen Unamuno Marzan**
Apirilaren 17an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetze egunean. Muxu potolo bat Ekaitzen, aitaren eta amaren partetik.



ARRASATE
**Danel Azpiazu Barrena**
Apirilaren 17an, 5 urte. Zorionak, Danel! Patxo potolo-potolo bat lagunen eta familixakuen partetik! Batez ere Izarrena.




ARRASATE
**Josu eta Aimar**
Apirilaren 16an eta 17an. Zorionak aita eta Aimar. Oso ondo pasatu zuen egunean, patxo handi bat denon partetik. Maialen eta ama.



OÑATI
**Julen Isasti**
Apirilaren 16an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! 3 urte pasau dia jaixo ziñanetik eta ze aguro pasau dian... Ondo pasau zure egunian eta muxu pila bat etxeko danon partetik. Merendola goxo batekin ospatuko du!



OÑATI
**Haitza Garai Jimenez**
Apirilaren 16an, urtebete. Patxo handi bat, familixakoen partetik!



ARRASATE
**Aisha Luengo Elkoro**
Apirilaren 15ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Ederrena, Kaiena eta Lukenena.



BERGARA
**Maddi Munro Jimenez**
Apirilaren 15ean, 10 urte. Patxo potolo bat, Oñatiko familiaren partetik!



BERGARA
**Paulo Gabilondo Zumarraga**
Apirilaren 14an, 8 urte. Zorionak, Paulo! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat!



OÑATI
**Oier Laka Sansinenea**
Apirilaren 14an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxekoen eta, batez ere, Aneren partetik.



OÑATI
**Lander Aranburu Gomendio**
Apirilaren 14an, 10 urte. Zorionak, Lander, 10 urte! Zure urtebetetze eguna primeran pasatu eta topera disfrutatu. Muxu handi bat, maite zaitugun guztion partetik.



ARETXABALETA
**Libe Zubillaga Olabe**
Apirilaren 13an, urtebete. Zorionak, Libe. Gure printzesatxuak urtetxo bat egin du. Muxu handi bat, familia osoaren eta, bereziki, zure anaia Danel eta Oxelen partetik.



ARRASATE
**Maialen Velez de Mendizabal Otero**
Apirilaren 13an, 8 urte. Zorionak, Maialen! 8 urtetxo betetzen ditxu gure etxeko printzesa txikiak! Primeran pasatu zure eguna lagunekin eta familiarekin. Muxu piloa!



LEINTZ GATZAGA
**Ganix Otazu Arzelus**
Apirilaren 13an, 7 urte. Aupa, Ganix! Honezkero 7 urte! Zorionak eta patxo erraldoi bat, etxeko danon partetik!



ANGIOZAR
**Martxel Arriaran Arana**
Apirilaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
**Aner Sanchez Borrego**
Apirilaren 12an, 7 urte. Zorionak, Aner! Oso ondo pasatu zure egunean, txapeldun! Muxu asko, etxekoen partetik!



ARETXABALETA
**Haizea Leiba Arenaza**
Apirilaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Laia Ezkurra Iturbe**
Apirilaren 12an, 4 urte. Zorionak, maitxia! Horrenbeste amestu dozun eguna; 4 urte! Muxu goxo-goxo bat. Ondo pasatu!



ARAMAIO
**Amaiur Arana Ajuriagerra**
Apirilaren 12an, 12 urte. Zorionak, Amaiur! Zure 12. urtebetetzea! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat etxeko danen partetik!



ARETXABALETA
**Ihintza Louvelli Urrutia**
Apirilaren 11n, 3 urte. Zorionak, poxpolina! 3 urtetxoz gure etxia alaitzen. Muxu pototo bat. Itoitz eta Ekhi.



ARETXABALETA
**Danel Gonzalez**
Apirilaren 10ean, 4 urte. Zorionak, pirata! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Patxo handi bat, danon partetik!



ARRASATE
**Ion Ferreira Barrutiabengoa**
Apirilaren 10an, 2 urte. Zorionak, pitxin! ondo pasatu zure egunean familiakoekin eta lagunekin. Jarraitu beti bezain alai. Asko maite zaitugu amatxok eta aitatxok.



ARRASATE
**Irene Iturbe Ceme**
Apirilaren 9an, 4 urte. Zorionak, maitia, lau urte jada! Ze azkar pasatzen den denbora. Oso ondo pasatu zure egunean. Musu handi bat, etxekoen partetik. Urte askotarako, printzesa!



OÑATI
**Eider, Maren eta Roberto Calzada**
Apirilaren 9an, 6 urte. Eiderrek eta Marenek apirilaren 9an, 6 urte eta Robertok 14an, urtebetetzea. Zorionak, polittak! Ondo-ondo pasatu zuen eguna! Eta zorionak, aitatxo ! Muxuak zuentzako, etxeko denen partetik.



BERGARA
**Naia Perez Marzan**
Apirilaren 7an, 13 urte. Zorionak, Naia! Azkenian heldu da zure urtebetetzia. Ondo pasatu eguna eta domekan ospatuko dugu. Musu pila bat. Iker, ama eta aita.



OÑATI
**Xabier Kortabarria Otxoa-Aizpurua**
Apirilaren 6an, 8 urte. Zorionak, Xabier! Ze ondo ospatu genuen zure eguna, txapeldun! Muxu handi bat zure familixaren partetik.



ARRASATE
**Ibai Alberdi**
Apirilaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Ibai, txapeldun! Zazpi urte egin dituzu. Oso handia zara! Besarkada bat familiaren partetik.



LEGUTIO
**Aratz Guinea Ayape**
Apirilaren 5an, 4 urte. Arrasateko familiaren partetik: aitaitaren, amamaren eta anaia Josuren partetik. Zorionak eta besarkada handi bat!



OÑATI
**Ganix Mendibe Garai**
Apirilaren 5ean, 2 urte. Zorionak, *bitxito*! Etxeko guztien eta, batez ere, Ainhizeren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hilean 510 eurogatik, guztiz jantzitako apartamentu berria ematen da errentan Bizkaia etorbidea 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. 636 68 28 26

**Arrasate.** Zerrajera kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Igogailua eta garajea. 635 73 27 74

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu zenbaki honetara: 634 42 13 70, edota idatzi posta elektronikoa honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com

**La Pineda (Tarragona).** Uztailean eta abuztuan etxebizitza ematen da erremntan. Asteka edo hamabostaldika alokatu daiteke. Deitu zenbaki honetara: 650 58 66 99

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. 632 77 35 38

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. 699 34 86 88

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan erdigunean, sukalde, egongola eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarraila dauka eta wifia ere badago. 603 14 28 89

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, Zigarrolan, emakume batentzat. 600 61 89 96

**Bergara.** Neska gaztea logela bila, etxe konpartituan. 673 90 69 74

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**URDAITEGIA**

Begarako azokan oilasko denda-urdaitegia eskualdatzen da, guztiz ekipatua. Negozio-eredua aldatzeko aukerarekin.

660 01 48 66

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARRASATE**

Taberna ematen da errentan, sukaldearekin.

635 75 09 47

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**MEKANIKARIA**

Ajuste eta muntaia mekanikoan ibili den pertsona bat behar da. Bidali curriculuma Zarauzko 309 posta kutxara.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**Antzuola.** Bost urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko Antzuolako edo Bergarako emakume bat behar da. Esperientzia baloratuko da. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Neska arduratsua gertu etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 85 44 78

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 04 17 30

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari lanetan aritzeko. Baita nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 09 37 90 (Eva)

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu arratsaldez ume eta nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Bergara.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak egun osoz zaintzeko. Euskalduna eta urte askotako esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 65 30 62 (Arantzazu)

**Bergara.** Emakumezkoa prest asteburuetan eta jaieguneetan nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32

**Bergara.** Majisteritza ikasketak burutzen ari den neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Esperientziarekin eta lan egiteko gogoarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 637 36 35 59 edo 943 76 08 97

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, Berriztuta. Ez du obra beharrik. 175.000€.
- Bolu, 113 m², 4 logela, igogailua eta trastelekua. 210.000€. Bi garaje aukeran.
- Irizar pasealekua, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 190.000€ .
- Matxiategi, 72 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. Ez du obrarik behar.
- Lizaria, 50 m², 2 logela, Eraikuntza berria. Garajea barne. 197.000€. Eguzkitsua.
- Zabalotegi, 79 m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Madura, 65 m², 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000€. PREZIO JAITSIERA. Terraza, igogailu, patioa.
- Ernai, 52 m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000€.
- San Lorenzo, 85 m², 3 logela, garajea eta trastelekua. 150.000€.
- Espoloia, 95 m², 3 logela. Trastelekua. 200.000€. Garajea aukeran. 25.000€.
- Koldo Eleizalde, 74 m²+30m2 ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87 m², 3 logela, Fatxada berriztuta. 199.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta, 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 130.000€.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125 m², terraza eta 2 orturekin. Bi etxe egiteko aukera. 192.000€.
- San Pedro, 90 m², 4 logela. 95.000€. AUKERA ONA.
- Zabalotegi, 62 m², 3 logela. Berrizteko. 80.000€.
- San Antonio, 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogoilua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000€.
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti, 88 m², 3 logela. Terrazarekin. Ez du obrarik behar. 225.000€ Garajea aukeran.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde 78 m², 3 logela, Berriztua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.

**ELGETA:**
- San Roke, etxebizitza, lokala, ganbara eta garajea. Dena eraikuntza batean.
- Gudarien Bidea, 75 m², berrizteko. 72.000€. AUKERA BIKAINA.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**Debagoiena.** 30 urteko mutila sukalde laguntzaile edota ostalaritzan lan egiteko gertu. Arduratsua eta langilea naiz eta esperientziaduna. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 01 54 11

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Lege paperak eta erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 96 81 63

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, goizez zein arratsaldez, garbiketa lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 24 86 64

**Debagoiena.** Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Emakumea prest etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi aldetik arazo gabe. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 84 07 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, goizez edo arratsaldez. Erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 31 44 23

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 02 45 80

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egingo nuke, orduka, ordutegi malguarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 681 37 60 13

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak edo denetariko lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Lan bila nabil, etxeko lanak egiteko edota jende edadetua zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 77 53 37

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko zein bestelako lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 42 92 16

**Debagoiena.** Mutila garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo egun osoz. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 07 99 70

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

**Debagoiena.** Nagusien zaintza eta denetariko lanak egiteko prest dagoen gizonezko arduratsua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 42 92 61

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka garbiketan eta nagusi zein umeen zaintzan lanean jarduteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 81 48 24

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka, egunez edota gauez nagusiak zaintzeko eta baita garbiketa lanak egiteko ere. Erreferentzia onak eta lege paperak daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 06 18 09

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauez. Etxeak, atariak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

**Debagoiena.** Neska gertu egunez edo orduka garbiketa eta zaintza lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 64 98 53

**Debagoiena.** Neska gertu garbikerak egin, nagusiak zaindu eta abarretarako. Txarkuterian ere lan egingo nuke. Orduka edo jardun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 61 89 96 (Mari)

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 59 39 87

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 603 29 94 29 edo 685 57 54 33

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 84 78

**Debagoiena.** Zerbitzari moduan, nagusi eta umeak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 29 11 23

**Erizain laguntzailea.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluarekin eta esperientziaduna, lan bila. 10:30etik 16:30era edota 18:30etik aurrera lan egiteko aukera. Umeak edo nagusiak zaintzen. Gida baimena eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 20 59 43

**Lana.** Zerbitzari moduan, sukalde, atari eta abarrak garbitzen, nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Dendari moduan aritutakoa naiz. Presazkoa da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 44 84 48

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Haur Hezkuntzako ikasketak dituen emakumea arratsaldetan haurrak zaintzeko edo orduka garbiketa lanak egiteko prest. Autoa daukat. 664 53 28 56

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Nagusiak eta haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egingo nuke. Esperientzia handia daukat. Ordutegi aldetik ez daukat arazorik. Autoa daukat. 627 18 04 35 edo 943 08 23 99

**Ume zaintza.** Neska bergararra umeak zaintzeko prest. Ordutegi malgua eta lanerako gogo handia. 648 00 25 66 edo 943 76 07 99

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Transporter TD5.** 8 plazakoa da. 2.5 TDI. 130 ZP. 2003 urtekoa. 145.000 kilometro dauzka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 76 10 00

### 602. EROSI

**T4 westfalia.** 1999 urte inguruko T4 westfalia (sukaldeduna) erosiko nuke, 2.5TDI motorduna eta ondo zaindua. Ez dut astakeriarik ordainduko. Eskerrik asko. 660 43 64 29

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Antxumeak.** Antxumeak salgai. Bizirik edo hilda. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 76 10 00

### 703. EMAN

**Arratoi txakurkumeak.** Arratoi txakurkumeak ematen dira opari. Hiru hilabetekoak dira eta ondo ikasitakoak. Ondo zainduko dituenari emango dizkiogu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 75 86 49

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Aramaio.** Zabola auzoan 4.800 metro koadroko lursaila salgai. Errepide ertzean. Aldapatsua. 20.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 609 44 95 91 edo 663 94 75 77

### 806. GALDU

**Argazki kamera Arrasaten.** Martxoaren 27an, domeka, argazki kamera galdu genuen Monterron inguruan, Kondekuako eserlekuetan. Nikon etxekoa da eta maleta beltz baten zegoen objektiboekin batera. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu eskertuko nuke telefono zenbaki honetara deitzea:. 607 91 14 84

### 807. AURKITU

**Giltza aurkitu.** Apirilaren 1ean giltza bat aurkitu genuen Osintxun. Zurea bada, deitu zenbaki honetara. 699 32 22 45

### 808. BESTELAKOAK

**Lapurreta Bergaran.** Astearteean, apirilak 5, Ramon Maria Lili kalean (palmerara jaisten dan aldapan), golf beltz bati kristala apurtu eta barruko poltsa ostu zuten. 15:00ak aldera izan zen gertakaria. Mesedez norbaitek zerbait ikusi izan balu, jar zaitezte harremanetan ondorengo telefono zenbakian. Eskerrik asko. 618 41 76 25



Zure plana Talent da. Garapen profesionaleko plana

Garapen profesionaleko planan enpresa arrakastatsu batean: **Nationale-Nederlanden**, bertan aukeraz betetako etorkizuna izan dezakezu. **Interesatuta bazaude, bidali zure curriculuma honako helbidera:** aatria@nnseguros.com

nationale nederlanden

Zu garrantzitsua zara

## ASTEA GOIENAN


IMANOL SORIANO

### Ford Mugarri Arrasatekoak saioan

Liga dute jokoan Ford Mugarri Arrasateko mutilek eta Basauri izango dute aurkari asteburuko partiduan. Edozelan ere, dagoeneko sailkatuta daude igoera faserako, eta urtearen errepasoa egitera etorriko dira hainbat ordezkari *Harmailatik*-era.
**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00


ARABAKO FORU ALDUNDIA

### Omenaldia Bizente Goikoetxeari

Aramaion zapatuan omenaldia egingo diote Bizente Goikoetxea musikariari, hil zeneko 100. urteurrena delako. Goikoetxeak konposatutako maisulanetako batzuk gogora ekarriko dituzte eta omenaldian jasotakoak erakutsiko dira astelehenean
**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 15**
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Elgeta ezagutzera nator!
**13:00** Korapilo
**13:30** Zaindu zaitez
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Elgeta ezagutzera nator!
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Zaindu zaitez
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** Elgeta ezagutzera nator!
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Elgeta ezagutzera nator!
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Amaia DJ

**ZAPATUA, 16**
**09:00** Kantari
**09:30** Txantxariak
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** Elgeta ezagutzera nator!
**12:30** Galdegazte
**13:00** Harmailatik
**13:30** Zaindu zaitez
**14:00** Harira
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Txantxariak
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Galdegazte
**18:30** Harmailatik
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Kantari
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Harira
**22:00** Debagoiena zuzenean
**22:55** Astea iruditan
**23:00** Galdegazte
**00:00** Amaia DJ
**00:25** Astea iruditan
**00:30** Harira

**DOMEKA, 17**
**09:00** Kantari
**09:30** Txantxariak
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Galdegazte
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Harira
**13:00** Debagoiena zuzenean
**13:55** Astea iruditan
**14:00** Elgeta ezagutzera nator!
**14:30** Onein
**15:00** Harmailatik
**15:30** Galdegazte
**16:00** Txantxariak
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Debagoiena zuzenean
**18:25** Astea iruditan
**18:30** Elgeta ezagutzera nator!
**19:00** Harira
**20:00** Kantari
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:25** Astea iruditan
**21:30** Galdegazte
**22:00** Harmailatik
**22:30** Harira
**23:30** Debagoiena zuzenean
**23:30** Elgeta ezagutzera nator!
**00:30** Amaia DJ

**ASTELEHENA, 18**
**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**17:30** Erreportajea: Gernika-Lumo rally-a
**18:00** Txantxariak
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** Elgeta ezagutzera nator!
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**23:15** Debagoiena zuzenean
**23:45** Berriak
**00:15** Amaia DJ
**00:45** Debagoiena zuzenean
**01:15** Berriak
**01:45** Harmailatik

**MARTITZENA, 19**
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Elgeta ezagutzera nator!
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Zaindu zaitez
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harira
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harira

**EGUAZTENA, 20**
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harira
**13:00** Txantxariak
**13:30** Korapilo
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:45** Hurbilean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Hurbilean
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Harira
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Galdegazte
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harira
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUENA, 21**
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Galdegazte
**13:00** Txantxariak
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Galdegazte
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Harira
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Galdegazte
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Bertso saioa
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Galdegazte
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Ken Zazpi bihar izango da Amaia antzokian eta taldekide Jon Mikel Arronategik horri buruz hitz egingo du 10:00etan irratian. Baserritarren azokari buruzkoak ere azalduko dituzte Enplegu eta Garapen saileko teknikari Marga Garmendiak eta Ana Gorosabel baserritarrak.

### Bi kontzertutarako sarrerak zozketatuko dira hurrengo astean

*Kooltur Ostegunak* egitasmoaren barruan, Ainara Legardonek eskainiko du kontzertua eguenean 22:00etan gaztetxean. Hilaren 24an Amaian izango den Stradivarias taldearen kontzerturako sarrerak ere zozketatuko dira. Deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.eus*-era.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 15** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Zapatua, 16** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Domeka, 17** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Astelehena, 18** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Martitzena, 19** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Eguaztena, 20** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguena, 21** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 15** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Zapatua, 16** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Domeka, 17** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Astelehena, 18** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 19** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguaztena, 20** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguena, 21** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 15** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 16** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 17** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 18** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 19** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 20** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 21** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA


**Max. 20º**
**Min. 10º**

**ZAPATUA, 16**
Goiza nahiko lasai joango da. Arratsaldean, ordea, zaparradak bota ditzake eta baliteke trumoi-ekaitza sortzea.


**Max. 18º**
**Min. 8º**

**DOMEKA, 17**
Zeruan zapatuan baino laino gehiago egongo dira eta oso tarteka izango dira ostarteak. Ez da euri handirik espero.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Begiraleak.** Aretxabaletako Udala. Uztailerako antolatzen dituzten udalekuetarako begiraleak behar dira. Epea: apirilak 20. Curriculuma bidali behar da *aretxabaleta@gazteria.eus* helbidera.

**Kultura teknikarien lan poltsa.** Beasaingo Udala. Baldintzak: Erdi mailako titulua/diplomatura edo lizentziaturaren hiru ikasturte bukatuak, EGA edo baliokidea. Azken eguna: apirilak 18.

**Turismo teknikari laguntzaileak.** Zarauzko Udala. Baldintzak: Batxilergoa, Lanbide Heziketa II edo baliokidea, euskara: 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea, frantsesaren (B1 maila) eta ingelesaren (B2 maila) ezagutza. Azken eguna: apirilak 19.

**ZINELEKU.** Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiak. Ikus-entzunezkoen inguruko hamar eguneko egonaldia Zarauzko Aterpetxean. Baldintzak izango dira: 18 eta 25 urte bitartean izatea. Aurretiko izena ematea apirilaren 21etik maiatzaren 6ra bitartean egin ahalko da *www.gipuzkoangazte.eus* webgunean.

### KULTURA TRUKEA

**Hator Hona.** Argentinako Necochea Euskal Etxea. Euskadiren eta Argentinaren arteko kultura trukea da. Baldintzak: 18 eta 30 urte bitartean izatea, euskara, euskal musika, euskal dantza, euskal gastronomia edo euskal kirolen ezagutza izatea. Programak alojamendua eta janaria hartzen ditu barne. Bidaia norberak ordaindu behar du. Azken eguna izango da: apirilak 29.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.eus

ESKER ONA

## Maxima Olalde Biain



'Sillero'
Marcelino Elorzaren alarguna
2016ko apirilaren 9an hil zen, 98 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

**Oñatin, 2016ko apirilaren 15ean.**

ESKER ONA

## Pedro M. Elorza Aranburu

2016ko apirilaren 2an hil zen, 68 urte zituela.

Gure minak eta negar-zotinak arindu eta azken agurrian lagundu gaituzuen daneri, bihotz-bihotzez, mila esker.

**Oñatin, 2016ko apirilaren 15ean.**

ESKER ONA

## Bixenta Irizar Aranguren



2016ko apirilaren 8an hil zen, 70 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

*Zure irripar goxoa*
*gertuan sentitzea.*
*Polita ta xamurra*
*izan da zurekin bizitzea.*
*Beti gurekin izango zera.*

**Antzuolan, 2016o apirilaren 15ean.**

OROIGARRIA

## Antton Mendizabal Etxabe

'Tonino'

2016ko apirilaren 11n hil zen.

Eskerrik asko *Arrasate Press*-en eta Goienan laguntzeko gertu egoteagatik beti.

goiena

**Goiena Komunikazio Taldea.**
**Arrasaten, 2016ko apirilaren 15ean.**

OROIGARRIA

## Antton Mendizabal Etxabe

'Tonino'

*Arrasatetik Euskal Herrira,*
*eta Euskal Herritik mundura,*
*askatasuna helburu,*
*begirunea, konpromiso irmoa*
*eta begirada samurra lanabes.*
*Tonino, irakasle maitatu eta nekaezina joan zaigu,*
*ez ordea beragandik ikasi duguna eta ikasteko daukaguna.*
*Agur eta ohore.*

**Arrasateko Ezker Abertzalea.**
**Arrasaten, 2016ko apirilaren 15ean.**

OROIGARRIA



## Isabel Diego Ortiz

1932-05-28 / 2010-04-19



## Jose Ignacio Uribarri Jausoro

1941-06-26 / 2003-03-30

*Beti nirekin.*

**Eskoriatzan, 2016ko apirilaren 15ean.**

OROIGARRIA

## Mari Jose Pagaldai Lete

2016ko apirilaren 13an hil zen, 53 urte zituela.

Eskerrik asko Goienan laguntzeko gertu egoteagatik beti.

goiena

**Goiena Komunikazio Taldea.**
**Eskoriatzan, 2016ko apirilaren 15ean.**

URTEURRENA

## Isabel Olabarria Larrañaga



2015eko apirilaren 21ean hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Gauero ezkutatzen da eguzkia itsaso aldetik*
*baina zu ez zara aldenduko gure bihotzetik.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2016ko apirilaren 15ean.**

URTEURRENA

## Ramon Zubizarreta Elustondo



2015eko apirilaren 12an hil zen, 72 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Denbora, gogoa eta maitasuna eskaini zenigun beti*
*guk orain eta beti esker ona eskainiko dizugu zuri.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2016ko apirilaren 15ean.**

URTEURRENA



## Santos Oruesagasti Gurrutxaga



2015eko apirilaren 26an hil zen, 76 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Izan zinena beti gogoan, betiora gure bihotzetan.*
*Itxaropentsu hemendik laztan bat zuretzat.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2016ko apirilaren 15ean.**

HILETA

## Jose Ramon Iriarte Urrutia



2016ko apirilaren 13an hil zen, 76 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, apirilaren 15ean, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Oharra: sendiak Arrasateko Tanatorioan hartuko zaituztete gaur, egubakoitza, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era bitartean.

**Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.**
**Arrasaten, 2016ko apirilaren 15ean.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Maialen eta Iñaki

Maialen Karrasko eta Iñaki Markuleta egubakoitz honetan ezkondu-ko dira Oñatin. Datozen egunotan New York eta Mexiko aldera joan-go dira. "Zorionak, bikote! Familixako danon partetik, ondo-ondo pasau, bai zuen egunian, baitta biajian be".

## HILDAKOAK

**Roberto Agirre Manso.** Aretxabaleta, apirilaren 6an. 49 urte.
**Frantzisko Lozano Cobo.** Arrasaten, apirilaren 6an. 77 urte.
**M. Concepcion Arrieta Palma.** Arrasaten, apirilaren 6an. 66 urte.
**Igor Fernandez Mauleon.** Arrasaten, apirilaren 7an. 42 urte.
**Bixenta Irizar Aranguren.** Antzuolan, apirilaren 8an. 70 urte.
**Maxima Olalde Biain.** Oñatin, apirilaren 9an. 98 urte.
**Amalio Cuevas Gomez.** Arrasaten, apirilaren 10ean. 68 urte.
**Julian Uribesalgo Makazaga.** Bergaran, apirilaren 10ean. 91 urte.
**M. Teresa Mendizabal Ostolaza.** Bergaran, apirilaren 10ean. 92 urte.
**Alan Gutierrez Zelaia.** Bergaran, apirilaren 11n. 43 urte.
**Imanol Zubizarreta San Vicente.** Arrasaten, apirilaren 11n. 88 urte.
**Antton Mendizabal Etxabe.** Arrasaten, apirilaren 11n. 69 urte.
**Ageda Garai Genaga.** Arrasaten, apirilaren 13an. 87 urte.
**Mari Jose Pagaldai Lete.** Eskoriatzan, apirilaren 13an. 53 urte.
**Jose Ramon Iriarte Urrutia.** Arrasaten, apirilaren 13an. 76 urte.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ARAMAIO Bizente Goikoetxea gogoratuz**
Apirilaren 4an 100 urte bete ziren konpositore aramaioarra jaio zela eta horren harira askotariko ekitaldiak egingo dituzte. Gaur, egubakoitza, Goikoetxearen eskultura garbitua erakutsiko diete herritarrei. Udaleko eta Aldundiko ordezkariek parte hartuko dute.
Gaur, egubakoitza, Bañera parkean, 18:00etan.


ARANTZAZU EZKIBEL


GOIENA

**OÑATI 'Martina eta paperezko kartoia' antzezlana**
Martina paperezko neskatoa da eta kartoiz egindako etxe batean bizi da. Egun baten, basoan galdu eta lagun bereziak egingo ditu. Txotxongiloak dira nagusi umeendako antzezlanean. Sarrerak, 3,5 euro.
Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan.

## MUSIKA

**OÑATI Abesbatza eta errondaila**
Txantxiku Ikastolako abesbatzaren eta Legazpiko Sones de Extremadura errondailaren emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 17:00etan.

**BERGARA Kantu ikasleak**
Musika eskolako kideen saioa.
Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 19:00etan.

**OÑATI Fly Shit eta Hartzak Blues Band taldeak**
Hardcore eta punk doinuekin girotuko dute Antixena Bergarako eta Enkarterrietako taldeek. Sarrerak hiru euro.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan

**ESKORIATZA Seiurte**
*Ezpalak* diskoa aurkeztuko du. Doako emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Inkernun, 23:00etan.

**BERGARA Suzuki metodoa eta biolontxeloa**
Suzuki metodoa ikasten dihardutenikasleen emanaldia. Ostean, Bergarako eta Irungo biolontxelo ikasleen txanda izango da.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 11:00etan.

**ARRASATE Ken Zazpi**
*Phoenicoperus* diskoa aurkeztuko dute. Taldearen arabera, orain arteko lanik "homogeneoena , organikoena eta esperimentalena" izan da. Sarrerak, agortuta.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 21:00etan.

**OÑATI Melmak eta Meido taldeak**
Sarrerak hiru euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Musika banda**
Kalejira eta kontzertu didaktikoa egingo dituzte, kalerik kale eta pilotalekuan, hurrenez hurren.
Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

**BERGARA Organo kontzertua**
Alize Mendizabalen kontzertua. Batutako dirua San Pedroko organoarendako izango da.
Etzi, domeka, Santa Marinan, 19:00etan.

**OÑATI Ekiza bakarlaria**
Willis Drummond taldearen etena aprobetxatuz, bakarkako ibilbidea hasi du Jurgi Ekizak. *bH036-DG* diskoa aurkeztuko du. Doako emanaldia.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

# NON-ZER

APIRILA 15
APIRILA 21

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**BERGARA Ikasle helduen kontzertua**
Musika Eskolako ikasleen emanaldia.
Apirilaren 18an, Zabalotegin, 18:30ean.

**BERGARA Trikiti ikasleak eta perkusio taldea**
Musika eskolako trikiti eta pandero ikasleen saioa. Ostean, eskolako perkusio taldearen aurkezpena izango da.
Apirilaren 18an, Zabalotegin, 19:30ean.

**BERGARA 'Eskolan Rock'**
*Apirilean musika* egitarauaren barruan.
Apirilaren 18an, musika eskolan, 19:30ean.

**BERGARA Biolin taldeak**
Musika eskolako kideen kontzertua.
Apirilaren 19an, Mizpirualdeko elizan, 18:30ean.

**BERGARA Piano ikasleak**
Musika eskolako ikasleak.
Apirilaren 19an, Zabalotegin, 18:30ean.

**BERGARA Gitarra, biolin, biola, eta tronpa ikasleak**
Musika eskolako ikasleen kontzertua.
Apirilaren 20an, Zabalotegin, 18:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA Debagoieneko Trikiti Eguna**
Egun osoko egitaraua prestatu dute: kalejira, solasaldia, jolasak, Debagoieneko eskolen emanaldia eta Gozategiren kontzertua.
Bihar, zapatua, hainbat lekutan, egun osoan.

## ANTZERKIAK

**ESKORIATZA 'Futbolariak eta printzesak'**
Parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko antzezlana. Sarrerak, hiru euro.
Etzi, domeka, Zaldibarren, 17:00etan.

**OÑATI 'Putinen guardasola'**
Euskal Herriarendako ereserkia egitea eskatu die lehendakariak eta lan horretan murgilduko dira Inazio Altuna eta Ramon Agirre.
Etzi, domeka, gaztetxean, 18:30ean.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Pello Alberdi**
Gaur, egubakoitza, zabalduko dute pintura erakusketa.
Maiatzaren 1era arte, Aroztegin, 18:00etan.

**BERGARA 'Garai bateko bizikleta'**
Bizikleta zaharrak eta txirrindularitza materiala ikusteko aukera. Erakusketa hilaren 19an zabalduko dute, Aroztegin.
Hilaren 24ra arte ikusgai.

**ARRASATE 'Rockomikiak'**
Egile ezberdinen lanak.
Hilaren 30era arte, Kulturaten, 18:00ean.

**ELGETA 'Azken batailoia'**
Mauro Saraviaren argazkiak.
Hilaren 24ra arte, Espaloian, 18:00ean.

**ESKORIATZA 'Eskoriatza eta txirrindularitza'**
Emakumeen Biraren geldialdiari lotutako erakusketa.
Ibarraundi museoan ikusgai.

## GAZTELEKUAK

**ARRASATE Ken Zazpirako sarrerak**
Martxan egon den lehiaketan parte hartu dutenen artean egingo dute zozketa.
Gaur, egubakoitza, erdiguneko gaztegunean, 19:00etan.

**ARRASATE Askotariko ekintzak**
Jokoak, jolasak, ekintzak...
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

**BERGARA Gaztechef**
Taldeka banatuta pintxo bitxiena eta goxoena egin beharko dute gazteek. Osagaiak begiraleek ipiniko dituzte.
Bihar, zapatua, Xabaloten, 17:00etan.

**ARRASATE Bidaien kronikak**
Iker Agirrek egindako bidaiaren bitxikeriak kontatuko ditu.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

**BERGARA Jaietarako zapi lehiaketa**
Jardunek deitutako lehiaketan parte hartzeko proposamenak egingo dituzte.
Etzi, domeka, Xabaloten, 17:00etan.

## DANTZA

**ARETXABALETA Dantza saioak**
Musika eskolako dantza taldeen emanaldia.
Apirilaren 20an, Arkupen, 16:30ean.

## BERTSOLARITZA

**BERGARA Munduko musikekin bertsotan**
Jardun euskara elkartearen eskutik bertso saioa.
Gaur, egubakoitza, Arranon, 22:00etan.

**ARETXABALETA 'Bertsobar'**
Manex Agirreren, Xabi Igoaren eta Martin Berrizbeitiaren bertso saioa.
Bihar, zapatua, Urbaltz tabernan, 13:00etan.

## UMEAK

**ELGETA Ipuinen ordua**
Euskarazko saio bikoitza: 16:40ean bost urtetik gorakoak eta 17:25ean: 2-4 urte artekoak.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 16:40ean.

**ARRASATE 'Zaku bete lelokeri'**
Eider Eibar ilustratzailearen eta Miren Larrea kontalariaren saio bikoitza 4 urtetik gorakoendako: hilaren 19an. Santa Marina auzoko bibliotekan 17:00etan eta hilaren 21ean Kulturaten, 18:00etan.
Aipatutako egunetan, lekuetan eta orduetan.

## IRTEERA

**ELGETA Erretiratuen irteerarako izen-ematea**
Ordiziako azokara, Donostiara eta Aginagara egingo dute irteera maiatzaren 4an. Prezioa, 30 euro. Interesatuek zapatuan, hilak 16, eman behar dute izena Ozkarbi elkartean 11:00etatik 12:00etara bitartean.
Bihar, zapatua, Ozkarbin, 11:00etan.

**OÑATI Baztan aldera**
Izpegi-Baigorri-Iparla-Bidarrain ibilbidea egingo dute, 14 kilometro eta 750 metroko desnibelarekin.
Etzi, domeka, postetxean, 07:00etan.

**ARRASATE Arlaban-Urkiola**
GR-282 Artzaintzaren ibilbidearen bigarren etapa egingo dute apirilaren 24an. Izena emateko: martitzena eta eguaztena, Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Elikadura burujabetza**
Esti Redondoren hitzaldi-tailerra, Ortuzabala Kontsumo Taldeak gonbidatuta.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:30ean.

**OÑATI Arrikrutzeko lehoia**
Arrikrutzeko lehoiaren garaiko faunaren gaineko berbaldia egingo du Asier Gomezek gazteleraz. Ostean, bisita gidatua.
Bihar, zapatua, Arrikrutzen, 10:00etan.

**BERGARA 'Ilargiaren egutegia'**
Jakoba Errekondoren solasaldia.
Bihar, zapatua, Ubera auzoko eskolan, 11:15ean.

**ARRASATE Komunikazio ez-sexista**
Pikara Magazine eta Klitto atari digitaletako kazetariek mahai ingurua egingo dute.
Apirilaren 19an, Kulturaten, 19:00etan.

**ARETXABALETA Juan Jose Ibarretxeren hitzaldia**
Lehendakari ohiak globalizazioaren gainean jardungo du.
Apirilaren 19an, Arkupen, 19:00etan.


GOIENA

**BERGARA Debagoieneko XII. Trikiti Eguna**
Bihar, zapatua, 500 musikaritik gora elkartuko dira Bergaran, Debagoieneko XII. Trikiti Egunean. Trikitilari profesionalak –Kristina Solano eta Amaia Oreja, Migel Altuna Institutuan, 11:00etan– gazteei ezagutarazteko solasaldiak, kontzertuak –kaleetan– eta bazkari erraldoia egingo dute. Zapatua, Bergara, Egun osoan.

**BERGARA Txistuari buruz**
Txistuak sorreratik XXI. mendera arte izan duen bilakaeraz eta aldaketez berba egingo du Miguel Laskurainek.
Apirilaren 20an, musika eskolan, 18:30ean.

**ESKORIATZA Jon Sarasua**
Kolonbiara, Boliviara, Kurdistanera, Ekuadorrera eta Serbiara egindako bidaietako testu laburrek osatzen dute *Bost truke* liburua. Bazter horietako gertakari txikien marrazki-sorta bat da eta egileak berak aurkeztuko du.
Apirilaren 20an, Zaldibarren, 19:00etan.

**ARRASATE Nafar Erresumari buruz**
Sustarrak Errotuz taldeak gonbidatuta, *Nafar Erresumako txanponen historia* delako berbaldia egingo du Mikel Legorburuk.
Apirilaren 20an, Kulturaten, 19:00etan.

**OÑATI Markel Irizarrekin**
Txirrindularitzaren gaineko solasaldia egingo dute Trek-Segafredo taldeko ziklista oñatiarrarekin.
Apirilaren 21ean, euskaltegian, 18:00etan.

## BESTELAKOAK

**OÑATI Odol ateratzea**
Bereziki odol-emaile berriei egiten diete deia.
Bihar, zapatua, udaletxe zaharrean, 10:00etan.

**ARETXABALETA 'Abian' prozesua**
Azken batzarra. Ostean, Behin betiko txostena aurkeztuko dute.
Bihar, zapatua, udaletxe zaharrean, 10:00etan.

**OÑATI 'Abian' prozesua**
Hirugarren batzarra. Irekia da.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 10:00etan.

**ARRASATE 'Abian' prozesua**
Azken batzarra izango da. Prozesua amaitzeko Arrano elkartean bazkaria egingo dute.
Bihar, zapatua, Kulturaten, 10:00etan.

**ANTZUOLA 'Abian' prozesua**
Hirugarren batzarra egingo dute. Batzarra irekia izango da, interesa duten guztiendako.
Bihar, zapatua, Olaranen, 11:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**OÑATI 'Bide berriak' dokumentala**
*Elikadura Burujabetza* izeneko jardunaldietako ekintza. Egileekin solasaldia egongo da.
Apirilaren 19an, kultura etxean, 19:00etan

## LITERATURA

**ANTZUOLA 'Ahotik bihotzera'**
Hirugarren ipuin maratoia egingo dute ipuin kontalari entzutesuekin: 13:00etan ipuin eta bertso poteoa herrikoia, eta 18:30ean maratoia Torresoroan.
Etzi, domeka, aipatutako lekuetan eta orduetan.

## TURISMOA

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik irten eta Intxortako lubakietara joango dira. Hiru ordu eta erdiko bisita izango da. Izena emateko: 943-71 89 11 edo 943-79 64 63 telefonoak edo *turismo@debagoiena.net*.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## SARRERAK

**OÑATI Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak**
Hilaren 23an egingo dute Amalur ikuskizunaren emanaldi bikoitza egingo dute Txantxiku Ikastolaren Egunaren harira (16:30 eta 18:30). Sarrerak salgai dituzte ikastolako idazkaritzan.
Aipatutako egun eta orduetan.

## LEHIAKETAK

**ARRASATE 'Arrazakeriaren aurkako eguna'**
Argazki lehiaketa deitu dute Ekin Emakume Elkarteak, Elkarhezitzenek eta Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko azken eguna, gaur, egubakoitza da. Adinaren arabera, bi sari banatuko dituzte: 12-18 urte artekoendako 100 euroko bonoa eta 19 urtetik gorakoendako 150 eurokoa. Lanak *emakumeak@ekinemakumeak.eus* helbidera bidali behar dira.
Lanak entregatzeko, goian aipatutako lekuan eta egunean.

**BERGARA 'Bergara Hiria'**
*Argizaiola* lehiaketarako baliagarria izango da. Gaia eta teknikak libreak dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 18an bukatzen da, eta erabakia maiatzaren 21ean, zapatua, jakinaraziko dute. Ostean, erakusketa egingo dute. Lanak kultura etxean entregatu behar dira. Saritan, 1.320 euro.
Lanak entregatzeko, goian aipatutako lekuan eta egunean.


Arrasateko Udalari esker
'Stradivarias' ikuskizunerako sarrerak ditugu.
Amaia antzokian, Arrasaten. Apirilaren 24an, 20:00etan

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (APIRILAREN 19A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA STRADIVARIAS [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen–abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Brooklyn**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**El recuerdo de Marnie**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**ARETOAXXXX**

**La modista**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Iparraldeko Norman**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Filmaxxxx**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Los cinco y el secreto de la piramide**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**El secreto de una obsesion**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La juventud**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20.30.

**Mustang**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20.30.

**ANTZOKIA**

**El secreto de una obsesion**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Oker**
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**El libro de la selva**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:00, 21:00.
Martitzena: 17:00, 21:00.

**Las cronicas de Blancanieves, el cazador y la reina del hielo**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Nuestra hermana pequeña**
Egunbakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**El novato**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00.
Martitzena: 19:00.

**Cantinflas**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00.

**Madame Marguerite**
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**The lady in the van**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.

**El juez**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

**Mustang**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Julieta**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Secretos de una obsesion**
Egunbakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Kiki, el amor se hace**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Kung Fu Panda 3**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Zootropolis**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Normal del Norte (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

# Emozioen amildegia

**JULIETA** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Pedro Almodovar.
**Herrialdea:** Espainian.
**Urtea:** 2016.
**Aktoreak:** Emma Suárez, Adriana Ugarte, Daniel Grao.
**Iraupena:** 96 mjj, mnbvc minutu.

Pedro Almodovar Alice Munroren hiru idatzi motzetan oinarritzen da *Julieta* filma sortzeko. Kontatzen digun istorioan, sekretuek, ez esandako gauzek eta erraietan bizirik irauten duen saminak pisu nabarmena dute. Istorioa ez da modu linealean kontatzen: garai desberdinetako eszenak elkartzen ditu gidoiak. Hasieran, Julieta 50 urte inguruko emakumea da, bere bizitza aldatu nahi du, baina zerbait dauka barnean aurrera egitea galarazten diona. Azkeneko hamabi urteetan ez du bere bizitzatik alde egindako alabaren berririk izan. Alabari zuzendutako idatzi baten bidez, iraganean gertatutakoa ezagutuko dugu. Istorioan gaixotasuna, patuaren agerpena, zorroztasuna eta behar den momentuan gauzei buruz berba ez egiteak dakarren ondorioak agertzen dira. Egoera latzak daude eta agian, beste pertsonaiak babestu nahian, gauzak ondo azaldu gabe uzten dute eta horrela, gordetako sentimenduek eta gaitzondoak pertsonaien erraiak astintzen dituzte.

Almodovar artista inkonformista da. Arrakasta handiko filmak egin ostean, hurrengo proiektuan, ia beti, aurrerapauso bat eman nahi izaten du. Ez da formula ezagunean geratzen. La Mantxako zuzendariaren zineman, istorioak eta pertsonaiak gero eta barnekoiagoak egin dira. Bere istorioetan drama beti egon da, baina modu eroago eta bitxiagoan adierazita. Tragikomediatik drama zorrotzera pasa da. *Julieta* drama barnekoia eta misteriotsua da. Elipsiz beteta dago: dauden heriotza guztiak kameratik kanpo gertatzen dira. Pertsonaien bizitza markatu duten egoerak ez ditugu zuzenean ikusten. Ondorioak antzemango ditugu. Amaren eta alabaren artean, emozio–amildegi bat sortu da. Eta Almodovar dotoreziaz eta neurritasunez hurbiltzen da Julietaren mundu hermetikora.

ANTONIO ZABALA

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!



Uxarte jatetxean prestatutako pellak banilla-izozkiarekin.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba“

goiena“ 2016-04-15

BUKATZEKO

# 'Blai-Blai' prozesua martxan jartzen

- Bergarako Kilometroak 2016 jaialdiaren baitan sortutako egitasmo parte hartzailea da
- Urriaren 2ko festarako haurren beharretara egokituko den herri espazio bat transformatzea du helburu

**XABI GOROSTIDI** | BERGARA

Aurten Bergaran ospatuko den Kilometroak 2016 jaialdiak hainbat helburu ditu. Aranzadi ikastolarentzako errekurtsoak lortzeaz gain, herritarrak hasieratik bukaerara inplikatzea eta haiek parte hartzea da beste helburu bat, eta horren harira sortu da *Blai-Blai* prozesua. Aurkezpena datorren martitzenean, apirilak 19, egingo da, Bergarako Irizar jauregian, 18:30etik aurrera.

Prozesu honen bultzatzailea Airez taldea da. Bertako kide Nerea Madariagaren hitzetan: "Hiri antolamenduak bizitzan duen eraginaz jabetuta, hori moldatzeko herritarren parte hartzea posible egingo duten metodologia berritzaileak aplikatzea helburu duen talde bat gara". Airez taldea sortu aurretik *Berrekin. Berregin* prozesuan ibilitakoak dira kideetako asko, eta bertan, hiri ereduaren eta hezkuntzaren inguruko hainbat gogoeta egin zituzten.

Euren ustez, hiri antolamenduan hutsune handia dago haurrentzako espazioei dagokienez. "Kilometroak 2016 jaia Bergaran ospatuko dela ikusita eta herritarren parte hartzean sakontzeko apustua egin nahi dutela ikusita, bertan parte hartzea aukera paregabea zela pentsatu genuen".



Sara Martinez, Xabi Luke, Maite Arantzabal eta Nerea Madariaga, Airez taldeko kideak. | MONIKA BELASTEGI

**Parte hartzeko deia**

Airez taldeko kideek datorren martitzeneko aurkezpenera joateko deialdia egin nahi diote prozesu honetan euren aletxoa jartzeko prest dagoen hiritar orori.

Gunea zein izango den definitu gabe dago oraindik. Zirkuituan zehar dauden guneak aztertzen ari dira eta erabakia laster hartuko dute. Bultzatzaileek esan dutenez, "gunearen diseinuak garrantzi handia izango duen arren, prozesu osoa da baloratu behar dena, helburua jendearen ekarpenetatik sortutako zerbait eratzea da eta".

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



## 'Proiektu poetikoa'

*Proiektu poetikoa*. Horrela dauka izenburua e-mailez jaso dudan mezuak. Proposamena, hauxe: nire gustuko poema bat aukeratzea. Momentu txarretan lagundu didan poema, bertso edo esaera bat. Eta beste e-mail helbide batera bidaltzea, ezagutzen ez dudan pertsona bati: Enekori, kasu honetan. .

Hogei pertsonari bidali behar diezun mezua da. Kate bat, alegia. Gorroto ditut kateak. Eta are gehiago esaten dizutenean katea hausten baldin baduzu zorte txarra izango duzula. Baina hau ez da horrelakoa. Baditu desberdintasun batzuk. Hasteko, mezua euskaraz dago. Eta ez da derrigorrezkoa parte hartzea: ez baduzu nahi, bidali dizunak beste bat aukeratzen du zure ordez. Hori bai, parte hartuz gero, hainbat pertsonaren gustuko poemak jasotzen dituzu bueltan. Hogei poema, opari.

"Truke kolektibo eta konstruktiboa" izan nahi du. "Poesia berri eta inspiratzaileak" topatzen laguntzeko modu bat. Burura datorkizun lehenengoa bidaltzeko jartzen du, gehiegi pentsatu gabe. Eta hala egin dut. Aukeratu dudana: "Egun finlandiar bat". Eta zain nago. Jakin-minez eta ilusio txinparta batekin. Ea zer jasotzen dudan. Kateek utzi izan didaten sentsazio txarra poesia bihurtzeko esperantzaz.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



zenbaki
aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Errenta aitorpena eta aberastasuna aitortzeko kanpaina martxan

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus

30 1986-2016